

# Goienkaria

2009ko azaroaren 27a > Egubakoitza > IX. urtea > 399. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Bereziki Arizmendiarietaren bizitza espiritualak goraiatzen saiatu gara Erroman"

Jose Mari Ormaetxea  
Arizmendiarietaren kanonizatzearen aldeko batzordekoa > 09



**G2a** Arrasateko gaitarien 30 urteak DVDan > 45

**JENDARTEA** Genero indarkeriaren kontra konprometitu dira udalak > 04

**POLITIKA** Huheziko ikasleek itxialdia egin dute, azken atxiloketen harira > 04

**KIROLA** 105 debagoiendarrek hartuko dute parte Donostiako maratoian > 42

**EKONOMIA** > KONTSUMOA

## Krisiaren bigarren Gabonek gastua murriztea ekarriko dute

**HERRIAK** Udalek apaingarri gutxiago ipiniko dituzte; Oñatin, adibidez, iazko herena gastatuko dute horretan

**MERKATARIAK** Zailen ikusten dutenak jatetxeak dira, oraindik ez dute-eta erreserbarik; dendak baikorrago dira

**ENPRESAK** Aspalditik ez zuten Gabonetako oparirik ematen enpresa askok, eta batzuek aurten kendu dituzte > 02-03

**EKONOMIA** > SINDIKATUAK

## Ekonomia eredu berri eske, bihar

Hamar urrats eredu berri baterako dekalogoak aurkeztu dute Arrasaten ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK. Ekonomia eredu berri horren alde sinadurak batuko dituzte bihar. > 05

### Mireia Urtzelai eta Nekane Miranda, ikasle onenen artean

Karrera bukaerako sariak banatu zituen Kutzak martitzenean. Guztira, EHUko, MUko, Nafarroako Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko 41 ikaslek jaso zuten saria. Tartean, MUko ikasle Mireia Urtzelai oñatiarrak eta Nekane Miranda bergararrak. Biek ala biek diploma eta 1.400 euro jaso zituzten.

Mireia Urtzelai oñatiarrak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin ditu ETEOn; eta Nekane Miranda bergararrak Eskuhartze Psikopedagogia ikasi du Huhezin. Karrera uztailean bukatu zuten, eta, saria "ezustea" izan bada ere, "pozik" jaso dutela esan dute. > 06



SARITUAK Mireia Urtzelai oñatiarra eta Nekane Miranda bergararra Oñatiko Lege Soziologia Institutuko liburutegian.

MIREIA BIKUÑA

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06  
Iritzia > 08  
Elkarrizketa > 09  
Gutunak > 10  
Herriak > 13-41  
Kirola > 42-44  
Kultura > 46-47  
Sailkatuak > 48  
Gazteak > 50  
Telebista-Irratia > 51  
Zerbitzuak > 52  
Berri-zakua > 53  
Eskelak > 53  
Non-zer > 54-55

**JENDARTEA** > OSPAKIZUNA

## Euskararen Eguna da eguenean

Niri euskaraz dioten pegatinak banatuko ditu Debagunek eta soinean eroateko dei egin du > 06

### Etxebizitzen gaineko orrialde bereziak

GOIENKARIArekin batera, etxebizitzaren gaineko informazio zabalagoa barruko hamar orrialdetan.



**ION** ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUAK  
leihoak

**ESKAITZA: DIPROCA RENOVE PLANA**



6300 Modeloa Haritzezko egurra  
6 ate (2 ate beiradun eta 4 ate itsu)  
Marco berria  
Matelux kristalak  
Kromozko Rosetak  
Eskulana

**Orain 1850€**

BEZ BARNE



**12 HILABETETAN ORDAINTEKO AURKERA, INTERES BARIK**

Telleria 4 - 11 Pab. • Aramaioko bidea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 35

Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net  
www.ventaion.com

Olaguibel 51  
01003 GASTEIZ  
Tel./Faxa: 945 26 71 73

Posta elektronikoa: ion.v@euskalnet.net

EKONOMIA &gt; KRISIA

# Gastu txikiagoa egingo dugu aurtengo Gabonetan ere

**APAINGARRIAK** Nabarmen jaitsi da Gabonetako apaingarrietan udalen gastua: Oñatin, 14.000 eurotik herena gastatzera pasa dira

**KONTSUMOA** Aurreikuspen guztiek diote poltsikoari gehiago begiratuko diogula denok, baina aparteko gastutxoa egiteko gertu gaudela

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Gabonetako ikur ezagunenetari-ko bati, Freixenet cava katalanari eragiten badio –aurten ez dago asmatu beharrik Hollywoodeko ze izar izango den euren iragarkiko *burbuila*, iazko iragarkia errepikatuko dute-eta-, pentsatzekoa da gainerako guztioi ere eragingo digula. Bada, eragin hori igartzen hasi gara Debagoienean ere: azken urteotan Gabonetako argietan gehien gastatu duen udalak, Oñatik, erabaki du aurten argi-arku bat bera ere ez ipintzea, eta izeiarekin konformatu beharko dute oñatiarrok; aurretik bazetorren murrizketa hori, eta hala, iaz, udaletxeko balkoia apaintzen zuen *Zorionak* hitza desagertu zen, 2007ko 18.000 euroko gastuko 4.000 euroekin batera. Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak erabakia azaldu du "oraingo testuinguru ekonomikoa eta oñatiar askok eta udal kontuek eurek bizi duten egoera zaila" aipatuta zergati gisa. Aurrezpena halakoa izango da: iazko herena; hau da, 4.700 euroren bueltan.

Gainerako udalek ere azken urteotan *Gabonetako beharpenak* egin dituzte, eta ez bakarrik apaingarrietan, baita Gabonetako egitarauan ere: hala, Aretxabaletan, Errege Magoen kabalgaratarako argi-zuziak erosi zituztenez, gastu hori gutxiago izango dute aurten; eta umeek etxerik etxe egiten duten opari-batzearen ondoren, aurten umeendako mokadutxoak bakarrik egongo da, eta ez helduendakoa.

Horrez gain, orain dela urte batzuk arte, abenduko lehenengo egunetan pizten zituzten udalek apaingarriok, eta aurten, gehienek abenduko bigarren hamabostaldian piztuko dituzte.

Ez da erraza Gabonetako jai alai eta giro onekoak egitea –azken baten, jaiak direlako– beste alde-rik ekintzak edo gastuak kentzen badira; baina ematen du kentzen diren gastuak ez direla, oraingoz

**"Patea, jabugoa... eta horrelako produktu bereziak gutxiago salduko direla uste dugu, baina ohiko okela beti bezala salduko da", esaten du Jesus Odriozola harakinak**

**"Igartzten da krisia, bai; urte osoan igarri dugu. Baina Gabonetan, jendea beti animatzen da aparteko gastu bat egitera, ardurak alde batera utzita", dio dendari batek**

behintzat, oinarri-oinarrizko ezarri dagozkionak. Bestalde, udalek eta merkatariek garrantzi handia ematen diote gutxienez erdigunea animatuta egoteari; hori eta krisi garaia, dena kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak milioi bat euro dauzka aurten EAEko 3.000 biztanletik gorako herrietako merkatarien elkarreendako, erdigunea giro dezaten. Bestetik, merkatariek Gabonetako kanpainarako laguntzaileak kontratatzen ere badago dirulaguntza aukerarik.

Horrez gain, Gabonetako promozioak eta hainbat motatako bonuak ere izango dira herri batzuetan, eta, nola ez, beti hain erantzun ona izaten duten erakusleho lehiaketak. Horiek ere giroa alaitu eta komertzioari bultzadaxoa emango diote, baina udal kutxen egoerari erreparatuta, jakina: hala, Oñatiko lehiaketaren kasuan, 4.500 euro banatuko dituzte saritan, iaz baino 1.000 gutxiago.

**KRISIA, BAI, BAINA GUTXIAGO**

Aurtengo kanpaina benetan hain beharrezkoak izango dira ezohiko pizgarri horiek jendeak eros dezan? Azaro hasieran argitaratu ziren Deloitte kontsultariak Espainian egindako azterketa baten ondorioak: horien arabera, Espainiako familiek %19,2 gutxiago gastatuko dute Gabonetan (urte osoan gastu handien duten jaiak): batez beste, 735 euro, 2008an baino 175 euro gutxiago. Eta hori, kontuan izanda iaz ere jaitsi zela 2007ren aldean: %4,3 jaitsi zen orduan.

Merkatariek denetariko iritziak dituzte, baina gehienak, krisian gaudela eta igartzten dela onartu arren, baikor azaltzen dira, kontuan hartuta iazko Gabonetan aurrekaria dutela.

Hala, Oñatiko Txantxiku okela-dendako Jesus Odriozolak esaten du "oilasko, behi eta txerri haragia" berdintsu saltzen dabiltzala oraingoz eta "izurik gabe" dihardutela harakinok. "Aurten, susmoa daukagu produktu bereziak –pateak, jabugoa...– behe- ra egingo dutela; bezeroa ez da gauza horiekin ausartzen aurten. Baina ohiko okela berdintsu salduko dugula uste dugu", esaten du Odriozolak.

Opariei dagokienez, oraindik "goiz" dela esaten dute dendari- rik. Edozelan ere, iazko esperientzia eta aurtengo urte osokoa kontuan hartuta, saltzaile horiek ere ez dute aparteko beheraka-



Oñatiko plaza, orain dela bi urteko Gabonetan; aurten, pinua eta haren argiztapena ipiniko ditu

darik espero: "Igartzten da krisia, bai; urte osoan ere igarri dugu. Bestalde, oraindik jendea ez da erosten hasi; normalean, bi aste lehenago erosten dute. Baina Gabonetan, jendea beti animatzen da aparteko gastu bat egitera, ardurak alde batera utzita. Nik uste dut beti bezala joango dela aurtengo kanpaina", esaten du Arrasateko Zarrakoa opari-dendako Miren Gallastegik.

Troko jantzi-dendako Filo Gilek hauxe dio: "Iaz behera egin zuten salmentek, eta aurten iaz-

ko antzera gabiltza. Ez dira garai onenak, eta, beharbada, jendeak bai begiratzen diola apur bat gehiago poltsikoari. Hala ere, oraindik oso goiz da Olentzerotarako erosteko. Guk ez dugu ezohiko promozioak egingo ditugu, eta erakuslehoia dotore ipini".

Goian aipatutako Espainiako azterketa haren arabera, Espainian opari- rik hartzen dute Gabonetako gastuaren zati handiena (%56,5), eta gastu hori igo egingo da 2008koaren aldean:



zte, baina ez udaletxe aurreko apaingarria, Zorionak dioena.

JOSETXO ARANTZABAL

gauzak bestelakoak dira. Hala, Oñatiko Etxe Aundi jatetxean ez dute "ezertxo ere" erreserbatuta, arduradunak dioskunez. "Iaz polito egin genuen; aurten, oraingoz, hutsik gaude, eta susmoa daukat horrela jarraituko duela kontuak. Enpresa batzuek Gabonetako otzarak-eta kendu egin dituzte, eta horrekin bat dator bazkari edo afaririk ez egitekoa ere, pentsatzen dut".

Gabonetako pizgarri edo aparteko sariak kentzea erabaki duten enpresetako bat da Oñatiko Ulma taldea. Han, taldeko kooperatiba guztietan, baten izan ezik, iaz arte ematen zuten Gabonetako produktu sorta aurten ez ematea erabaki dute. Ulmako zuzendaritzak erabaki du hori, aurtengo ekitaldia ez baita nahi adina ondo joan. Bailarako beste enpresa batzuetan aspaldi kendu zuten Gabonetako saria edo otzara, eta aurten ere, arrazoi handiagoarekin, horretan jarraituko dute; hori da, adibidez, Fagor Etxetresnen kasua. Enpresako afari edo bazkaririk ere ez dute egiten han, hori ere aspalditik. Eta kontuan hartuta inguruko enpresa askok eta askok hartu dituztela zuhurtasun neurriak, zentzuzkoa da ondorioztatzea Gabonetako gastu horiek ez dituztela beharrezkotzat jotzen eta kendu egin dituztela.

Badirudi iraganean geratu direla enpresek langileei, baina baita bezeroei ere, Gabonetan Olentzeroren partetik oparia ematen zieten garaia; urdaiaz-pikotik eta cavatik, detaile bat egitera pasa dira enpresak. Hala, Espainiako eta Euskal Herriko enpresendako otzarak egiten dituzten enpresen elkarteak, Aslovac-ek, esan du iaz %20 gutxiago saldu zutela, eta, horrek jarraituko duen beldur, aurten euren produktu-sortak %7 eta %15 bitartean merkatu dituzte.

#### LOTERIAN SALBAZIO BILA

Hilabete baino gutxiago falta da Gabonetako Loteriaren zozketarako, abenduaren 22rako. Iaz, sari potoloa Oñatiko Irizar administrazioan eman zuten. Beharbada, horrek animatu egingo ditu erosle batzuk, baina, administrazio horretako Jaime Irizarrek dioenez, salmentak ez dira igo; iazko antzera dabilta saltzen, edo pixka bat jaitsi ere egin dira. Arrazoia ematen dio Espainiako Loteria eta Apustuen Erakundeak: iaz dagoeneko gutxiago erosi genuen gipuzkoarrok, eta, hori ikusita, iaztik hona dezimo kopurua jaitsi egin da.

Arrasateko Erdiko kaleko Alegria administrazioko Mertxe Ruiz de Alegriak krisiaren beste ikuspegia erakusten du, Arrasate Irratian egindako elkarrizketa baten: "Inoiz jokatu ez dutenek ere erosi dute aurten Gabonetako Loteria", dio hark. Haren esanetan, "jendeak esaten du, 'goazen loterian inbertitzera, badaezpada; beharbada, salbatu egingo gaitu!'"

Akaso, batek daki, zorteak berriro ukituko du Debagoiena; iaz ere, lehen saria hemen tokatu zen, eta haiek ere krisiaren eraginpeko Gabonak izan ziren.



Umeak jostailu erakusketan, joan den aste bukaeran.

JOSETXO ARANTZABAL

## Krisi garaian, jostailuak berrerabili

Txatxilipurdi elkarteak seigarren urtez ekin dio Gabonetako jostailuen truke merkatuari, eta oraingo astean hasi dira jostailuak batzen, abenduaren 13an egingo duten merkaturako. Krisi garaio-tarako, aukera ezin aproposagoa da; elkarteak dio: "Krisi garaian gaudela ere kontuan izanik, salerosketa murriztu eta berrerabilpenari garrantzia eman nahi"

diote aurten bereziki. Arduradun Arantza Osorok honela dio: "Ez dakit krisiaren eraginez edo gero eta ekintza ezagunagoa delako herrian, urtetik urtera arrakastatsua da; iaz, 160 jostailu jaso genuen, eta 97 trukatu ziren". Norberak behar ez dituen jostailuak eraman, txartela jaso eta horrekin jostailuak har ditzake.



Gabonetako argiak Oñatiko kaleetan, 2007ko abenduan.

JOSETXO ARANTZABAL

## Apaingarrietan, zuhur jokatzeko dute udalek

Oñatiko aurtengo gastu murrizketa oso nabarmena da, baina azken urteotako bidetik etorri da. Hala, 2003. urtean, Oñatiko Udalak 26.800 euroko gastua onartu zuen; lau urte pasa eta gero, 2007an, 17.950 eurora pasa zen Gabonetako argiak ipintzeko partida; eta iaz, 14.000 eurora.

#### 5.000 EURO GUTXIAGO

Baina gastuak txikitzeko joera ez da bakarrik Oñatiko. Gainerako udalek ere zuhurtziaren bidetik egin dute, eta, batetik, gastu

txikiagoa egin izan dute eta, bestetik, gastu hori txikitzen ahalegintzen dira. Hala, 2003an, Bergarako Udalak 19.250 euro gastatu zituen Gabonetako apaingarrietan; aurten, 12.000 euro gastatuko ditu. Gainerako herrietan oraindik txikiagoa izan da gastua: Arrasaten, 9.000 euroren bueltan egon izan da eta Aretxabaletan, 1.200. Zerbitzuan edo elementuetan ez ezik, beste gauza batzuetan ere aurrezten dute: geroago isiotzen dituzte argiak.

%16,2 gehiago, 415 euroko gastua aurten. Gurean ere, oparitzeko produktuen saltzaileen arabera, badirudi antzeko zerbaite gertatzen dela.

Geroxeago ere hasiko dira mugimendu handiagoa sumatzen Gabonetan eskari handia duten beste gremio baten: edertasun eta estetika zentroetan, hain zuzen. Horietan ere, jendeak "azkeneko momentura arte" itxoiten du tratamenduak egiteko, Bergarako Lilura zentroko Amaia Arrietak dioskunez. Ama-

garako Maite Agirrek esaten duenez, "azaroa beti da lasailasai, eta negua ere bai, oro har. Iaz dagoeneko ikusten hasi ginen jendeak kontu handiagoz gastatzen duela, baina tira... abenduan hasiko da jendea etortzen".

#### "EZ DUGU ERRESERBA BAT ERE"


Pixka bat zailxeago ikusten dute denboraldia jatetxeetakoek. Izan ere, horietan bai, badira betiko ohiturei begira, behintzat, Gabonetako bazkari eta afariak erreserbatzeko garaia. Baina aurten,



### Egunsentiaren esku izoztuak

liburuko zenbait poemaren errezitaldia **DVDn jasoa**. Xabier Lete zuzenean ikus-entzuteko aukera bakana.

#### Durangoko Azokan salgai



PAMIELA

JENDARTEA &gt; EMAKUMEENGANAKO BIOLENTZIAREN AURKAKO EGUNA

# Genero indarkeriaren aurkako konpromisoa hartu dute udalek

Udal gehienek adierazpenak onartu dituzte, indarkeria sexistaren aurkako jarrera berresten

Bergarako Udalak 16 salaketa tratatu ditu aurten, eta emakume horiendako zerbitzuak gogorarazi ditu

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Emakumeen aurkako indarkeria jendarte osoaren arazoa dela eta berau konpontzea ere denoi dago-gigula, hori izan da aurtengo Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean (eguztena, azaroak 25) errepikatu den mezuetako bat. Mezu hori bere egin dute Debagoieneko udalek eta alderdi politikoez, eta hainbat herritan indarkeria sexistaren aurkako testuak onartu dira, berau saihesteko rol aktiboa hartzeko borondatea berretsiz.

Jendarteak ere gaitzetsi egin du biolentzia mota hori. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Arrasateko Plataformak deitutako elkarretaratzea eta ekitaldi berezian ehun lagunetik gora batu ziren Herriko Plazan.



Ehun lagunetik gora batu ziren Arrasateko plazan egin zuten elkarretaratzean, eguzten iluntzean.

JOSU TXINTXURRETA

Antzuolako eta Oñatiko udalek deituta, agerraldiak egin zituzten herri horietan ere.

Bergarako Udalak onartutako testuan, esan du aurten 16 salaketa tratatu dituztela Udal Gizarte Zerbitzuek, eta emakume horiei eskaintzen dizkien baliabideak gogorarazi zituen. "Ez da pentsatu behar emakumeen arazo hutsa dela"; horregatik, "herri-tar guztiei bideraturiko ekintza

positiboak antolatu izan dira", esan du Bergarako Udalak.

Oñatin, batez ere, neska gazteei zuzendutako prebentzio kanpaina aurkeztu zuten eguztenean: "Gazteak ez dira beldur, baina beldurra izaten ikasten dute". Horregatik, "ahul bihurtzen dituzten ezaugarriak identifikatzen" erakutsi gura die Udalak.

Puntu lila ere hedatu da Arrasaten (hango Zinegotzi Sozialis-

ten Taldeak bultzatuta) eta Aretxabaletan (Udalak bultzatuta), biolentzia mota horren aurkako sinbolo gisa. Eskoriatzako Udalak aho batez onartu zuen eguztenean Ezker Batua-Berdeek aurkeztutako mozioa, eta horko puntu bat zen ikur lila udaletxeko balkoian ipintzea. Mozioak ere esaten du Udal Ongizate Batzordeari eskatuko diotela kanpainak egin ditzan.

POLITIKA

## Atxiloketak salatu dituzte HUHEZIn

Segiren kontrako operazioan HUHEZiko ikasle Maialen Eldua atxilotu zuten

M.B. &gt; ESKORIATZA

Grande Marlaska epailearen aginduz martitzenean egin-dako atxiloketak salatzen mobilizazioak egin dituzte han-hemenka, baita Eskoriatzan ere. Guztira, 34 gazte atxilotu zituzten Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan. Tartean, HUHEZiko ikasle Maialen Eldua donostiarra.

Hori horrela, Huheziko ikasleek eskolak eten zituzten martitzenean, eta 150 bat lagunek manifestazioa egin zuten Eskoriatzako kaleetan. Hasieran Ertzaintzak bost lagun identifikatu zituen. Gainera, Maialen Eldua inkomunikaturik dagoen bitartean unibertsitatean itxialdia egingo dutela esan zuten.

"ESKUBIDEAK ERRESPETATU"

Atxiloketak direla-eta Huheziko Zuzendaritza Kontseiluak prentsa-oharra kalera-tu zuen. Maialen Elduak jasan ditzakeen tratatu txarre-ak direla-eta "kezkatuta" dau-dela diote, eta atxilotuta dago-en bitartean haren oinarri-zko eskubideak errespeta daitezela eskatzen dute.

MANKOMUNITATEA &gt; INGURUMENA

## Etxeko landare-olioa batzeko lau edukiontzi jarri dituzte Eskoriatzako kaleetan

900 litro hartzen dituzte eta Intxaurtxuetan, San Juanen, Santa Anan eta Aranburuzabalan daude

MIREIA BIKUÑA &gt; ESKORIATZA

Etxean erabilitako landare-olioa jasotzeko edukiontzi bereziak jarri dituzte Eskoriatzan. Hain zuzen ere, lau jarri dituzte: Santa Ana kalean –auto-eskola parean–, San Juanen –fruta-dendaren aurrean–, Intxaurtxuetan –San Pedro kaleko bidegurutzean– eta Aranburuzabalan –Ezkurra enpresa parean–. Edukiontzi bakoitzak 900 litro olio hartzeko edukiera du.

Eguaztenean egin zuten esperientzia aitzindariaren aurkezpena. Ekitaldian egon ziren Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumeneko batzordeburu eta batzordekide Pedro Lasagabaster eta Jose Angel Antxia. Biek ala


biek azpimarratu zuten etxeko olio birziklatzea oso inportantea dela. "Landare-olioa ez badugu birziklatzen, arazo larria izan dezakegu etorkizunean", esan zuen Pedro Lasagabasterrek.

Era berean, esan zuten esperientzia ondo irteten bada Debagoien osora zabalduko dutela.

Astelehenetik aurrera erabilgarri egongo dira olio birziklatzeko edukiontziak.

ETXKO EDOZEIN ONTZI

Etxeko olio birziklatzeko etxeko edozein ontzi erabil daiteke, plastikozkoa edo kristalezkoa: baina ontziek ondo ixteko tapoia eduki beharko dute. Olio edukiontzi-tan sartzeko Mankomunitateak



Inbutu bereziak banatu dituzte. G.A.

ESANAK

"Etxean sortzen dugun olio ez badugu birziklatzen, arazo larria izango dugu etorkizunean"

Pedro Lasagabaster &gt; Eskoriatzako alkatea



Landare-olioa batzeko edukiontzi barrutik erakusten.

GOIATZ ARANA

banatu dituen inbutuak erabili ahalko dira. Inbutua ur botila edo freskagarri botiletan lotu behar da hari batekin, zartagine-tik botilara arazo barik pasatzeko edo modu garbian gordetzeko. Inbutuekin batera egokigailu urdinak emango dituzte. Horiek ur botilekin bakarrik erabili beharko dituzte. Segurtasunagatik, olio ontzietan sartu aurretik hozten uztea komeni da.

Eskoriatzarrek edukiontzi berriaren gaineko informazioa jasoko dute gutun bidez etxean. Alkatearen agurrarekin eta edukiontziaren erabileraren gaineko informazioarekin batera zigilua duen papera jasoko dute. Horren truke jaso ahalko dute inbutua.

Guztira, 200 inguru banatu dituzte Eskoriatzan abenduaren 18ra arte.



LABeko Inazio Azkarraga-Urizar, ELAko Amagoia Lasagabaster eta ESK-ko Felix Irizar, kanpaina aurkezten.

TXOMIN MADINA

KRISIA > KANPAINA

## Ekonomia eredu aldaketa eskatzen dute sindikatuek

'Hamar urrats eredu berri baterako' izeneko dekalogo aurkeztu dute ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta HIRUK

Sinadurak batu dituzte hainbat enpresatan, eta bihar, zapatua, hiru herritan batuko dituzte

**T. MADINA-L. KORTABARRIA > ARRASATE**  
*Hamar urrats eredu berri baterako* delako dekalogo aurkeztu zuten martitzenean Arrasaten ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatu aberzaleek. Dekalogo horren arrazoia da, euren esanetan, "maiatzaren 21eko grebaz geroztik, krisiaren ondorioak larritu" egin direla. Dekalogo horretan, hamar neurri proposatzen dituzte, eredu aldaketa hori lortzeko.

Dagoeneko hasi dira enpresatan kanpaina horren aldeko sinadurak batzen: Bergarako Candyn, 250 sinadura inguru batu dituzte; Oñatiko Zaharren, 170; eta

Arrasateko Udalean, 130 inguru. Baina, ELAko arduradun Amagoia Lasagabasterren esanetan, "kalera jauzi" egin nahi dute sindikatuok; horregatik, sinadurak batzen egongo dira bihar, zapatua, Bergarako eta Oñatiko plaza nagusian eta, Arrasaten, Hiper Eroskin eta Seber Altubenean; denetan, 12:00etatik 14:00etara egongo dira. 150.000 sinadura bildu gura dituzte Hego Euskal Herrian.

**HAMAR PROPOSAMEN**  
Sindikatuaren esanetan, "patronalak gero eta era basatiagoan dihardu, eta gobernuak patrona-

laren menpe daude, milaka langileren egoera larria eraginaz".

Hori dela eta, "eredu ekonomiko eta soziala aldatzeko garaia" ailegatu dela deritzote, eta hamar neurri proposatzen dituzte: kalitatezko enplegua lortzeko moduak; lan baldintzetan berdintasuna; prestazio sozialak ugartzea; zerga politika "bidezkoa eta progresiboa"; osasun eta hezkuntzan, gastu publiko igotzea; mendekotasun egoneari, hezkuntzari eta etxebizitzari dagozkion eskubide batzuk legez onartzea; sektore publiko bultzatzea, horretarako finantza sistema publiko eratu; askatasun sindikala; politika ekonomiko eta sozialen diseinuan, jendartearen parte-hartzea sustatzea; eta Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua bultzatzea. Proposamen horiek Gasteiz eta Iruñeko gobernuari eta Foru Aldundiei helarazi nahi dizkiete.

> DEIA

### Dendei eta enpresa txikiei iruzur egiten dabilzala salatzen dute

Debagoieneko hainbat merkataritza eta enpresa txiki salatu dute iruzurra egiten dabilzala. Antza denez, iruzurgileek telefonoz deitzen dute dendetara edo enpresa txiketara, lan arriskuen prebentzioen gaineko ikastarobaten berri emateko; ikastaroa egin ezean, isuna ordaindu beharko dutela ere esaten dute telefonoz. Ikastaroan izena emateko, 400 edo 500 euroko diru-sarrera eskatzen diote. Beraz, argi ibili eta ez fidatu horrelako deiren bat jasotzen baduzue.

> OSASUNA

### GIBaren proba azkarrak egingo dituzte Arrasaten

Abenduaren 1a Hiesaren Aurrakako Nazioarteko Eguna dela eta, abenduaren 2an, eguaztarena, Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) antigorputzak detektatzen dituzten proba azkarrak egingo dituzte Arabako hiesaren kontrako batzordekideek Arrasateko Sexologia Zerbitzuan (Gari-bai etxea), 17:00-19:00. Emaizta 15 minutuan jakin ahalko da; norbera GIB birusak infektatuta dagoen edo ez jakiteko modua da. Argibideetarako, deitu 943 25 20 66 zenbakira.

> ZERBITZUAK

### Ospitaleko larrialdiek Best in Class sarietan aipamena jaso dute

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuek aipamen berezia jaso dute ospitaleei ematen zaizkien Best in Class aurtengo sarietan, laugarren edizioa. Contenidos e Informacion de Salud argitaletxeak ematen ditu sariok, Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitatearekin batera, eta Euskal Herriko eta Espainiako 300 laguntza-zerbitzu dira sarietarako hautagai. Ospitale onenaren saria Nafarroako Unibertsitate Klinikak irabazi du.

MERKATARITZA > INAUGURAZIOA

## Euskarak presentzia izango du El Corte Ingles berrian

60.000 metro koadro eraiki dituzte Eibarko erdigunean eta 502 langile hartu dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL > EIBAR

Atzo ireki zuten Eibarren El Corte Ingles eraikin berria eta eguaztenean aurkeztu zuten prentsaurrekoan, Eduardo Robredo Eibarko saltokiko zuzendariak; Diego Copado kanpo harremanetarako zuzendariak; eta Pablo Muñoz arkitektoak.

**EUSKARAREN PRESENTZIA**

El Corte Ingles euskarari eman-gio dion lekuaz galdetuta, Robredok azaldu zuen langileak hautatzeko orduan kontuan hartu duten faktorea izan dela euskara. "Langile guztiek menperatzen dute euskara", izan zen, hain justu, Robredoren erantzuna.

Eibarko saltokian lan egingo dute 502 langilek, eta horietatik %73 emakumezkoak izango dira.

**60.000 METRO KOADRO**

Eraikin berria egiteko inbertsioa 80 milioi eurotik gorakoa izan da. 60.000 metro koadro ditu, hiru soto eta sei solairutan banatuta. Hiru sotoetan 647 ibilgailurendako tokia egongo da –horietatik 21 elbarriendako–. Gainera, berrietasun bezala, Eibarko El Corte Ingles ibilgailu elektriko edo hibridoendako aparkaleku bereziak jarri dituzte. Esan behar da ibilgailua birkargatzea doakoa izango dela bezeroentzat.

Punta-puntako markak aurkituko ditu bezeroak Eibarko saltokian: moda, jantzi-osagarriak, dekorazioa, etxea, kontsumorako elektronikak, lurrinak eta kosmetika, janari-edariak, aisiardia eta denbora-pasa produktuak egongo dira saltokian.



El Corte Ingles eraikin berria.

A.E.



TURISMOA ETA KIROLA: LANKIDETZAN HAZTEKO AUKERAK

ABENDUAK 3

SANTA ANA ANTZOKIA. OÑATI.



- 18.30 Agurra – Oñatiko Udala.
- 18.40 Turismoa eta kirola: lankidetzan hazteko aukerak. Julian Gómez Fuertes. Kiroletako programa burua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 19.00 Kirola oinarri duen produktu turistikoa. Iker Urzelai Cristóbal. Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia.
- 19.30 Euskal Mendizale Federazioa: jasagarritasunaren zaindaria. Txema Urrutia León. Euskal Mendi Federazioa.
- 20.00 Mendi gidaria: turismo aktiboko eragilea. Felipe Uriarte Camara. Mendiak eta Herriak, S.L.
- 20.30 Mahai-ingurua

Dohainik. Izen-ematea: Oñatiko Zubikoa Kiroldegia. 943 71 63 75. zubikoa@oinati.net Epea: Abenduak 1



Debaguneko kideak astelehenero prentsaurrekoan; berba egin zuten Eñaut Muxikak eta Nerea Mendizabalek.

A.E.

EUSKARA &gt; NAZIOARTEKO EGUNA

## 'Niri euskaraz' dioen pegatina jartzeko eskatu du Debagunek

Debagunek 3.500 pegatina atera ditu jendaurrean lan egiten dutenen artean banatzeko

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ARRASATE

Abenduaren 3a, eguna, Euskaren Nazioarteko Eguna da. Horren harira, Debagunek -Debagoienero euskara elkarten elkargoak- egun horretan *Niri euskaraz* dioen pegatina soinean jartzeko dei egin du.

Euskara Elkartearen kideak arduratuko dira jendaurrean lan egiten dutenen artean pegatinok banatzen; besteak beste, komertzioetan eta udal langileen artean. Hala ere, deia herritar guztiei zabaldu gura diete.

3.500 PEGATINA

Debagunek 3.500 pegatina atera ditu, eta egunean bertan jartzeko dei egun dute. Debagoienero dagokionez, ez dute egitaraurik prestatu abenduaren 3rako. Eki-

men orokorra izango da aurrez esandakoa: pegatina jartzeko deia. Hala ere, prentsaurrekoan Nerea Mendizabal Bergarako Jarduneko teknikariak esan zuen sorpresaren bat egon litekeela egunean bertan.

ELKARTEEN EGOERA

Euskara elkarten egoera ez dela ona azaldu zuen Eñaut Muxikak; horren adibide Oñati eta Antzuolako kasuak aipatu zituen. Hala ere, Muxikak esan zuen ez dutela uste "hil kanpaiak berehalakotan" entzungo direnik. Hala, "euskaldunok izan bagara Debagoienero", eta hori nabari geratzea gura izan du Debagunek.

GOGOETA

### Krisi ekonomikoaren eraginaz kezkatuta

Euskararen egungo egoera aztertu eta gogoeta egin du Debagunek. Astelehenero prentsaurrekoan azaldu zuten oraindik badagoela zer ospatua eta zer eginga. Horren harira, kezka ikusten dituzte bai krisi ekonomiko dela eta euskara elkartei egin dizkieten murrizketak; eta, baita ere, hezkuntza ereduaren inguruan izaten ari den eztabaida.

"Euskararen egoera pattala den bitartean eta gure eguneroko bizitzan gaztelania jaun eta jabe den bitartean, beti egongo da euskararen inguruan antolatuko den herritarrik" azaldu zuen Muxikak. Horregatik, dei egin dute soinean euskararen aldeko pegatina jar dezagun.

etxeke leihotik



Goiatz Arana &gt; 'goarana@goiena.com'

## Desitxuratuak, miss eta misterrak

Britainia Handiko kate baten aurpegia desitxuratuako jendeak aurkeztu du albistegia, astebetetz. Non eta telebistan, aurkezle lanetan ederra ez den inor gutxi ikustera ohituta gauden hedabide horretan -bereziki, kate handietan-. Mutur batetik bestera joan zaizkigu, golpe bakar baten. Ze aldaketa, ezta? Hori esanda, argitu nahiko nuke, ordea, ederra diodanean guapo esan nahi dudala, edertasuna kanpoan ez ezik barruan ere badagoela jakin badakidalako. Baina ez gaitzen engainatu: ez gaude halakoak ikustera ohituta eta inpresioa egiten du. Jaiotzez, auto istripu batek eraginda edo dena delako arrazoiren bat tarteko, aurpegia desitxuratu duten horiek begi onez hartu dute albistea, baikor agertu dira. Izan ere, kalean doazenean hainbaten begiradek gogorazten diete eurenak desitxuratuak direla eta horrek are zailagoa egiten du eguneroko borroka. Horregatik, euren moduko gizon-emakumeak telebistan aurkeztu lanetan ikustek halakoetara ohitzen lagunduko digun itzaropena daukate. Ea hala izaten den.

Horien alde ez ezik, miss eta misterren alde ere esan nahi dut zerbait, ordea. Edertasuna baloratzen da izendapen hori ematen den lehiaketetan, ezta? Bada, utz ditzagun lasai irabazleak, eta egin ditzagun jakinduria neurtzeko galderak beste lehiaketa baten.

**"Hainbaten begiradak zaildu egiten die eguneroko borroka"**

**> Topikoak baino ez dira, gainera, pertsona guapoak tontoak direla dioten esanak. Egongo dira, noski; guapo-azkarrak, itsusi-tontoak eta itsusi-azkarrak dauden moduan! Ez dituzte guapoak ez direnek direnak zigortu nahiko, ala?**

**> Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eskoriatzan izango dira bihar, ikuskizun berriarekin. Euskal Herriko neska-mutikoentzat ez dago horiek bezain pertsona ederragorik! Agian, egin dezakete zerbait aurpegia desitxuratu dutenen alde...**

HEZKUNTZA &gt; AIPAMENAK

## Nekane Miranda bergararra eta Mireia Urtzelai oñatiarra, ikasle onenen artean

Biek ala biek Kutzak ematen dituen karrera bukaerako sariak jaso zituzten martitzenean

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

1976. urtean hasi zen Kutxa karrera bukaerako sariak ematen, eta aurrean ere 41 ikasle saritu ditu: MUko 11 ikasle, EHUko 20, Nafarroako Unibertsitateko bost eta Deustuko Unibertsitateko beste bost. Sarituen artean daude MUko ikasle Nekane Miranda bergararra eta Mireia Urtzelai oñatiarra. Guztiek jaso zuten

saria Kutzako ordezkarien eskutik: alde batetik, diploma; eta beste alde batetik, diru-saria: 1.400 euro lizentziatura egin duten ikasleek eta 1.000 euro diplomatura egin dutenek.

"EZUSTEKOA"

Nekane Mirandak eta Mireia Urtzelaiak uztailan bukatu zuten karrera. Horixe baita saria esku-



Mireia Urtzelai eta Nekane Miranda.

MIREIA BIKUÑA

ratu ahal izateko bete beharreko baldintzetako bat. Orain dela hilabete jakin zuten sarietarako hautagaiak zirela. "Unibertsita-

teko arduradunek eman zuten gure izena, eta, egia esan, ez genuen espero", esan digute biek batera.

Nekane Mirandak Esku-hartzeko Psikopedagogia ikasi du Huhezin, batez beste 7,949 notarekin. Aurretik Haur Hezkuntza ikasi zuen. Egun, Jardunen dihardu euskara errefortzu. Aurreko astera arte ikastaro bat ematen ibili da, baina lanerako gertu dagoela esan digu.

Bestalde, Mireia Urtzelai Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin ditu ETEOn, eta batez besteko nota 8,8 izan du. Oñatiko Egaralur enpresan dabil lanean. "Orain arte ikasketak eta lana uztartu ditut. Egia esan, gustura nago lanean, eta gainera, etxetik gertu!", esan digu.

Bakoitzak 1.400 euro jasoko ditu lizentziatura egiteagatik, baina oraindik diruarekin zer egingo duten ez dakitela esan digute.


## Kutxa Aurreikuspen Plan

Zeure burua zenbat eta gehiago maitatu gaur,  
orduan eta hobeto biziko zara bihar.

Gaurdanik zeure buruaz arduratzeak etorkizun patxadatsua dakarkizu.  
**Kutxa Aurreikuspen Plan**ei esker, aurrea hartuko diozu erretiroari.  
Gaur zeure burua maita, eta biharko etorkizun oparoa ziurta.



zer nahi duzu bihar?



zabalik

Juan Martín Elexpuru

## Latinezko toki-izenak

Euskal herrian, batez ere Araban eta Nafarroan, asko dira *-ano*, *-ana* edo *-ain* amaitzen diren toki-izenak: Otxandiano, Aprikano, Maturana, Antsoain... Lehenengo parte pertsona izena da: Otxanda, Maturus, Afrikanus, Antso... eta bigarrenak, berriz (*-ano*, *-ana*, *-ain*), pertsona horren etxaldea edo baserria dela esan nahi du. Otxandiano *Otxanda* izeneko baten etxaldea izango litzateke eta Maturana *Maturus* batena. Adituen ustez, halako izenak oso zaharrak dira, erromatarren sasoi-koak ziurrenik, III-V. mende ingurukoak, beharbada.

Beti atentzioa eman dit era honetako baserri-izenak Bergara aldean topatzea, eta gehienak, mendi-bizkar berean, Lamaitotik Elgetako Asentzio ermitara bitartean, gutxi gora behera: Lamariano (Flamarius), Garitano (Garitius?), Amariano (Amatus), Urrufain (Rufinus), Marindano (Marinus). Mendi berean dago Partaitti (Paternita testu zaharretan, Paternus izenetik, ziurrenik). Gero bada Elosun Lutxurdiano (Lucius Urdea, agian), eta Arrasaten Lakiniano (Licinius).

Honek zer esan nahi du, erromatarrek zirela baserri horiek egin zituztenak? Ez, seguruen. Garai hartako euskaldun gehienei izen latinoa edo hebreoa jartzen zieten, gure belaunaldikoei Pedro, Jose, Pablo edo Antonio bezala. Ez dakigu ia ezer garai hartako historiaz. Dena dela, gauza jakina da soldadu hogeitaz egin eta gero lursail bat ematen zitzaizela lizentziatzen zirenean. Ez ote ziren soldadu jubilatutako izango Lamaito-Asentzio mendi-bizkarra kolonizatu edo okupatu zutenak? Eta kanpotarrak ala bertako semeak? Ezin jakin, baina bertakoak izan zitezkeen, gudari-talde euskaldunak baziren-eta erromatarren armadan.

usteak uste

Irati Agirreazaldeg

## Haizeak hitzak eraman ez ditzan

Haize hegoak dena zain, eror arazten gaztain. Hego haizea dugu egunotan aspertzeko lain eta gaztaina errekek ere kalei ematen diete nahikoa usain.

Haize boladak gogorrako danbolinak bueltaka baino; zeruan dena da laino eta gaitzerdi euririk ekartzen ez badute guganaino.

Udazken haizeek ekar ditzakete hamaika ezuste eta orbelak bezala esanak ere eramaten dituzte, esan horiek besteak beste politikariek beteko balituzte...

**"Garai hartako euskaldun gehienei izen latinoa edo hebreoa jartzen zieten, guri Pedro edo Jose bezala"**

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

## Etorri, etorri dira atxiloketak

Oxel Erostarbe

www.goiena.net/blogak/oxel

Esana zuen Amnistiaren Aldeko Mugimenduak epe motzean polizia operazio handia gertatuko zela, eta gaur egon da.

Horrelako operazioek gehiago dute estatuaren indar erakustaldi zantzua beste ezer baino, atxiloketa telebisiboak.

Auskalo zenbat denbora inkomunikatuta, torturak, auskalo zenbat denbora kartzelan preso prebentibo moduan... Gatazkaren alde honetan ere, egon badago sufrimendua..

## Giza garuna

Juan Ignacio Perez Iglesias

www.berria.info/blogak/txinpantze-biluzia

Gutxi gorabehera, ehun mila milioi neurona daude gizaki heldu baten garunean. Neurona horietako

bakoitzak bost mila lotura inguru ditu alboko beste neuronekin. Garun arrunt batek, milioi bat lotura ezar eta aska ditzake segunduko.

Gorputzak bizirik irauten badu, garunak ehun urtean zehar gorde dezake informazioa, automatikoki sailkatu eta behar denean, editatu. Bere ingurua irudika dezake; bibrazio, uhin elektromagnetiko, gai kimiko eta presio gisa iristen zaion informazioa hartzeko ahalmena duten sentoreak erabiltzen ditu horretarako. Gainera, hartutako informazio-zehazpenen artean, bati edo besteari eman diezaioteko lehentasuna interes- edo arrisku-irizpideen arabera.

Gutxienez, seiehun eta berrogei muskulu koordina ditzake, eta organismoaren energia-prozesatze, ugaltze eta biziraupen lanak egiten ditu.

Hala ere, bere jardueraren zati txikia erabiltzen du zeregin horietan. Askoz ere lan gehiago du beste gizakiekin ditugun harremanak kudeatzen, bizitzaren esangura baloratzen eta gure eskarmentutik eta ezagutu ez ditugun lagunen eskarmentutik ikasten.

koplak

Xabier Igoa

## Orain arteko kronika

*Montaña rusa* aurrera doa saio txarrak, saio onak, ta aipamenak egin aurretik guztiei zorianak!

Gasteizen flojo ibili zinen baina fuerte Iruñara. Zeneukan dena eman diguzu eta aupa Iturriaga!

Plazer handi bat izan duzula behin kantatzera joanda, zu entzute ere Elortza plazer handi bat izan da!

Miren, Maddalen, Jone, Julio, Beñat ta baita besteak, lana ederto egin duzue mila zorion gazteak!

Nerbioak daude ta gorputza mila tentsioz beteta. Belodromoan igande arratsez da azkenaurreko buelta!

Festa berriz Barakaldokoa edo azkenengo buelta. Doana doala ere berdin ona izango da eta!

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)  
**Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

**Publizitatea** Arretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Euzko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaArretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**



Jose Mari Arizmendiarietaren heriotzaren 33. urteurrena bete-ko da domekan, hilaren 29an. Arizmendi Topaketak ekitaldia egin zuten atzo; Ainara Udaondo Huheziko irakasleak *Nora-bide bat kooperatiba taldearen-tzat* izenburuko hitzaldia egin zuten. Domekan, berriz, Arizmendiarieta gogoratuko dute eguerdiko meza nagusian, Arrasateko San Juan parrokian.

Jose Mari Ormaetxea > Jose Mari Arizmendiarieta kanonizatzearen aldeko batzordekoa

# "Bereziki Arizmendiarietaren bizitza espirituala gorai patzen saiatu gara"

EDU MENDIBIL > ARRASATE


Ibilbide profesional oparo baten ondoren, Jose Mari Ormaetxea (Arrasate, 1926) erretiratu aktibo horietako bat dugu gaur. Besteak beste, *Medio siglo de la experiencia cooperativa de Mondragón* eta *Didáctica de una experiencia empresarial* dira haren lanetako batzuk. Egutero joaten da Otorako egotzian duen bulegora, 82 urterekin astean behin palan jokatzan du Mazmelako frontoian eta, horrez gain, Jose Mari Arizmendiarieta (1915-1976) santu egiteko prozesuari ekin zion orain dela hamar urte, Jesus Larrañaga zenarekin eta Alfonso Gorroñogoitiarekin batera.

**Hamar urte beteko dira domekan Arizmendiarietaren kanonizazio prozesuari hasiera eman zeniotenetik.**

Bai, 1999ko irailaren 24an Arizmendiarietaren gorpuzkiak Aldaiko kanposantutik San Kristobalera eramane zituzten eta ekitaldi berezia egin zen. Larrañaga, Gorroñogoitia eta hirurok, emazteekin batera, afaria egin genuen egun hartan eta zera pentsatu genuen: bizirik zegoela ezin eman zitzaion gauza bat eskaintzea Arizmendiarietari: aldareetara eramatea, hain zuzen. Lehenbiziko zeregina Arizmendiarieta gertutik ezagutu zuten 23 lagunengana jotzea izan zen. Haien bultzada nolabait jaso genuen aurrera egiteko eta Elizako adituekin ere batzartu ginen: Setien gotzaina, Jose Maria Astigarraga Arrasateko parrokoa, Jose Ignacio Telletxea Idigoras apaiz eta idazlea, Pedro Alkorta aditua, Laboa monsinorea, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina bera... Esan beharra daukat Uriarte gotzainaren laguntza izan dugula hasieratik, eta eskerrak eman beharrean gaude. Datoren egunotan harekin egoteko asmoa daukagu, eskerak emateko eta agurtzeko, gotzain kargua uztera doa-eta.

**Eta zertan da orain kanonizazio prozesua?**

Lehenbiziko sei urteak, nagusiki, dokumentazioa batzen eman genituen eta azken lau urteotan Elizaren oniritzia lortuta egin dugu lan. Hain zuzen ere, Sarai-va kardinalak *Nihil obstat* delakoa (onarpen ofiziala nolabait) eman zion prozesuari 2005ean. Joan den maiatzean Erroman izan ginen Alfonso Gorroñogoitia, Jabier Retegi eta hirurok eta batutako dokumentazio guztia



Kooperatiben mugimenduko sortzaileetako bat izan zen Jose Mari Larrañaga; argazkian, etxeko egongelan, eguaztenean.

EDU MENDIBIL

eraman genuen, 3.000 orrialde inguru guztira. Gaur bertan [eguztenea] Erromatik gutun bat jaso dut, Ildefonso Moriones postulatzailearengandik, prozesua aurrera doala esanez. Orain Santuen Gaietarako Kongregazioak erabaki beharko du prozesua ondo bideratuta dagoen. Juan Maria Uriarteren zuzendaritzapean Gipuzkoako Elizbarrutiak egindako lanari Baliozkotasun Dekretua ematen dioten ala ez erabaki beharko dute. Santuen Gaietarako Kongregazioa oso zorrotza omen da, haren galbahetik pasa beharra dago, baina, edozein modutan, itzaropentsu gaude.

**Zeintzuk dira zuen babesleak Vatikanon?**

Bost egun eman genituen Erroman, maiatzean, eta Vatikanoko, Santuen Gaietarako Kongregazioko eta Karmeldar Oinutsak ordenako (hango nagusia euskalduna da) hainbat ordezkariarekin bildu ginen. Harrera ezin hobea egin ziguten leku guztia

KANONIZAZIO PROZESUA

**"Batutako dokumentazio guztia Erroman dago, 3.000 orrialde inguru guztira"**

LEKUKOA

**"Hemendik aurrerakoa Jabier Retegiren eta Juan Manuel Sinderen eskuetan utziko dugu"**

ESKAKIZUNAK

**"Mirariak heltzeko eliztarrek Arizmendiarietari otoitz egiten jarraitzea ezinbestekoa da"**

tan. Damaso Zuazua Karmeldar Oinuts aretxabaletarrarekin ere izan ginen eta oso gizon adeitsua eta azkarra dela esan beharra daukat. Ildefonso Moriones Zubillaga nafarra, esan bezala, postulatzailea da Erroman, prokuradorea nolabait esatearren. Ledekoa da bera eta beste nafar batekin ere, Kasedako Romualdo Rodrigorekin, hartu-eman zuzena izan dugu. Edozein modutan, prozesua fase konplikatu baten sartzen da orain eta Santuen Gaietarako Kongregazioren *Positio* delako agiria jasotzeko zain egon behar dugu. Luze jo dezake horrek. Alfonsok eta biok hamar urte egin ditugu kontu honekin, ordu pilo bat eskaini dizkiogu eta hemendik aurrerakoa Jabier Retegiren eta Juan Manuel Sinderen eskuetan utziko dugu.

**Arizmendiarieta gertutik ezagutu zenuen. Zein da hura santu izendatzera eramane zaituen arrazoi nagusia?**

Ugariak izan ziren ekarpenak. Besteak beste, aberatsak

izan gabe zoriontsu bizi izaten erakutsi zigun; dirua ondo erabiltzen; solidarioak izaten; edo ebanjelioaren mandatu bete-tzen: *Maitatu elkarri nik maitatu izan zaituztedan moduan*. Esan bezala, alor ezberdinetan egin zuten lan, baina Erroman bereziki haren bizitza espirituala gorai patzen saiatu gara.

**Eta zeintzuk dira norbait santu izendatzeko ezinbesteko eskakizunak?**

Zuzenbide kanonikoaren arabera, fedea, esperantza eta karitate modu bikainean landu, zabaldu eta garatu behar dira eta horrez gain mirari bat egin behar da beatifikatzeko eta gutxienez bi mirari santu izatera iristeko. Ustezko mirari horiek medikuen epaimahaiak eta Elizakoak onartu behar dituzte eta Erroman gero eta zorrotzagoak dira. Gu Arizmendiarietaren izena zabalitzen jarraitzen dugu eta mirariak heltzeko eliztarrek Arizmendiarietari otoitz egiten jarraitzea ezinbestekoa da.

## Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari

Oskar Zapata, Garbiñe Petriati, Mikel Buldain

(Topagunea, Euskarazko hedabideak eta NafarPress, hurrenez hurren) Iruña

Azaroaren 24ko datarekin Euskarabideako zuzendari-kudeatzaile Xabier Azanzak ondoko adierazpena egin zuen Xorroxin Irratian, euskarazko hedabideetarako laguntzen desblokeoa dela-eta:

"Telefonoz Topaguneko zuzendariari deitu diot orain gutxi berri txarrak emateko, atzo arte deialdia aterako dela esan diegu bai hedabideetako ordezkariari baita medioetan galdera egin digutenei. Horretarako behar den Gobernu Akordioa sinatuko zela esan dugu. Eta gaur jakin dut atzoko Gobernu saioan ez zutela onartu diru laguntza ateratzeko behar zen akordioa. Zergatik ez zen onartu oraindik ez dakidala aitortu behar dut. Kontua da epez hain estu ibilita oso beltza ikusten dudala. Akaso hurrengo bileran... ba ez dakit".

Hitz horiei erantzunez, duela urtebetetik hona Euskarabidearekin eta Azanza jaunarekin gaia lantzen gabiltzan euskarazko hedabideen ordezkariok honako hau adierazi nahi dugu gure aldetik:

1. Urte osoa jiraka eta bueltaka ibili ostean, ezin dugu sinetsi uztailean agindutako 240.000 euroak ez dituztela banatuko.

2. Kasu eta une honetan Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari dagokio Gobernu konbentzitzeko edo presionatzeko ardura.

3. Diru laguntza deialdia ateratzeko erabakia oraingoz Nafarroako Gobernuaren eskuetan dagoen heinean, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuz, Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari eskatzen diogu, Gobernu konbentzitzeko eta presionatzeko eduki ditzakeen bide guztiak erabili ditzala, bere kargua mahai gainean jartzearaino beharrezkoa izanez gero.

Horrez gain, eta Azanza jaunak egoera erogarri hau

## Eskerrak, Arrasateko guraso eta haurrei!

Egoitz Larrañaga (Txatxilipurdi Elkarteak)  
> Arrasate

**T**xatxilipurdi euskara elkartetik eskerririk beroenak eman nahi dizkiegu Arrasateko guraso eta haurrei, Gurasolandian parte hartu eta giro paregabea jartzeagatik. Zuek gabe, ezinezkoa izango zen horrelako egitasmo bat aurrera ateratzea. Espero dugu ongi pasa izana, egunaz gozatzea eta oroitzapen goxo bateaz geratzea.

Eskerrak baita ere eguna posible egitea ahalbidetu duzuen guztioi: Txatxilipurdiko bazkide eta langileoi, Udal brigadakoei, Aukeakoei... eta zerrenda honetan ahazten zaizkiguneei ere.

Oso polita izan da eta espero dugu laster topo egitea berriro. Jakin ludotekatan asteburuetan ekintza ezberdinak antolatzen direla eta hor dagoela [www.guraso.com](http://www.guraso.com) webgunea gurasoei buruzko informazio mardularekin. Aisialdian eta euskaraz, Txatxilipurdi beti izango da bidelagun. Beste bat arte!

desblokeatzen asmatuko duelakoan, agerian utzi nahi dugu beste behin ere gure prestutasuna 2010. urtean euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko elkarlanean segitzeko.

## Emakumeen kontrako indarkeriaz

Agurne Barruso  
(Bergarako alkatea)  
Bergara

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Bergarako Udalak jakinarazi nahi du konpromiso irmoa hartzen duela emakumeen kontrako indarkeriaren aurka lanean jarraitzeko.

Emakumeak familia esparruan jasaten duten indarkeria da, zalantzarik gabe, une honetan gizarteak duen arazo larrienetakoa bat. Azken urteetan, Euskal Herrian etxeko tratu txarretan sorburua zuten ehunka salaketa aurkeztu dira. Bergaran ere ez gaude arazo horretatik kanpo, eta adibidez, oraindik urtea amaitu ez den honetan, 16 salaketa izan eta tratatu ditugu Bergarako Udala Gizarte Zerbitzuetan. Alabaina, salaketa horiek benetako arazoaren zati bat baino ez

dute islatzen; izan ere, benetan gertatzen diren kasuen %10-30 soilik salatzen direla uste da.

Forma ezberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da. Emakumeen aurkako indarkeria oso konplexua den arazo politiko eta soziala da eta desagerrarazteko halabeharrezkoa da eremu ugari eta diferenteetan esku hartzea.

Gai honen inguruan Bergarako Udalak antolatzen dituen ekintza eta eskaintzen dituen zerbitzu guztien helburua emakumeei babesa eta autonomia bermatzea da.

Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuak hainbat zerbitzu ditu martxan tratu txarrak jasan dituen emakumei babesa emateko: Baliabide eta zerbitzuei buruzko informazio ematen da; orientazioa eta aholkularitza; laguntza juridikoa; laguntza psikologikoa, eta laguntza ekonomikoak.

Behar izanez gero, prozesu guztian zehar babes eta laguntasuna ematen da.

Bestalde, ez da pentsatu behar emakumeen aurkako indarkeria "emakumeen arazo" hutsa dela, eta honenbestez genero indarkeriaren inguruan komunitatea sentibilizatzeko helburuarekin,

herritar guztiei bideraturiko ekintza positiboak antolatu izan dira, hala nola hitzaldiak, ikastaroak, tailerrak, sentsibilizazio kanpainak...

Hori dela eta, Udal honek konpromisoa hartzen du bere eskumenen esparruan udal politika aktibo, oso eta koordinatua egiteko aukera berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka. Udal politika horren barruan, eta aipatutako beste tresna batzuen artean, herri mailako emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun diagnostiko eta plana burutzen ari da.

Gaurko egun honetan bereziki, baina baita egunero-kotasunean ere, herritarrei dei berezia egiten diegu proiektu honetan parte hartu eta gizartearen hedatuta dauden jarrera eta mentalitate sexistak salatu eta desagerrarazteko.

## Aramaioko Udalarari

Xabier Herrarte  
Aramaioko

GOIENKARIAn irakurri eta idaztera animatu naizenerako denbora puska bat pasatu bada ere, eta egiten dudana lehen aldian izanagatik, zuen keinu txalogarriari erantzutea pentsatu dut.

Herriko plaza eta Nardeaga kalea eraberritzeko asmoaren berri jaso dudanean, eta, bide batez, herritarroir iradokizunak egiteko aukera zabaldu zaigunean, besteak beste, aipatu ditudan arazoak aitzakia hartuta, nire iritzia botatzea pentsatu dut.

Teknikoki ezer gutxi iradoki nezakeen arren, horretarako hurbilekoen behar izanak gertuagotik ezagutu behar baintuzke, bestak beste, erabat bat nator herriko bi gune hauetan planteatzen dituzuen aldaketekin. Errespetu falta handia dela deritzut, herriko plazari ematen diogun erabilera, ilunkera eta aste bukaeratan behinik behin eremu lasaia izatea eskertuko litzateke.

Zoruak eta inguruak ere bistakoa du berritzeko premia, eta ausartuko nintzateke esatera beste era batetara antolatu beharko litzatekeela, dituen metro karratuak hobeto aprobetxatzeko.

Nardeagan ere, lehendik zegoen arazoa azkenaldi honetan nabarmendu egin da; izan ere, hiru taberna egonik eta laugarren bat zabaltzeko asmoa egonda, aspaldion, jende mordoa pilatu izan gara hauen inguruan, eta erditik pasatzen den errepidea arazo bihurtzen da pertsona nagusi eta umeak ditugunontzat. Aramaio herriaren egitura luzea eta estua izan eta aisialdi tokiak mutur banatan izanda, giroak erabat sakabatu egiten dira, eta gune hau erabat aproposa dela uste dut, herritarrok elkartzeko, giroa sortzeko.

Jendea pilotzeko, herrian diren eremu garrantzitsuenak Nardeaga goialdean kokatuta daude. Kiroldegia, eskola, parkea, kultur etxea, jubilatuen elkarteak, anbulatorioa, etab... Horregatik, uste dut inguru hau babestu beharko litzatekeela, alden neurrian autoak pasatzea eragotziz, oinezkoendako eremua bihurtuz, eta parke, kultur etxe, eta taberna giroa bateratuz.

Herriaren ardatza bertatik pasatzen dela kontziente izanik, erabat ziur nago, aldaketa hauek izango litzukeen eragozpenak eta herritarrrongan sortuko litzukeen gaizki esanak, ohitura aldatzeko leharkean denbora tartea irauango luketela. Nire ustetan, luzera begira herriak horrelako eremuak babestu eta sortzeari onespina emango bailioke. Uste dut horrelako egitasmoek ausardia apur bat eskatzen dutela, baina herriaren biziraupena ziurtatzeko ezinbestekoak direla. Herri eta hiri handietan, trafiko arazo larriagoak egonagatik oinezkoen guneak sortzea lehenesten dute, herriaren izaera bermatu nahi bada beharrezkoa delako. Aramaion irako urteetan herri izaera galdu egin dugu, askontzako lotariko herria soilik bilakatuz.

Badakit guzti honekin aterabide gutxi eskaintzen diodala udalarari, baina izandako keinua eskertzearen ez bada ere, hausnarketa hau idaztea erabaki dut. Dena den, proiektua amaitu ondoren herriari ikusgai jartzea eskatuko nuke, gaitasun teknikorik ez dugunok, beste era bateko iradokizunak egiteko aukera izan dezagun.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

**Goitb**  
Goiena Telebista  
**Ikustekoa!**





# Eibarko El Corte Inglés

## Moda bizitzeko beste estilo bat



Beste estilo bat janzteko eta azken joerekin atsegin hartzeko, bertoko eta nazioarteko firma handien diseinuak edo markarik eksklusiboak osagarri guztiekin: oinetakoak, poltsak, erlojuak, lurrinak eta kosmetikoak... Zeuretzat pentsatutako moda-estilo bat.



EGO GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA.  
HITZ EGIN GUREKIN: 901 122 122

[www.elcorteingles.es](http://www.elcorteingles.es) INTERNETEKO DENDA HANDIA



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresazako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria.**



## Santa Ana

Urribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE  
Tel.: 943 79 49 39

### Eskaintza

[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE  
943 79 12 50 / 943 77 15 62

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

# Herriak

Arrasate > 14-17 Bergara > 18-21 Aretxabaleta > 22-24 Oñati > 35  
Eskoriatza > 36-37 Antzuola > 38 Elgeta > 39 Aramaio > 40 Gatzaga > 41



> **ARRASATE**  
Atsedean hartu eta Santamasetarako gertatuko dira baserritarrak > **14**



> **BERGARA**  
Alai taldeak eta beste bi otxotek kontzertua egingo dute bihar > **21**



> **ARETXABALETA**  
Mitarte kaleko saneamendu lanak abenduaren 4an bukatuko dira > **22**



> **ANTZUOLA**  
Etzi banatuko dituzte argazki lehiaketako sariak; 71 lan jaso dira > **38**

ARETXABALETA > AZPIEGITURAK

## Bi saihesbideri eta betiko errepideari eragingo die biribilgune berriak

### HANDIA

Elorregikoaren ezaugarri batzuk izango ditu, baina handiagoa izango da: 80 metroko diametroa

### AURRELANAK

Azpiegitura batzuk lekuz aldatzen dihardute egunotan

**LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA**  
Bai GI-627 saihesbidetik, bai Arrasate eta Aretxabaleta arteko eskualde-errepidetik, bai bi horien arteko bidegorritik ibiltzen direnek ikusi dute dagoeneko Arrasate eta Aretxabaleta arteko mugan obratan dabiltzala. Izan ere, hiru bide horiei eragingo die han egingo duten biribilguneak. Ez horiei bakarrik, baita Arrasateko mendebaldeko saihesbidea izango denari—Olandixoko tunela—ere, horren ondorioa da eta honako biribilgunea: saihesbide horretatik etorriko den zirkulazioa ere hartuko du biribilguneak.

Orain, aurrelanak egiten dabilta, Deba ibai inguruan, hainbat azpiegitura lekuz aldatu beharra dagoelako biribilgunea erakitzen hasi aurretik. Lanak urrian hasi ziren, eta goi tentsioko argindar lerroa eta hondakin-uren sareko azpiegiturak (Eskoriatzatik datozen urak jasotzen dituen kolektorea, funtsean) lekuz aldatzen dihardute oraindik. Horren ondoren, ibaiaren gaineko bi zubi egingo dituzte, eta azkenik, biribilgunea bera.

Lanak Foru Aldundia egiten dabil, 1,9 milioi euroko aurrekontuarekin. 2010eko uztail ingururako bukatuta edo bukatzeko bidean egotea espero dute arduradunek.

### BI ZUBI

Biribilguneak zenbait berezitasun ditu. "Elorregiko biribilgunearen antzekoa izango da, bai



Bidegurutze horren partez, biribilguneak arautuko du zirkulazioa.

JOSETXO ARANTZABAL

na handiagoa, 80 metroko diametroarekin", azaltzen du Aretxabaletako udal aparejadoreak, Jose Mari Segoviak. "Arrasate eta Aretxabaleta arteko eskualde-errepidearen kota igo egingo da; eta biribilguneak bi zubi izango ditu Deba ibaiaren gaine-

### ESANAK

**"Obrek irauten duten bitartean, ez da autoen edo oinezkoen joan-etorria etengo"**

Jose Mari Segovia > Aparejadorea

### DATUA

**1,9**  
MILIOI EURO

Foru Aldundiak dihardu lanak egiten, 1.900.000 euroko aurrekontuarekin. Datorren uztailerako bukatu gura dituzte.

tik, Elorregin gertatzen den moduan. Arrasate-Aretxabaleta bidegorri zatia biribilgunearen azpitik pasatuko da. Era berean, GI-627 saihesbidearen trazatua pixka bat mugitu egingo da, biribilgunean sar dadin". Bai gaur egungo zein saihesbide berriko, bai bi herrion arteko errepide zaharreko zirkulazioa biribilguneetik pasatuko da ezinbestean, hortaz, eta horrek beste ondorio—on—bat izango du: abiadura murriztu egin behar du dutela gidariak.

Biribilgune berriak honako zentzuetan bideratuko du zirkulazioa: Arrasatera edo Aretxabaletara, ohiko errepidetik; Arrasatera, Olandixoko saihesbidetik; eta Gasteiz edo Donostia aldera, GI-627 saihesbidetik.

### HASIERAKO ASMOAK ALDATU

Foru Aldundiak entzun egin ditu Arrasateko eta Aretxabaletako udalek egindako iradokizunak: "Hasierako proiektuak aurreikusten zuen biribilgune txikiagoa, eskualde-errepideari bakarrik eragiten ziona. Guk Aldundiari esan genion hori gutxiegi

izango zela Garagartzatik etorriko den zirkulazioa hartzeko, eta Arrasate mendebaldeko saihesbidean auto-ilara handiak sortzeko arriskua egongo zela. Hala, azkenean, proiektua aldatu zuten eta biribilgune handia egingo dute, oraingo saihesbidea

### LABUR

#### > BI HERRI

Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan egingo dute biribilgunea.

#### > ERAGIN HANDIKOA

Hiru errepideko zirkulazioa hartuko du: Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidekoa, GI-627 saihesbidekoa eta etorkizuneko Arrasate mendebaldeko saihesbidekoa, Garagartzatik egingo duena bat biribilgunearekin.

#### > IBAIA ETA BIDEGORRIA

Bi zubi izango ditu Deba ibaiaren gainean, Elorregiko biribilguneak dituen moduan. Azpitik, ibaia eta Arrasate eta Aretxabaleta arteko bidegorri zatia pasatuko dira. Errepidearen kota igo egingo da.

ere hartzen duena", azaltzen du Jose Mari Segoviak.

Aipatzekoa da ere, gidarien eta bidegorria erabiltzen dutenen lasaitasunerako, eragindako bideetako zirkulazioa ez dutela behin ere etengo obrek irauten duten bitartean.

#### > HANDIA

Tamaina dezentekoa izango da, 80 metroko diametroarekin.

#### > AURRELANAK

Orain, lekuz aldatzen dihardute azpiegitura batzuk: ur zikinen kolektorea eta argindarraren instalazioak.

#### > EPEAK

Hurrengo, bi zubiak egingo dituzte, eta azkenik, biribilgunea bera. 2010eko uztailaren bukatuta edo bukatzeko bidean izan nahi dituzte obrak.

#### > ERABILTZAILEAK, EROSO

Behin ere ez da gidarien edo oinezkoen zirkulazioa etengo.



Hilero egiten dute baserritarrek azoka.

MONDRABERRI

BASERRIA &gt; AZOKAK

# Baserritarren hurrengo hitzordua, Santamasak

Baserritarrek egin dute zapatuetako aurtengo azken azoka, eta orain hausnarketa egingo dute

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasateko baserritarrak lanpetuta dabilta azkenaldian. Uda aurretik hasi ziren, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, baserriko produktuak promozionatzeko azoka bereziak egiten. Eta hilabete bakoitzeko hirugarren zapatuan izan da baserritarren eta eurek landutako produktuen presentzia Seber Altube plazan.

Orain, berriz, neguko atsedena hartu, eta Arrasateko hurrengo hitzordu handiarekin bat egiteko prestatuko dira herriko eta inguruko baserritarrak: Santamasak.

KARTEL EGILE BERRIA

Martitzena tokatzen da aurtengo abenduaren 22a, Santamas eguna. Gaurko eguna kontatuta (egubakoitza), 25 egun justu. Ezin bestela izan, eta jai handi hori antolatzen dutenak buru-belarri dabilta lan eta lan.

Santamas Komisiñuek, adibidez, iragarri du laster ikusiko dugula Santamasetako kartela kaleetan. Besteak beste, horrek esan gura du aukeratuta dutela

aurrerantzean Santamasetako marrazkia egingo duen egile berria, Olariagaren ordekoa. Dione laster jakinaraziko dutela hori.

BASERRITARREN AZOKA

## Datorren urtean egiteko asmoarekin

Hileko hirugarren zapatuko azokarekin pozik daude udal ordezkariak: "Bete gura genuen helburu bat: baserritarren parte-hartzea hilero mantentzea. Bazuendako esfortzu handia da, material gutxi dutelako. Baina postu gutxien egon denean, hamar postu izan dira, eta horrek ematen du zerbait txukuna egiteko beste", adierazi du Marga Garmendia udal ordezkariak. Zera ere gaineratu du: "Salmenta aldetik ibilbide handiagoa behar da. Baina baserritarren-gandik jasotako pertzepzioa da jendea apurka-apurka badabilela bidea ikasten". Orain, balorazioa egin eta azokekin segitu edo ez ikusi beharko dute, baina, hasiera baten, segitu egingo dutela dirudi.

AURTEN BERRITASUNAK

Aurreratu dute, baita ere, berritasunak antolatzen dabiltzala, "zapatuari begira" bereziki.

Eta martitzenari berari dago-kionez ere iragarri dituzte berritasun gehiago; kasu horretan, herri kirolerkin lotutakoak: "Ezohiko kirolariak azalerazteko asmoarekin eta, bide batez, dirua aurrezteko asmoarekin, kirolari gazteak ekarriko ditugu; adibidez, trontzalariak, motozerrekin figura-egileak, lasto lasterketa eta beste izango dira".

TXERRIA, ENKARGATUTA

Bestalde, jakinarazi dute, esaterako, ekitaldi "klasikoak" ere izango direla, txerri-dantza, adibidez: "Eta herri bazkaria ere bai, kiroldegian. Bestalde, gaudu Laubide plazan eta artisauak Jokin Zaitegin ipiniko dira".

Santamasetako protagonistari dagokionez, berriz, hori ere enkargatuta dute: "Larrea (Araba) baserrian dago txerria, gizentzen. Oraindik ez dugu bataiatu. Hainbat proposamen daude-eta...".

Bestalde, Udala ere badabil bere lana egiten; hasita daude, adibidez, baserritarren baiezkoak jasotzen, eta iazko kopuru bera etorriko dela uste dute.

Mertxe Ruiz de Alegria &gt; Loteria saltzailea

## "Inoiz jokatu ez dutenek ere erosi dute aurtengo Gabonetako Loteria"

OIHANA ELORTZA &gt; ARRASATE

1948. urtean zabaldu zuten erdiko kalean dagoen loteria administrazioa Mertxe Ruiz de Alegriaren izebek. Haien ostean berak hartu zuen negozioaren ardura eta orain alabak hartu dio erreleboa. Krisia egon arren, jendeak ez duela dezimo barik gelditu gura dio azken urteetako nagusiak.

Hilabete baino gutxiago gelditzen da Gabonetako Loteriaren zozketarako. Zer moduz doa salmenta?

Oso ondo. Kanpotik ere eskaera asko jaso ditugu, Internet bidez, eta hemen ere, herrian, dezimo asko saldu ditugu jadanik.

Nabaritu duzue krisia?

Bai, baina ez beste urte batzuetan baino gutxiago saldu dugulako. Esan gura dut jende asko etorri dela dezimoa erostera krisitik aterako duen esperantzarekin. Beste batzuek, ordea, inoiz jokatu ez dutenak, zortea izango duten ikustea erabaki dute, egoera honetatik aterako direlakoan.

Eta ze zenbaki da gehienek eskatu dutena?

7an, Euskal Herriko zenbakia diotena, edo 9an bukatzen direnak, betiko moduan.

Bikoitia ala bakoitia izan behar du azken zenbakiak?

Horrek ez du garrantzi handirik. Garrantzia handiagoa ematen diote zero asko ez izateari eta ezta zenbaki baxua izateari ere. 22an bukatzen direnak ere oso gustukoak dira.

Etorri zaizue inor zenbaki konkretu baten bila?

Bai, Bartzelonatik deitu zigun emakume batek 57.710 zenbakia eskatzen, haren seme-alaben jaiotze daten konbinazioa delako. Zenbaki hori urte guztian izaten dugula esan nion, eta Gabonetako Loteriako dezimoak ez ezik, urte guztian bidaltzeko eskatu zigun.

Dezimoak emango dituzten makinak jarriko dituztela ere entzun da. Baduzue horren berri?

Prentsan irakurritakoa bakarrik. Frantzia eta Alemanian, esaterako, dezimo gutxiago saldu dituzte, makinak edonon jarri dituzten arren.

Alabak hartu dizu erreleboa. Haren lehen zozketa potoloa izango da Gabonetakoa.

Bai. Aspaldi ez dugu, gainera, sari potolorik eman, eta aurtengo tokatzen da hori gertatzea.



Mertxe Ruiz de Alegria eta Elisa Lezeta ama-alabak.

O.E.



## oharrak

JENDARTEA

&gt; Elkarretaratzea

Herritar talde batek dei egin die arrasatearrei, gaur, egubakoitza, hileko azken egubakoitzeko kale agerraldian parte har dezaten. 19:30ean da hitzordua.

ABAROA

&gt; Omenaldia eta Santa Luzia

Abaroa elkarteak iragarri du datorren abenduaren 3an 90 urte-tik gorakoei omenaldia egin behar

diotela (12:00etan, egoitzako bosgarren aretoan); baina horrekin batera, abisatu dute omenaldi hori izango dela elkarteko bazkide bakarrik direnendako, eta haiei gutun bitartez jakinaraziko dietela horren berri.

Bestalde, iragarri dute, baita ere, abenduaren 11n Santa Luzia egunaren ospakizuna egingo dutela, elkarteko bazkideei luntxa emanda. Parte hartu gura duenak abenduaren 4a baino lehen joan

behar du gonbita jasotzera (bulego orduetan), bazkide txartela behar bezala eguneratuta duela.

TXATXILIPURDI

&gt; Okendon eta beste

Datorren astean segituko dute Txatxilipurdi elkartekoek erabilitako jostailuak batzen. Astelehenean Okendoko ludotekan izango dira, martitzenean Arimazubi plazan eta eguaztenean, Santa Marinako parkean.

OSPAKIZUNA > SAN ANDRES EGUNA

## Egitarau erakargarria auzoa euskalduntzeko jaian

Saiheski-jana, umeen txokoa eta kantu poteoa egingo dute bihar Gudarien plazan

J.B. > ARRASATE

Aspaldi ekin zion AEDk herriko auzo ezberdinak euskalduntzeari. Eta helburu horretan, ahalegin berezia egin du San Andres auzoan. Horren adibide garbia da biharko antolatutako Gudariak auzoaren historia izan zuen hizpide. Ugaldek auzoaren gaineko hamaika bitxikeria kontatu zituen, gerturatutako en gozamenerako.

ki-jana izango da Giokelaren eskutik (11:00), umeendako txokoa jarriko du Txatxilipurdik (11:30-13:30) eta, azkenik, Portaloik kantu taldeak kantu poteoa gidatuko du auzoko tabernetatik. Ekintza guztiak Gudarien plazan egingo dituzte.

### AUZOAREN HISTORIA, HIZPIDE

Gainera, San Andres egunaren barruan hitzaldia antolatu zuen AEDk martitzenerako. Hitzaldian, Anabel Ugalde historialariak auzoaren historia izan zuen hizpide. Ugaldek auzoaren gaineko hamaika bitxikeria kontatu zituen, gerturatutako en gozamenerako.

> GAZTE TXOKOAK

## Erguingo gazte txokoak jai berezia egingo du bihar, "auzoari bizitasuna emateko" helburuarekin

Gazte txokoak aurrera segitzen du Arrasateko gaztetxoei aisialdirako aukera ezberdinak eskaini eta, bide batez, herriko auzoari bizitasuna emateko ekimenak prestatzen. Bihar Erguingo gazte txokoren txanda izango da, Txatxilipurdikoek jai berezia antolatu baitute. 10:30ean auzo-gosaria egingo dute, eta eguraldi ona egiten badu, egoitza kanpoan jango dituzte txokolate beroa eta bizkotxoak.

Behar den moduan gosalduta osten, hainbat probaz osatutako zirkuia osatu beharko dute gaztetxoek. Eta bazkaltzera joan aurretik, sari banaketa egingo dute.

JENDARTEA > GAZTERIA

## Herriko gazteriaren analisisia egin dute, Topaketetarako

Gazte batzuek gazteriaren ezaugarriak eta haien kausak aztertuko dituzte, hobera egiteko asmoz

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Maritxu Kajoi ostetik martitzenero elkartu dira zenbait gazte, egungo gazte arrasatearra nolako den zehazteko. Betiere, hobera egiteko asmoz -eta autokritika egiteko inongo arazo barik-; honela definitu dute, oro har, gazte arrasatearra: "Berekoa, konformista, eroso, espainola, irudimenik gabekoa eta drogazalea". Uste dutenez, gazte arrasatearrak

"amerikar eredua oso barneratuta" dauka eta berekoa eta indibidualista da. Espainolaren nagusitasunari dagokionez, honakoa diote: "Ikastolan euskaraz egiteko behartzen gaituzte eta horrek espainola hizkuntza errebelde moduan ikustera bultzatzen gaitu". Hori horrela, gazte arrasatearrak ez du euskaraz egiten.

Hala ere, gazte arrasatearrak baditu alde onak: "Arrasateko

gazteria batuta dago eta esfortzu handirik eskatzen ez duten ekin-tzetarako beti dago gertu". Ondorioak ez dituzte zehaztu; Gabonetan aurkeztuko dituzte.

### ANALISIA, GAZTE TOPAKETETARA

Gazte Topaketak egingo dira aste bukaeran Zestoan. Martitzeneko atxiloketen harira, antolatzaileek topaketekin aurrera egingo dutela berretsi dute. Horrekin lotuta, Arrasateko zenbait gaztek Gazte Topaketetara joateko deia egin zuten. Arrasateko gazteriaren analisisia eroango dute Zestoara, ekarpen moduan.

Autobusa gaur irtengo da Garibaitik (19:00), Mondragon Unibertsitateko ikasle kontseiluak antolatu du bailara osorako. Interesatuak Irati tabernan eman behar du izena.



Arrasateko gazte talde batek Gazte Topaketetan parte hartzeko deialdia egin die gazte arrasatearrei.

J.B.

## ORDUTEGI BERRIA

Astehenetik ostiralera  
(ordutegi jarraitua)  
**9:00etik 20:30era**  
Larunbatetan  
**10:30etik 13:30era**  
**16:30etik 20:30era**

# beitia

living & home

>> Etxerako guztia

# Sukalde alemanak

## 3.290 eurotik aurrera

Paraguay kalea, 34 (Boulevard ondoan) | Tel.: 945 121 399 | 945 254 588 | Faxe: 945 206 022 | [www.grupobeitia.com](http://www.grupobeitia.com)

SASKIBALOIA &gt; GAZTEAK

# Euskal Ligara igotzeko lehia izango da gazte mailako MU

Joan den astean Atletiko San Sebastian mendean hartu zuten eta Grosek galdu egin zuen, eta horrek finalerdietara gerturatu du Arrasateko taldea

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

MUren gazte mailako taldeak Euskal Ligara igotzeko finalerdia jokatuko ditu. Oraindik bi partidua jokatu behar dituzte, baina, joan den asteko emaitzei esker, Arrasatekoek ziurtatu egin dute txanpa erabakigarri-rako txartela. Geratzen diren bi partidua, baina, garrantzitsuak dira; taldeko arduradun Jose Mari Baltzategik azaldu duenez, bietako bat irabaziz gero hirugarren sailkatuko dira: "Eta horrek esan gura du Euskal Ligara zuzenean sailkatuko ginatkeela; izan ere, Easok goiko kategorian badu taldea; horrenbestez, gure kategorian dagoen Easo ezin da igo".

Bi norgehiagoka erabakigarri horien artean, Baltzategik badaiki oraingo asteburuan zaila izan-



EHU Araba taldearen kontrako partiduan, Isasa kontrarioa atzean utzita.

JOSETXO ARANTZABAL

go dela partidua irabaztea: "Zapatuan Donostian jokatu dugu, eta ahaleginduko gara irabazten, baina zaila izango da, kontrarioak talde ona duelako. Asteburuan, gure taldeko pare bat jokalarik -Barbero eta Barrena- MUko talde nagusiarekin jokatuko dute Deustuan, eta hori taldeak igarri egingo du. Baina hurrengo astean Tolosaren bisi-

ta izango dugu etxean, eta partidu hori irabaztea ezinbestekoa da hirugarren postu hori lortzeko. Aspaldian Tolosa motel samar dabil, eta horretaz baliatuko gara".

**NAGUSIAK, DEUSTUAN**

Bihar, zapatua, Javi Zurbano-ren mutilek Bilbo aldera egingo dute bidaia ATE Asesores La

Salle taldearen kontra jokatzera eta, neurri handian, joan den astean epaileekin izandako *tra-go txarra* ahaztera (82-89).

Arrasateko taldearekin batera, deustuarrak jaitsierako postuak ekiditeko lehia ibiliko dira aurten; kontrario zuzenak dira, horrenbestez. Joan den astean 66-71 irabazi zioten ligako talde makalena den Lagunak taldeari.

**Zaldibar****EMAITZAK**

Betrayer-Cipris	4-4
Ekaitz-Lasagabaster	1-2
Fidel & Disc.-Dribling	3-7
Katenatxio-Dublin	4-6
Steaua del Grifo-Aldapa	4-3
Abokajarro-AT Celaya	5-2
Iriztu-McAwenDauen	4-0
Iluntz-Komando Alpargat	4-4

**PARTIDUAK**

Azaroak 28, zapatua	EPAILEAK
11:30 Abokajarro-Komando Alp.	Betrayer
12:30 Betrayer-Lasagabaster	Abokajarro
16:00 Cipris-Dribling	Ekaitz
17:00 Ekaitz-Dublin	Cipris
Azaroak 29, domeka	EPAILEAK
10:30 Fidel & Disc-Aldapa	Katenatxio
11:30 Katenatxio-AT Celaya	Fidel & Disc.
12:30 Steaua del Gri.-McAwen.	AT Celaya

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Dribling	15	5
2. Dublin	15	5
3. Betrayer	13	5
4. Iriztu	10	5
5. Lasagabaster	10	5
6. Abokajarro	9	5
7. Cipris	8	5
8. Fidel & Disc	6	5
9. Ekaitz	6	5
10. AT Celaya	5	5
11. McAwenDauen	5	5
12. Iluntz	4	5
13. Komando Alpargat	4	5
14. Aldapa	1	5
15. Katenatxio	0	5
16. Steaua del grifo	0	5

**Norgehiagoka bat atzeratu dute**

Oraingo asteburuan jokatu behar zuten Iluntzek eta Iriztuk, baina Iluntzek partidua atzeratzea eskatu du. Hala, talde horrek agortu du txapelketan zehar partidua atzeratzeko egin daitekeen eskaera kopurua.

Norgehiagoka hori ligako hurrengo jardunaldian jokatu dute, goizeko lehenengo orduan (09:30), eta gainera, Iriztukoek erabakiko dute zapatuan ala domekan jokatu nahi duten.

**Ordu aldaketa**

Norgehiagoka bertan behera uztea erabaki dutenez, Abokajarrok eta Komando Alpargatek 11:30ean jokatu dute.

&gt; ERRUGBIA

**Senior gizonezkoek Gernikaren bisita izango dute bihar, 16:00etan**

Durangoren zelaian 18-15 galdu ostean, bihar, zapatua, Arrasate-Kanpanzar taldeak aurrealdeko postuetan dabilen Gernikaren bisita izango du (16:00). Gernikarrek 24 puntu batu dituzte eta etxekoek, 7 puntu. Hala, alde hori txikitzen ahaleginduko dira Isasiren mutilak.

Emakumezkoek, berriz, Iruñean jokatu dute bihar (16:30), gazteek Ordizian (16:00) eta infantilek Donostian domekan (10:30).

&gt; ERRUGBIA

**Juan Luis Aranaren omenezko errugbi partidua bihar**

Bihar, zapatua, arratsaldean hitzordu berezia izango da Mojategin: Juan Luis Arana Arrasateko jokalarik beterranoaren omenezko lagunarteko torneoak jokatuko dute, 17:30ean. Torneo horretan parte hartuko dute Bilboko Unigans taldeak, Gaztedik eta, noski, Arrasatek.

Bestalde, LEKek antolatuta multikirol saioa egingo dute bihar Mojategin (10:00). 140 gazte zazpiko errugbian ibiliko dira.

&gt; ATLETISMOA

**Parte-hartze libreko bigarren atletismo probak gaur Mojategin**

Arrasate-Kanpanzar atletismo taldeak antolatuta parte-hartze libreko bigarren atletismo probak egingo dituzte gaur, egubakoitza, Mojategin (18:00).

Benjamin (2000 eta 2001ean jaiotakoak), alebin (1998an eta 1999an jaiotakoak), infantil (1996an eta 1997an jaiotakoak) eta kadete (1995) mailakoak batu dira, eta bertan parte hartzeko izenematea momentuan bertan egingo dute.

&gt; PILOTA

**Arrasateko seniorrek 22-20 galdu zuten Astigarragaren kontra**

Joan den egubakoitzean jokatu zuten Arrasateko Urabarrenek eta Agirrek mailari eusteko norgehiagoka erabakigarria. Astigarragan jasotako porrotari buelta ematea zen erronka, baina ez zuten helburua bete.

Arrasatekoen hasiera txarrak partidua baldintzatu zuen. Hala ere, etxekoak gauza izan ziren aurretik jartzeko (18-17). Ordurako onenak emanda, Astigarragak egin zuen azken bultzada (22-20).

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE





Rakel Murgiondo. GOIENKARIA

**Rakel Murgiondo**  
> Goikobaluko kidea

## "Erantzun ona jaso dugu urtemugako ospakizun ekitaldietan"

N.O > ARRASATE

Rakel Murgiondo Goikobalu Gazte abesbatzako zuzendariarekin hitz egin dugu. Goikobalu abesbatzaren urtemuga ospatzeko egindako ekitaldiez galdetu diogu. Gainera, etorkizunean dituzten asmoak ere azaldu dizkigu.

### Zer-nolako erantzuna jaso duzue ekitaldietan?

Bost kontzertu egin ditugu eta erantzun ona jaso dugu. Batez ere azkenekoan, umeak etorri zirelako: Goikobalu Txiki, Goiko Tailerrak eta Gazteak.

### Aurrera begira zein asmo duzue?

Gabonetan nagusiok kontzertua dugu Bedoñan. Goikobalu Gazte urtero egoten den Gabon Kantu Txapelketara doa abenduaren 26an. Datorren urteari begira, iaz hasitako Santiago bidea egiten jarraituko dugu. Gainera, segurua ez den arren, diskoa grabatzeko asmoa dugu.

### Zenbat lagunek osatzen duzue abesbatza?

Lau taldetan dago banatua abesbatza: tailerlean 25 inguru dira; Goikobalu Txiki 12-13; Goikobalu Gazte 38; eta nagusien taldean 40-45 elkartzen gara. Beraz, 115 inguru gara abesbatzan.

MUSIKA > 17. AKORDEOI LEHIAKETA

# Akordeoi lehiaketa hurrengo astean Amaian

Abenduaren 4tik 8ra egingo dira Arrasateko akordeoi lehiaketak Hauspoz elkartearen eskutik

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE

Urtero bezala, Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak Arrasateko akordeoi lehiaketak antolatu ditu. Abenduaren 4tik 8ra izango dira XVII. Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa, 30. Gipuzkoako lehiaketa eta 22. Gipuzkoako akordeoi jaialdia.

Ibilbide luzeko jaialdia da; izan ere, 1975. urtean eman zioten hasiera. Akordeoi jaialdia edozein maila eta adinetako akordeoilariari zuzenduta dago. Edozelan ere, lehiaketa bakoitzak bere oinarriak ditu.

Hain zuzen ere, XVII. Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketa kontzertugile izan nahi duten akordeoilariari zuzenduta dago. Eta aurten, 11 herrialdeetatik etorritako 22 parte-hartzaile egongo dira.

30. Gipuzkoako akordeoi lehiaketari dagokionez, Espai-



Nazioarteko XVI. Akordeoi Lehiaketako irabazleak.

GOIENKARIA

niako eta Euskal Herriko akordeoi-joleei dago zuzenduta eta adinaren arabera hiru maila bereiziko dira: infantilak, juniorrak eta seniorrak, hain zuzen ere.

22. Gipuzkoako akordeoi jaialdiak, ordea, ez du aurreko

biek duten izaera lehiakorrik. Izan ere, hezkuntza eta promozio ditu helburu. Bakarlariek nahiz ganbera musika taldeek parte har dezakete.

Epaimahaiari dagokionez, hainbat herrialdeetako musikariek osatuko dute.

ZARZUELA > SARRERAK

## Zarzelaren azken bi emanaldiak asteburuan

N.O > ARRASATE

Izaskun Murgia elkarteak *La corte de Faraón* zarzelaren estreinaldiak harrera bikaina jaso zuen. Jendez lepo egon ziren aurreko asteburuko bi saioak. Zapatuan azken emanaldia egingo dute Amaia antzokian.

Asteburu honetan ere bi saio egongo dira: lehenengoa gaur izango da, arratsaldeko zortzietan; eta bigarren emanaldia bihar izango da arratsal-

deko zazpi eta erdietan.

Sarrerak hamazazpi eurotan salgai daude. Kutzako webgunean eta kutzazainetan eskura daitezke. Baita Amaia Antzokiko leihatilan ere, beste ekitalditarako zabalik dagoenean. Hala ere, gaurko ikuskizunerako sarrerak, jada agortuak daude.

Vicente Lleok idatzitako obra da eta 1910. urtean estreinatu zen lehenengoz *La corte de Faraón*.

> ERAKUSKETA

## 'Naturaren argazkilariak' erakusketa Kulturaten

*Naturaren argazkilariak* lehiaketan jasotako lanen aukeraketa jarri dute ikusgai Kulturateko aretoan. Iaz 32.350 erretratu jaso zituzten, 82 herrialde ezberdinetatik. Arrasaten 83 argazki jarri dituzte ikusgai. Naturaren edertasuna jaso eta erakustea da lehiaketaren helburua. 1964. urtean jarri zuten abian.

Kulturateko erakusketa abenduaren 6ra arte egongo da ikusgai. Martitzenetik domekara bitartean izango da zabalik Kulturateko erakusketa aretoan, 17:30etik 20:30era.

bere ustez



Nekane San Miguel

## Berriro ere bueltaka

Ondo hezitakoarena omen esker onekoa, eta aspaldiko partez, aldizkari honetako arduradunen aldetik, eta aurrerantzean gogoeta batzuk azaltzeko aukera eman izanari, ba... horixe... eskerrak emanaz hasi behar.

Horrez gain, bada aro berri honi hasiera ematera-koan, saihestu eziniko beste kontu bat: kasualitateak ekarri du azaroaren 25a duen astean suertatu izana buelta hau, eta *Asteleheneko Goienkaria*-n galdetegitxo bati eran-

## "Tratu txarrei muinetik aurre egiteko bide eraginkorra heziketa da"

tzun izan arren, ezin ahaztuerena egin, "gure aurkako tratu-txarren" aurrean ezer berririk esatea zaila izanik ere: Muinetik aurre egiteko bide eraginkorra heziketa dela aipatu arren, ez zaigu buruan sartzen heziketa ez dela eskolan ikasgai bat ematea, eta kosta egiten zaigu izaera edo burua, irudiz, hitzez, keinuz... eta abar luze batez osatzen dela, eta guzti hori hankaz gora botatzea oso nekeza dela; gure harremanak kolokan jar daitezkeela; baita gure kokapena, lanean, gizartean, lagun-artean... Gehiegi!! Bitartean, tratu txar baten berri dugun bakoitzean: "Ez naixonan pentzetan" esango dugu; eta erailketa berri baten notizia datorrenean, amorrua eta pena erakutsi. Etsipena ere bai?

arbolapeta  
**&**  
arrasate  
beinke

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK  
**AGR**  
García Ripa  
ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA  
Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

UGARAN  
Jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**IAMAIA** ANTZOKIA  
ARRASATE  
Gaur Azaroak 27  
00:00etatik aurrera  
Jesus Angel  
Arrieta eta Nano

INGURUMENA &gt; BABESA

# Udalak Gerriko Berdea egin nahi du

Goiko trenbidean eta San Martzial eremuan osatu nahi dute; 2010ean hasiko dira proiektua idazten

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA


Udal Gobernu Taldeak Gerriko Berdea osatu nahi du herrian. Gerriko horrek paisaia eta ekologia aldetik balio handiak dituen herri inguruko espazioak hartuko ditu, eta baita kirol aisialdirako erabiltzeko egokiak diren lekuak ere. Gerrikoa egiteko proiektua Naiara Corcuera Udaleko Ingurumen teknikariak idatziko du. 2010ean barrena egingo du hori eta 2011n gauzatzen hasia da asmoa.

2006an abiatutako asmoa da. Urte hartan proiektuaren bidegarritasuna aztertu zuen Naturgintza Fundazioak. Egindako txostenaren arabera, Bergarak aukera apartak ditu proiektu hori aurrera eramateko, eta bi gune aurreikusten zituen Gerriko Berdearen ezarpenerako proposak: batetik, San Martzial; bestetik, goiko trenbidea. Bestalde, txostenak dio proiektuak auke-

ra asko ematen dituela paisaiaren kalitatea hobetzeko eta natura ingurune interesgarrien konezioa lortzeko. Hala, Corcuera idatziko duen proiektua bi guneotan oinarrituko da.

## EREMU OSO ERABILIAK

Goiko trenbidea zein San Martzial herritarrek asko erabiltzen dituzten lekuak dira paseatzeko eta aisialdirako. Naiara Corcuera Ingurumen teknikariak azaldu duenez, "oso leku ezagunak dira eta ohiko erabilera dute". Eta Corcuera honakoa gehitu du: "Ibiltoki horietan kalitate handiko lur-eremuak daude, paisaia eta basoaren formazio aldetik, eta baita kalitate eskasagoko lurrak ere. Baina guztiek osatzen dute hirigunetik antzematen den paisaia; hortaz, lursail horien kudeaketa iraunkorrek bertoko paisaiaren kalitatea bermatuko du eta ekosistemen iraupenean lagundu".



Surratik egindako argazkian, herria inguratzen duen goiko trenbide zaharra ikusten da.

ENEKO AZKARATE

## EGINGO DIRENAK

Hain justu ere, proiektuarekin lau helburu lortu nahi dituzte: alde batetik, "balio handiko lursailak babestea, eta modu horretan haiekiko erasoak ekiditea", Corcuera esanetan. Balio handiko lur-eremu horietan -harizti helduak daude, batez ere- egingo den kudeaketa kontserbaziora bideratuko da batez ere. Baina "kontserbaziorako kudeaketa horrek esku-hartze batzuk ere

ekarriko ditu", gehitu du Corcuera, "basoaren konplexutasuna hobetzeko esku-hartzeak".

Bestalde, babestu nahi dira baita ere "paisaia eta kokapenagatik balio handia duten lur-eremuak". Horietan, balio ekologiko eskasa duten lursailak daude, landare inbaditzaileak daudelako, esaterako. Hala, eremu horietan "errestaurazio lanak" egingo dituztela azpimarratu du Ingurumen teknikariak: "Bertako eko-

sistema berreskuratzeko lanak egingo ditugu; bertoko faunarendako mesedegarri izango diren egiturak sortzea, esaterako, edo, dinamika naturala eredu hartuta, intereseko habitata berreskuratzeko", azaldu du.

## HERRITARREN AISIALDIA

Babes lanarekin batera, ingurumenaren interpretazioa bultzatuko dela ere gehitu du Corcuera teknikariak: "Puntu garrantzitsuetan informazio panelak jarriko dira, bisitariak ingurunari erreparatzeko". Landuko diren gaiak dira: intereseko habitatak, bertako fauna eta flora, espezieak...

Hori guztia borobiltzeko, herritarren aisialdia bultzatzeko azpiegiturak ere egokituko dira. Oraindik zehaztu gabe dauden arren, besteak beste jarriko dituzte aulkiak jarriko dituzte, bideak txukundu...

## ZER DA GERRIKO BERDEA?

### Aisialdia bai, baina batez ere ingurumena

Gerriko Berdea da balio paisajistiko eta ekologikoak dauzkan herri inguruko espazio bat, aisialdirako aukerak ere eskaintzen dituena. Natura eta aisialdia uztartzen dituen ekimena da.

Baina, Naiara Corcuera Udaleko Ingurumen teknikariak azpimarratu duen moduan, "batez ere da herrian dauden habitaten kontserbazioa, errestituzioa eta ingurumen hezkuntza uztartzeko balioko duen eremua".



GOIENKARIA

## Datorren urtean ere ospatuko dute 38koek

Aurreko domekan, hilaren 22an, bazkari eder batekin ospatu zuten euren eguna 1938an jaiotako herritarrek. 30 lagun inguru batu ziren, eta, esan dutenez, ondo baino hobeto pasa zuten ospakizun eguna, giro alai eta ederrean eta berriketa askorekin.

Pertxa elkarte gastronomikoan egin zuten bazkaria gizon-emakumeok; goiko irudia ere han aterata dago. Esan dutenez, hain ondo pasa zuten, datorren urtean ere batzeko hitza eman zuten.

## > AISIALDIA

### Domekan egingo dute Osintxun trukerako merkatu txikia, 11:00-14:00 ordutegian

Pilotalekuan egingo dute eta ahalik eta jende gehien batu nahi dute bultzatzaileek, Osintxuko auzotar taldeak. Etxean, denboran gordeta, ditugun gauzei erabilera ematea da merkatu txiki horren helburua eta elkartrukea bultzatzea, berriz, helburua. Interesa duten guztiek har dezakete trukerako merkatu txikian.

## > ZERBITZUAK

### Igeriketa txapelketa dela-eta erabiltzaileek ezingo dute igerilekua erabili bihar arratsaldean

Bihar, zapatua, hainbat ekitaldi egongo dira Agorrosinen, eta, ondorioz, erabiltzaileek ezingo dute igerilekua erabili. Zapatu goizean eskola kirola egongo da eta igerilekuko lau kale erabiliko dituzte. Arratsaldean Gipuzkoako igeriketa txapelketa dago eta erabiltzaileek itxita izango dute igerilekurako sarrera.

## > GAZTEAK

### Gazte Informazio bulegoak Hego Euskal Herrian bidaiatzeko proposamen saila egin du webgunean

Hego Euskal Herrian barrena turismoa egiteko proposamenekin betetako atala sortu berri dute [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean. Atal berri horretan aurki daitezke Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa sakonago ezagutzeko proposamenak. Hain zuzen, bailarakako sarrerak daude eta baita turismo bulegoetarakoak ere.

Yolanda Larrañaga > Gizaker aholkularitza enpresako kidea

# "Beste inkesta bat egingo dugu, telefono bidezkoa, herriko hainbat gai ebaluatzeko"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Herritarren parte-hartze prozesua eta Udalaren zerbitzua eta jarduna baloratzeko programa jarriko dute abian, herrian. Kudeatuz programaren barruan dagoen egitasmoa da eta lehen urratsak egin dituzte: Gizaker aholkularitza enpresak inkestak banatu ditu etxeetan; jakin nahi dute herritarrek ze iritzi duten Udalak ematen dituen zerbitzuen gainean.

**Herritarrei inkesta batzuk helarazi dizkiezue. Ez da ekin-tza isolatua, Kudeatuz programaren barruan dago. Zer da Kudeatuz, nork bultzatzen du eta zein da helburua?**

Kudeatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa bat da eta helburua da administrazioen eta herritarren arteko harremana sustatzea eta hobetzea. Kasu hone-tan, Udalarena.

**Eta horretarako herritarren iritzia jaso nahi duzue, inkestak bidez.**

Bi modutan egingo ditugu inkestak: batetik, norberak bete-tzeko inkestak banatuko ditugu eta familia guztietara bidali nahi dira horiek; bestea da guk geuk telefonoz deituta egingo duguna, gai desberdinak ebaluatuz.

**Etxeetara bidaliko duzuen hori dagoeneko banatu duzue.**

Bidalketak egiten dituen enpresa bat kontratatu da lan hori egiteko, modu horretan ahalik eta etxe gehienetara iritsi ahal izate-



Yolanda Larrañaga.

GOIENKARIA

**"Herriko gaien inkestak erantzuten dituztenak %8-10 artean daude"**

**"Bigarren galdeketa egingo dugu sexu eta adin irizpideen arabera"**

ko. Hala ere, beti geratuko dira bakarren batzuk inkesta hau jasotzen ez dutenak, ate bikoitzak dire-lako, iristeko zailtasun arkitekto-nikoak daudelako... Baina gure borondatea, noski, ahalik eta etxe gehienetara iristea da. Hala, nahi duen guztiak erantzuteko aukera izango du eta helburua da jakitea herritarrek Udalak ematen dituen zerbitzuekiko duten iritzia.

Norberak bete beharreko inkestetan, normalean, % 2-4 bitartean izan ohi dira erantzuten dutenak. Hala ere, Kudeatuz programan dugun esperientziak erakutsi digu erantzuten dutenak %8-10 artean izan daitezke-ela, herriko gaiek duten interes handiarengatik herritarren artean.

**Inkestak jaso eta gero zein da hurrengo urratsa?**

Inkesta jaso ondoren guk estatistikoki prozesatu eta beharrez-koa den txostena egingo dugu eta txosten hori udal arduradunei emango diegu.

**Bigarren galdeketa bat ere egingo duzue.**

Bai, baina telefono bidezko-ak izango dira, herritarrek herri-ko gai desberdinei buruz duten iritzia jasotzeko, eta hori da bene-tan soziologia mailan indarra duen lana, herrian dauden sexu eta adin irizpideen arabera egingo dugulako.

Norberak bete beharreko inkesta bezala, txostena egingo dugu eta udal arduradunei aur-keztu.

**Egingo dira publiko emaitzak? Eta zein erabilera izango dute?**

Publiko egitearena Udaleko arduradun politiko eta teknika-rien esku dagoen zerbait da.

Erabilierari dagokionez, zer-bitzuen hobekuntzarako zuzen-duta egongo dira; horixe da hel-burua.

## oharrak

EUSKARA

**> Euskal Curriculumaren gaineko batzarra deitu dute**

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak deitu du, Euskal Curricu-lumaren harira, eta izango da abenduaren 2an, 19:00etan, kulta-ura etxean.

UDALA

**> Goiko trenbidean entseatzeko izena emateko epea zabalik dago**

Abenduaren 23ra arte dago zabalik eta izena eman dezakete entseatzeko lokalik ez duten herri-ko taldeek. Eskariak aurkeztu behar dira erregistro nagusian.

UDALA

**> Autolaguntza taldea osatu nahi dute ezinduen zaintzailendako**

Mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten pertsonen-dako autolaguntza taldea sortu

nahi du Udalak. Halako gaixoak dituztenendako elkargune izatea da asmoa. Autolaguntza taldean parte hartzeko interesa dutenek Ongizate Zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 65 zenbakira deitu.

LUNTXA

**> Erretiratuentzako luntxa eman-god du Lasai Tokik**

Abenduaren 8an izango da, 12:00-14:00 orduetartean, eta, urte-

ro bezala, herriko erretiratu guz-tiak daude gonbidatuta.

KINTADA

**> 1947an jaiotakoek afarria egingo dute Tartufon abenduaren 5ean**

21:00etan egingo dute. Izene-matea da hilaren 30a baino lehen, Fraiskozuriko Euskadiko Kutxan: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Autobusa egongo da; gorakoa, 20:30ean.

## bere ustez



Iñigo Garitano

## Jesukristoren adina

**E**z dira alferrik pasatu 33 urte. 1976an Pol Pol elkarteak lokal berriko atek ireki zituen. Herrigin-tzaren lorpena izan zen, eta sustatzaileen artean Serafin Esnaola aipatu nahi dut, Mi-guel Angel Elkoroberezibar lagunak ondo merezitako ida-tzi berri duen azken liburuan modu bikainean jasotzen du-en moduan. Zorionak, Mitxel!

2009. urte bukaeran badi-rudi Pol Pol-ek behin betikoz itxiko dituela Komenio kale-ko lokalak. Tentazioa izan dut horren erantzule ere hain demonizatua dagoen Munilla apezpiku berria egiten, baina

**"Beharrak, mendizaletasuna eta elkartasuna ulertzeko moduak aldatu egin dira"**

ez, hori behintzat ez da bere errua. Ez dut arazoa sakone-an ezagutzen eta ez naiz iritzi garbi bat botatzera ausartzen. Ez dakit egoera horretara ez iristeko egin zitekeen guztia egin den, agian bai, baina tamalgarria iruditzen zait.

Egungo gizartearen dina-mika ez da 1976koa, beharrak, mendizaletasuna eta elkarta-suna ulertzeko moduak ere aldatu egin dira, eta agian elkarteko gestio hutsa egiteko nahikoa da mahai bat, ordena-gailua eta telefono linea. Bai-na hori baino gehiago izatea nahiko nuke. En fin, Jesukris-toren adina hartuko duten lokaletan bizitako guztia ezin ahaztu! Ohartzen naiz tonu nahiko klerikala atera zaidala, agian egun hauetan Don Serafinen oroitzapena berres-kuratzeak zerikusia izango du.

trinmer  
telecomunicaciones

tdt  
televisión digital  
terrestre

**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**

LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Erogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**BERGARA MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza Berogintza Aire egokitua Konponketa Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

&gt; ESKUBALOIA

**Soraluce BKE taldeak liderra hartuko du Labegarietan**

Josetxo Muniategiren mutilek lider dagoen Egiaren bisita izango dute asteburuan Labegarietan. Jokaturako zortzi partiduetatik, Egiakok bost irabazi dituzte, bi berdindu eta bakarra galdu, eta galdutako partiduen zenbatekoa aldatzea da mahoneroen helburua. Ez da erraza izango, joan den astean sasoiak daudela erakutsi zuten-eta Irunen kontra (37-23)

Etxekoei dagokienez, joan den astean Elgoibarren kanxan joko erasokorraren alde egindako apustuak ez zuen saririk izan (34-33).

&gt; KARATEA

**Hamabost lagun dabilta entrenatzaile izateko ikasten**

Euskadiko Karate Federazioa lehen mailako entrenatzaile izateko ikastaroak ematen dabil Agorrosin Ekintza Gunean.

Euskadi osotik etortzen dira hamabost lagun egubakoitz eta zapatuetan eskolak hartzera, eta urtea amaitu aurretik amaituko dute prestakuntza.

IGERIKETA &gt; ERRENDIMENDUKO NEGUKO TXAPELKETA

**Bergarako taldeko sei igerilari lehiatuko dira bihar Agorrosinen**

Gipuzkoako neguko txapelketako bigarren jardunaldia egingo dute, 16:00etan hasita; Oñatiko igerilariak ere izango dira

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Errendimenduko neguko txapelketako lehenengo jardunaldia Irunen jokatu eta gero, bihar egingo dute Agorrosinen (16:00) bigarren jardunaldia. Kadete mailatik senior mailara bitarteko Gipuzkoako igerilariak lehiatuko dira, eta, guztira, modalitate askotariko 26 lasterketa egingo dituzte.

Debagoienarren artean Bergarako eta Aloña Mendiko igeriketa taldeetako ordezkariak izango dira. Hala, Bergarak sei ordezkari izango ditu: Nielka Ibaruren, Urki Ibaruren, Mikel Labaka, Ander Franco, Xabier Labaka eta Jon Muxika.

DENBORALDI HASIERA

Bergarako taldeko ordezkari Maialen Alkortaren esanetan,



Igerilariak, lasterketa hasteko gertu.

GOIENKARIA

igerilariak oraindik denboraldi hasieran daude, orain arte lasterketa bakarra egin dute-eta: "Prestaketa fasean dabilta oraindik, eta errendimenduko neguko txapelketak hiru jardunaldi izango ditu. Ondoren etorriko da Gipuzkoako txapelketa, otsailean, eta proba hori Bergaran antolatuko dugu. Helburua da biharkoaren moduko lasterketekin igerila-

riak otsaileko hitzordurako prestatzen joatea".

Txapelketa dela eta, bihar, zapatua, arratsaldean Agorrosingo igerilekua itxita egongo da gainontzeko erabiltzaileendako. Goizean, berriz, eskola kirol barruan ur jardunaldia egingo dute Agorrosinen, eta gaztetxok igerilekuko lau kale hartuko dituzte.

**Labegarieta**

## EMAITZAK

Los Latinos-CM Errota-gain	4-6
Zigalikitis-Monte Taberna	7-0
Irish Pub-Komando Piperrak	1-3
Niu Tim-UD Akabaoak	4-3
Diego Valor Ileap.-Internacional	5-2
Alytis-LSJ	8-3

## PARTIDUAK

Azaroak 29, domeka	EPAILEAK
09:30 UD Akabaoak-CM Errotag.	Irish Pub
10:30 Irish Pub-Internacional	CM Errotag.
16:30 Niu Tim-Los Latinos	Komando Pip.
17:30 Alytis-Komando Piperrak	Niu Tim
18:30 Zigalikitis-LSJ	Alytis
19:30 Diego Valor-Monte Tab.	LSJ

## SAILKAPENA

	P	J
1. Niu Tim	21	8
2. UD Akabaoak	21	8
3. CM Errotagain	21	7
4. Los Latinos	18	8
5. Diego Valor Ileap.	15	8
6. Alytis FK	15	7
7. Komando Piperrak	10	8
8. Internacional	4	8
9. Irish Pub	3	8
10. Zigalikitis	3	8
11. LSJ	3	8
12. Monte taberna	3	8

**Liderrak, kale**

Joan den astean lider zegoen UD Akabaoak taldeak kale egin zuen Niu Tim taldearen kontra (4-3). Baina adi, lider dagoen Niu Timek puntu kopuru bera duen CM Errotagain izango du-eta dometan aurrean.

**Bergaran BICIPRECISIÓN IGARTUA Zubieta kalean 943 76 11 21 Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!**ETOR ZAITEZ  
PROBATZERA!

www.lapierrebikes.es

cervélo



www.cervelo.com

Errepideko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
Orbea orca Ultegra	3.980 €	2.290 €
Goka Greenwinch Ultegra 2010	2.560 €	1.549 €
Goka Greenwinch Centaur 2010	2.560 €	1.549 €
Focus Ultegra, cosmic carbono	4.890 €	2.980 €
Focud Ultegra, aksium	2.970 €	1.845 €
Ridley Noah Centaur	4.680 €	2.990 €
Gurpilak Mavic cosmic carbon SL	1.438 €	639 €
Gurpilak X poxed carbono	1.300 €	699 €

	LEHEN	ORAIN
25 kg-ko spinning bicicleta	1.100 €	695 €
Thule bizikleta-eramatekoa	750 €	360 €
Orbea mtb	750 €	475 €
Orbea mtb	390 €	229 €

www.orbea.com

www.flandersfietsen.be

www.kuota.it

www.pinarell.com

www.focus-bikes.com

**LAPIERRE: suspentsio bikoitzeko bizikleta, munduko onenetariko!**



Unanue Kamara Korala, Ondarroako abesbatza.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

# Mierlesko La Union otxotea, Ondarroako Unanue korala eta Alai taldea bihar Santa Marinaran

Alai taldekoak Mieresen izan ziren udaberrian eta asturiarrak bisita itzultzera datoz

EDU MENDIBIL > BERGARA

Mierlesko La Union otxoteak, Ondarroako Unanue Kamara Koralak eta Bergarako Alai taldeak bat egingo dute bihar, zapatua, Santa Marinaran 20:00etan eskainiko duten kontzertuan. Alai taldekoak Mierlesko *Encuentro de coros menores* delako jaialdian hartu zuten parte joan den martxoaren 21ean, eta, bisita haren ordainetan, asturiarrak Bergarara etorriko dira asteburuan. Mierlesko jaialdia itxeko *ohorea* izan zuten bergararrek udaberrian eta biharko emanaldia bi taldeen arteko harremana sendotzera dator. Tostoiaren eta Erreilenoen Kofradiaren kapituluaren baten hasi zen asturiarren eta bergararren arteko harremana, Alai taldeak behin baino gehiagotan hartu du eta parte aipatutako ekitaldian.

Ibilbide luzeko taldea da La Union otxotea. Mierlesko Orfeoia desegin eta gero, 1975ean sortu zuten taldea, eta gaur egun Astu-

riasko koral talde ezagunenetakoa da. Hainbat disko eman dituzte argitara eta Juan Rionda dugu taldeko zuzendaria 1986. urtea ezkerer.

**UNANUE, EMAKUMEEN ABESBATZA** Bestalde, Ondarroako Unanue Kamara Korala 15 bat emakumek osatzen dute. Musika estilo ezberdinak jorrotzen dituzte eta 20 urtez dihardute elkarrekin. Estibaliz Arrizabalagaren zuzendaritzapean sei pieza eskainiko dituzte bihar Santa Marinaran.

**LA UNION OTXOTEA**  
'Extiende la red (habanera)'  
(Alfonso Ruiz Martinez)  
'Vaqueira'  
Eduardo Martinez  
Torner  
'Caminito de Aviles'  
Alfonso R. Martinez  
'Cancion de cuna'  
Herrikoia, Asturias  
'Las horas del reloj'  
Eduardo Martinez  
Torner  
'Boga Boga'  
Jesus Guridi  
'Debaxo del molino'  
Arm. Juan Rionda  
'Aires de Mieres'  
Herrikoia, Asturias  
Zuzendaria:  
Juan Rionda.

**Zapatuko kontzertuko gitaraua**

**ALAI TALDEA**

'Festara'  
Herrikoia  
'Sorterritikan urruti'  
Herrikoia/Konp. M. Urbiet  
'Ilunabarra'  
Eduardo Mokoroa  
'Euskalerriko'  
Zapirain  
'Agur Jaunak'  
J. Olaizola  
Zuzendaria:  
Xabier Olabarria.

**UNANUE KAMARA KORALA**

'Rio'  
Alberto Rau/Jesus Rosas  
'Lainoa'  
David Azurza/Joxemari Iturralde  
'Uraen besotik'  
Eva Ugalde/Josune Lopez  
'Ave Maria'  
Paco Ibañez  
'Lili eder bat'  
Jabier Busto  
'La cucaracha'  
Herrikoia, Mexiko/Arm. Alberto Grau  
Zuzendaria:  
Estibaliz Arrizabalaga.  
Piano jolea:  
Iñaki Maruri.

> LITERATURA

## Amodiozko gutunen lehiaketako lanak urtarrilaren 7ra arte jasoko dituzte Jardunen

Jardunek amodiozko gutunen lehiaketaren 18. ekitaldia deitu du. 1995ean edo lehenago jaiotakoek parte har dezakete eta lanak aurkezteko epea urtarrilaren 7ra arte dago zabalik. Lau sari izango dira: lehenengoa, 500 euro; bigarrena, 250, euro; bergarar onenarentako 150 euro; eta irakurle gazteek emandako saria (26 urte-tik beherakoendako), 150 euro. Argibide gehiago, Jardunen.

> KONTZERTUA

## Bergarako Orkestra Sinfonikoak Santa Zeziliako emanaldia egingo du gaur Mariaren Lagundian

Hari taldeak, klarinete taldeak eta Orkestra Sinfonikoak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 20:00etan.

Hari taldeak Haendel, Benito Lertxundi eta Gonzalez Chirlaqueren piezak eskainiko ditu lehenbizi; jarraian, klarinete taldearen txanda izango da, eta Romero eta Joplinen piezak eta Nagle-k moldatutako *Royal Garden Blues* piezak joko dituzte. Eta, azkenik, Bergarako Orkestra Sinfonikoak beste hiru pieza eskainiko ditu Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean: *Ben* (D. Black), *Robin Hood* (M. Kamen) eta *Mira lo que te has perdido* (D. Navarro).

Kontzerturako sarrera doan izango da eta antolatzaileek gonbidapena egiten diete musikazale guztiei.



Begarako Orkestra Sinfonikoa.

GOIENKARIA

> ERAKUSKETA

## On Serafinek Bergaran ateratarako argazkien erakusketa ikusgai Aroztegin, domekara arte

Serafin Esnaola apaiza zenak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako argazkien erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan, domekara arte. Ehun bat argazki, hark erabilitako zinema eta diapositiba proiektoreak, zinema eta argazki kamerak eta editatzeko tresnak ere badaude ikusgai Barrenkaleko aretoan.

> ERAKUSKETA

## Juanjo Altunaren ikasleen lanak Errotalden eta Marilu Untzurrunzagaren margoak Nahikarin

Juanjo Altuna margolariaren ikasleen lanak ikusi ahal izateko azken eguna izango da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. Era berean, Marilu Untzurrunzaga bergararrak tamaina txikiko 23 margolan jarri ditu ikusgai Nahikari tabernan, astelehenera arte.

**Kayak Taberna**

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

**Gosari bereziak**  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

**SANTOS**

**TIEN 21**

**DESKONTUAK**  
Renove plana etxetresnetan

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**DRAGON ORIENTAL**

**Etxera eramaten dugu**  
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €  
Inguruetara + 2 €

**943 25 06 77**

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
**BERGARA**

HIRIGINTZA &gt; SANEAMENDU LANAK

# Abenduaren 4an, bukatuta Mitarte kalea

Automobilak ezingo dira ibili kalean abenduaren 24a arte, jarritako zorua ez hondatzeko

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETAKO

Maiatzean hasitako Mitarte kaleko saneamendu lanak astebetean bukatuko dituzte: abenduaren 4an, hain zuzen. Hala ere, abenduaren 24a arte ez dute zabalduko automobilendako, jarritako galtzada-harria ez hondatzeko.

Azken lanak geratzen zaizkie egiteko Amaral eraikuntza enpresako langileei: eserlekuak jarri, zuhaitzak landatu-haritzak jarriko dituzte-eta automobilendako

bidea zehaztuko duten mugarriak jarri. Kalearen alde bietan jarriko dituzte mugarri horiek, erdian lau metroko bidea izango dutela autoek. Norabideari dago-kionez, ez du aldaketarik izango; lehen legez, hegoaldeko iparraldera joango dira autoak.

PLAZA IZAN DAITEKEEN KALEA

Ur eta saneamendu hodiak berri-tzea helburu zuten Mitarte kaleko lanak, eta Estatu Fondoko



Mitarte kaleko azken lanak egiten eguzten goizean.

M.A.

dirulaguntzari esker egin dituzte -794.000 euro-. Udaleko Hirigintza arduradunek jakinarazi dute "halako lanetan ohikoa den moduan, egoera benetan eskasean zeuden azpiegiturak" agertu direla, baina "aparteko zailtasunik ez" dela egon. Bizilagun eta

dendariek, berriz, pazientzia handia erakutsi dute eta oso kexa gutxi jaso dituzte Udalean.

Saneamendu lanok aprobe-txatuta kaleari itxura berria ematea erabaki zuen Udalak, herri-tarren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Horretarako, hiru metro-

ko espaloiak egin dituzte kalearen bi aldeetan, oinezkoen seguru-tasuna bermatzeko. Ondorioz, aukera berria eskainiko du kale-ak: "Autoendako itxita dagoen bitartean plaza bezala erabili ahal izango da", diote Hirigintza Saileko langileek.

GIZARTE ZERBITZUAK &gt; KALE HEZIKETA

## Ekitaldiak gaur 'Manhattan' gunean

Grafitiak, tatuajeak eta txapak egingo dituzte, break dance pausoak ikasi eta skatean jardun

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Hainbat ekitaldi egingo dituzte gaur (17:00-21:00) Errekabarren kaleko atzeko partean, gazteek *Manhattan* deitzen dioten gunean. Gizarte Zerbitzuendako lanean dabilzan kale hezitzaileek antolatuta dute eta 11 eta 17 urte arteko aretxabaletarrak gonbidatu dituzte.

SKATEAN JARDUTEKO PISTA

Jaialdi itxura izango duen arratsalde-pasa izango da eta hainbat tailer egiteko aukera eskainiko diete gazteei: grafitiak, tatuajeak, txapak eta break dancea. "Break dance pauso batzuk ikasten saiatuko gara", diote antolatzaileek. Gainera, skatean jarduteko

pista jarriko dute, monopatina-rekin ibil daitezten. Kale hezitzaileen esanetan, "helburua ondo pasatzea" da, horregatik antolatuta dituzte gazteen gustuko jarduerak.

ESANAK

**"Irailean jarri zen abian kale hezitzaile egitasmoa; Ingurune Irekiko Programaren aurkezpena da orain"**

Myriam Beltran de Heredia >  
Droga mendekotasun teknikaria

GAZTEKIN HARTU-EMANA

Irailean jarri zuten abian kale hezitzaile egitasmoa. Bi hilabete pasatxoan herria ezagutu dute hezitzaile horiek, egoera aztertu, dokumentazioa irakurri... eta orain kalera eramango dute egitasmoa.

Gaur egingo duten jai Ingurune Irekiko Programaren aurkezpena izango da. Kabia elkarteko hezitzaileek lehen hartu-emanan izan dute herriko hainbat koadrilarekin eta harremanak estutzen joateko asmoarekin etorri da jaialdia. Eta *Manhattan*-en egitea erabaki dute bertan elkartzen delako koadrila bat.

Aurrerago beste ekintzak batzuk egiteko asmoa daukate, baina garrantzitsuena ez dela ekintzak egitea diote Gizarte Zerbitzuko arduradunek, "gaztekin hartu-emanan izatea" baizik.

OSPAKIZUNA &gt; EUSKARAREN EGUNA

## Argazkia, kantu saioa eta txistorra-jana hilaren 3an

Ez Dok Hiru taldeak 'Euskarazetamol' eskainiko du abenduaren 4an

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu datorren egunean, abenduak 3. Ospakizunerako eta aldarrikapenerako eguna izango da eta hainbat ekitaldi antolatuta dituzte ikas-tetxeek eta euskara elkarteek.


ALDARRIKAPEN IDATZIA

Loramendi Euskara Elkarteak aldarrikapena eta ospakizuna bat egingo ditu egunean eta Euskararen Nazioarteko Egunerako gertatutako idatzia ira-

kurriko dute lehenengo Herriko Plazan (19:00). Ondoren argazkia aterako dute elkartutakoek euskararekin bat egiten dutela aldarrikatzeko, eta kantu saioari ekingo diote gero, trititilariak lagun dituztela. Ospakizun giroarekin bukatzeko ekitaldiok, txistorra mokadutxoak jango dute udaletxe zaharreko atartean.

'EUSKARAZETAMOL' ANTZEZLANA

Egubakoitzean, abenduak 4, Ez Dok Hiru taldeak *Euskarazetamol* antzezlana eskainiko du Arkupen (19:00). Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek euskararen gaineko gogoeta egingo dute: "Ikusiko duzue zer egiteko gai garen gure hizkuntzarekin *jarrita* gaudenean".



# EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


### Arlutz taberna



*Gustuko musika*

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

### Ezkutu taberna



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

### Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak  
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54

### IOSU

*taberna  
harategia*

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



**hemen bada**  
**ARLUTZ**

### OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

### BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

### HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**Gurea**  
TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**Dorleta**

*Loteria eta kinielak*

DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

ERRETIRATUAK &gt; ABESBATZA

# Basotxoko abestaldeak jendaurrean kantatuko du

Kantu zaharren txapelketara aurkezteko epea martitzenean bukatuko da; kantuak aurrez grabatzeko antolatzaileekin egin behar da berba

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteko kideek ekitaldiak antolatu eta horien protagonista izan gura dute. Hori horrela, hainbat ekimen jarri dituzte abian azken hilabeteotan: irteera aktiboak, abestaldeak eta kantu txapelketa. Hain zuzen, azken irteera Donostiako Zientzien Kutxagunera izan da: "Adinak ez duela unibertso misterioen gaineko jakin-mina ezabatzen frogatu genuen", dio Basotxoko presidente Imanol Arantzabalek.

Kantu zaharren txapelketara aurkezteko epea martitzenean, abenduak 1, bukatuko da. Kantuok



Basotxoko kideak Donostiako Zientzien Kutxagunearan aurrean bisita bukatu eta gero.

BASOTXO

aurrez grabatuko dituzte Basotxon bertan eta horretarako antolatzaileekin berba egin behar dute parte-hartzaileek: Pedro Etxebarriarekin, hain zuzen.

Bestalde, Basotxon osatu duten abestaldeak entseguen jarraitzen du -Jose Luis Errastik zuzenduta- eta hainbat ekitaldi egiteko asmoa daukate. Horregatik, abes-

taldeko kideei gogorarazi gura diete garrantzitsua dela entseguetara joatea taldea osatu eta kantuak borobiltzen joateko. Hurrengo abenduaren 9an da (18:00).

KIROLAK &gt; KARATEA

## Odei Vazquez bigarrena Euskadiko karate txapelketan

Norgehiagoka gogorak jokatu zituen eta teknikari eta gogoari esker sartu zen finalean

M.A. &gt; ARETXABALETA

Joan den domekan, hilak 22, jokatu zuten Euskadiko karate txapelketa Astigarragako kiroldegian eta bertan izan ziren Aretxabaleta Kirol Elkarteko kide bi: Odei Vazquez junior mailan -61

kiloz azpiko taldean- eta Ekaitz Irusta kadete mailan -70 kiloz azpiko taldean-.

TEKNIKA ONENA ERABILITAKOIA

Odilo Vazquezen esanetara lan egiten duten bi karatekek lan

bikaina egin zuten txapelketan. Eta egindako lanak saria izan zuen, Odei Vazquezek zilarrezko domina eskuratu zuen eta kumite modalitatean.

Norgehiagoka gogorak jokatu zituen Vazquez aretxabaletarrak finalean sartu ahal izateko. Hala, Espainiako txapelketa jokatu izan duten aurkari indartsu bi gainditu zituen, bata arabarra eta bestea bizkaitarra. "Markagailuan gorabehera asko egon dira eta oso berdinduta ibili dira aurkariak bi norgehiagoketan, baina azkenean gogo handiena jarritakoak borrokan eta teknika onena erabili duenak irabazi du", azaldu digu Odilo Vazquez entrenatzaileak.

Finala, ostera, beste gipuzkoar baten aurka jokatu behar izan zuen: Alvaro Rivas Bera Bera

elkarteko kidearen aurka. Hain zuzen, Marokon egon berri da Rivas, Espainiako selekzioarekin jokatzeko. Bera Berakoa gailendu zitzaion aretxabaletarrari, baina pozik itzuli da Vazquez junior mailako 61 kiloz azpiko Euskadiko txapeldunordea delako.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Hil honetan bertan Espainiako txapelketa jokatzeko aukeraketa egiten hasiko dira. Euskadiko txapeldunak zuzenean sailkatu dira, baina gainerakoek hainbat proba egin beharko dituzte. Eta uztailean Lehen Dan gerriko beltza lortu zuen Odei Vazquezen helburua horixe da: Espainiako txapelketarako sailkatzea. Laz ez zuen zortea lagun izan; hortaz, ea aurten lortzen duen. Espainiako txapelketa urtarrilean da.

### oharrak

ZINEMA

> 'Distrito 9' eta 'Mas alla de los sueños' filmak asteburuan

Helduek *Distrito 9* filma dute eta gaztetxoek domekan (17:00) *Mas alla de los sueños*.

EMANALDIK

> Musika eskolako emanaldiak

Martitzenean (16:45-19:45) eta eguaztenean (17:30-18:30) musika eskolako ikasleek emanaldiak daude Arkupen.

LITERATURA

> 'Ilunabar literarioa' Karmele Igartuarekin

*Denbora enaren hegaletan* poesia liburua aurkeztuko du musika lagun eguaztenean, abenduak 2, Arkupen (19:00).



Errekabarren 3, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

• Obra bukaerako garbiketak

• Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

• Kristalen garbiketak

• Arropa garbiketak

Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

IBARRA  
JATETXEA

Eguneko menua

• Plater konbinatuak

• Errazioak

• Hanburgesak

• Oilasko erreak, eramateko.

Araba ibilbidea 29  
ARETXABALETA  
943 79 18 03



# Etxebizitzak

Egubakoitza / 2009ko azaroaren 27a / **Arduraduna:** Edu Mendibil / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



IRISGARRITASUNA • LOGELAK • EGONGELAK • SUKALDEAK • BAINUGELAK  
• ETXETRESNAK • ALOKATZEKO ETXEAK

AZALA: OXEL ARRIETA

 **bastidasukaldeak**

**ESKAITZA BEREZIAK**

**ETXE TASATUENDAKO ETA BABES OFIZIALEKOENDAKO**

**ANIMA ZAITEZ!**

**zarautz**

elizaurre 3, 20800

tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**


perez arregi 9, 20730

tel./faxes: 943 15 05 10

**bergara**

ibargarai 36-38, 20570

tel./faxes: 943 76 70 58





Aldapak eta eskailera ekiditeko Bergarako Bolu auzoan igogailuak jartzen dihardute.

MIRIAN BITERI

## ■ IRISGARRITASUNA

# Eguneroko bizitza errazten duten neurriak abian dira

MIRIAN BITERI

**E**txebizitzak eta hiri-inguruneak autonomiaz erabili ahal izatea da irisgarritasuna. Egun gizarte osoak bermatuta ez badu ere, apurka horren gaineko pausoak ematen ari dira; tartean, etxebizitzak eraikitzerakoan edo berritzerakoan eta inguruneak egokitzerakoan baldintzak jarri.

Apurka bada ere, irisgarritasunari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio Debagoienean. Bi arlotan egiten da lan bereziki: batetik, eraikinetan bertan egiten diren lanak daude; eta bestetik, kanpora begirako edo hirigintza lan modura ezagutzen direnak daude.

Zetabi Arkitektura bulegoko Aitor Zubiak etxebizitza berriak barruan bete behar dituzten baldintzen berri eman digu. Sarre-rako atea gutxienez 90 zentimetrokoa izan behar du eta gainontzeko ateeak, 80 zentimetrokoak.

Pasilloek, gutxienez, 95 zentimetroko zabalera izango dute eta solairu batetik gora duten etxe-igogailua jartzeko aurre-instalazioa izan beharko dute.

Leihoei dagokienez, irekitzen direnak eta garbitzeko aukera ematen dutenak izango dira. Dena dela, irekitzen ez den zatiren bat badu, horrek gehienez 82 zentimetroko zabalera izan beharko du, besoa luzatu ezke-ro, erortzeko arrisku barik garbitzeko.

### MUGIKORTASUN URRIA DUTENENAK

Mugikortasun urria duten pertsonen etxebizitzaren kasuan baldintzak zorrotzagoak direla azaldu digu. Hala, ate guztiak 90 zentimetrokoak izango dira; komunetakoak, gainera, kanpoaldera zabaltzen direnak edo gidaridun ateeak izango dira. Sarrerako atearen bi aldeetan, bestalde, 180 zentimetroko diametrodun oztoporik gabeko guneak eta 120 zentimetroko pasilloak egon beharko dira. Horretaz gain, Zubiak

azaldu digu sukaldeko eta komunetako altzariek ezaugarri bereziak izango dituztela.

Bestalde, etxebizitza berriek eta berrietuek irisgarritasun baldintza berak dituzte. Zubiak, dena dela, azaldu digu eraberrituen kasuan teoria eta praktika ez datozela bat. Izan ere, azken

horiek, batzuetan, ezinezko izaten dute baldintzak betetzea. Eraikinetan egiturak, formak edo gunearen orografiak eragina izan dezake horretan.

### ETXEBIZITZEN GUNE PUBLIKOAK

Bestalde, etxebizitzetako gune publiko guztietan irisgarritasuna

**Mugikortasun urria dutenendako etxebizitzetan baldintzak zorrotzagoak dira**

**Etxebizitza berriek eta berrietuek irisgarritasun baldintza berak dituzte**

**Etxeetako gune publiko guztietara irisgarritasunak bermatuta egon behar du**

**Debagoiena bezalako gune malkartsuetan zailtasunak ugariagoak dira**

bermatuta egon behar duela gogorazi du Zubiak. Atarian, esaterako, kanpotik barrurako sarrera bermatu behar da, biak maila berean egonda edo harmailak arrapalez osatuz; eta kanpoaldera ematen duten ateeak bi aldeetara 150 zentimetroko diametrodun oztopo gabeko guneak behar dituzte, ateen zabalera, gutxienez, 90 zentimetrokoa dela. Eta eskailerekin edo arrapalekin ere ezaugarri bereziak bete beharko dituzte.

### KALEETAKO IRISGARRITASUNA

Etxe barruko irisgarritasuna garrantzitsua bada, kanpora begirakoa ez dela gutxiagorako esan digu Zubiak. Horren harira, gogorazi du batzuetan eraikinetako atariak egokitu eta arrapalak edo igogailua jartzen badira ere, zailtasunak eraikinetik kanpo gertatzen direla.

Gaineratu du Debagoiena bezalako gune malkartsuetan kasu horiek ugariagoak direla. Zubiaren esanetan, "kasu horietan, kale eta auzoetako oinezko bideak aztertu eta irisgarritasun legedia aplikatzen saiatu beharra dago, Bergarako Bolu auzoan eta Elgetako Salbador kalean egin dugun moduan".

### BOLU ETA ALTAMIRA

Zubiak Bolu auzoan dauden irisgarritasun arazoei irtenbidea emateko egiten ari direna azaldu digu, Zetabi arduratu da-eta horren gaineko proiektua egiteaz. Guztira, lau igogailu jartzeko lanean dabilta han. Horren aurrekontua 1.166.006 euro da. Arrasaten ere, Ferixalekua eta Altamira lotuko dituen igogailu publikoa jartzeko lanean ibili dira azken hilabeteotan. Dagoeneko obrak amaituta badaude ere, han jarri dituzten bi igogailuak oraindik ez daude martxan. Proiektu horren aurrekontua 2.118.658 euro da.

LOGELAK ETA EGONGELAK

# Epe luzera begirako etxearen apainketa

JOKIN BEREZIARTUA

**E**txean logelak dira koloreak gehien konbinatzen diren txokoak. Egun, baina, osagarrien koloreak aldatuz logela osoa aldatzea da joera. Egongeletan, bestalde, altzari luze eta altuak dira nagusi. Koloreei dagokionez, berriz, errauts kolorea eta zuria, batez ere.

Ezin ukatu krisiak etxearen apainketan ere eragiten duenik. Azken hilabeteetan etxe saltzai-

le gehienek, ohiko katalogoetz gain, beste katalogo txiki bat ateratzen dute altzari eta osagarrien modelo merkeagoekin.

#### KRISIARI EGOKITUTAKO ESKAINTZA

Beraz, krisiaren aurrean neurriak hartu behar izan dituzte etxe saltzaileek. Horrek, noski, etxearen apainketa merkeagoa izateko aukera eman du, eta, Bergarako Iparproject-eko Irati Romerok azaldu duenez, "orain posible da diru gutxi ordainuz etxea oso ondo apainduta izatea".



#### GURASO ETA HAURREN GELAN, OSAGARRIEN KOLOREEKIN JOLASTEN

**G**uraso zein haurren gelan berritasun nagusia da osagarrien koloreak konbinatuz gela osoaren apainketa aldatzea. Hala, Ugarte Aroztegikoek diotenez, gurasoen gelan altzari gutxi dago eta horietan kristalak presentzia izaten jarraitzen du. Txikien gelan, berriz, ohe handiak nagusitzen dira.



#### ALTZARI KONBINATUAK EGONGELETAN

**E**gongeletan ez da aldaketa handirik izan, Ugarte Aroztegikoek azaldu dutenez. Espazioak berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du eta altzari gutxi sartzea da joera. Altzariei dagokionez, altzari "konbinatuak" modan daude; hau da, lurretik sabairaino doazenak. Beraz, altzari gutxi eta oso handiak jartzen ditugu egongelan.

arkitektoak

aitor zubia azkue xabier zabala urriategi uzuri larrañaga zubizarreta

igogailu publikoak, bergara



etxebizitzak



eraberritzeak



salvador kalea, elgeta



**zetabi**  
arkitektura bulegoa  
[www.zetabi.eu](http://www.zetabi.eu)  
tel/faxa: 943 76 53 09  
emaila: [zetabi@zetabi.eu](mailto:zetabi@zetabi.eu)  
telleria 21, C-06 bergara



Herdoilgaitzaren presentzia eta koloreetan distira dira egungo sukaldeen ezaugarri nagusiak. Bestalde, aireztapenari ere garrantzi handia ematen zaio.

GOIENKARIA

## ■ SUKALDEAK ETA BAINUAK

# Aurten ez dago berritasun n

JOKIN BEREZIARTUA

**A**urten sukalde eta bainugelatan ez da berritasun nabarmenik izan, krisiak etxearen apaintetan ere eragiten duen seinale.

Sukaldeen eta bainugelen apaintetan ez da aldaketa nabarmenik izan azken urtean. Hala diote, ñabardurak ñabardura, gure bailarako honako saltzaile hauek: Iparproject, Iker Sukaldeak, Servimasa eta Bastida Sukaldeak.

### MARRAZKIAK ARMAIRUETAN...

Berritasuna ez bada ere, sukaldeko altzarietan gidaridun armairuak eta altzari herdoilgaitzak gero eta pisu handiagoa ari dira hartzen. Ate-gidaridun (korredera) armairuak erosoagoak eta


seguruagoak dira, baina baita garestiagoak ere. Eta armairu zuriak zein beltzak altzari herdoilgaitzez konbinatzen jarraitzen dira. Bestalde, armairuetan badago berritasun aipagarri bat, Iker Sukaldeek eta Iparproject-ek

jakinarazi dutenez: armairuen ateetan marrazki batzuk hasi dira sartzen, marrazkoekin forma ezberdinak osatzen dituztenak. Iker Sukaldeetan, gainera, marrazkitxo horiek pertsonalizatzeko aukera dago.

# UGARTE

AROSZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorrean  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak



**altzari denda**  
ikerleku zeharbidea • bergara  
tel.: 943 03 46 30

**erakusketa eta tailerra**  
san juan 1a • bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxes: 943 76 08 04



Bainugeletan altzari gutxi, eta edukiera handikoak. Gainera, gelaren koloreetan batasuna da nagusi.

GOIENKARIA

# abarmenik

## ...ETA DISTIRA KOLOREETAN

Sukaldearen kolorea ez da beti zuria. Hori bai, zuria edo beltza izan, koloreari distira ematea da egun dagoen joera garbia. Gainera, etxeen antzera, sukaldeak ere gero eta txikiagoak direnez,

espazioa ahalik eta ondoen aprobetxatzen da eta horregatik leku txikian edukiera handia duten ate-gidaridun armairuak dira nagusi.

Azkenik, sukaldearen airez-tapenari ere garrantzia ematen

zaio. Hori ez da berria; azken urteetan finkatzen joan den joera da. Servimasako Mikel Etxanizek azaldu du ke-erazgailuei garrantzi handia ematen zaiela.

## BAINUETAN ERE EROSOTASUNAREN BILA

Bainugeletan apainketa gero eta gehiago zaintzen da. Garbitasunerako gela hutsa izatetik, edertasunerako gela eroso bilatzera pasa gara. Erosotasunak gero eta garrantzi handiagoa du bainugelan, eta lekua aprobetxatzeari ere asko errapatzen zaio.

Hala, bainugeletan ere altzari gutxi sartzea da joera, ahalik eta espazio gehien aprobetxatzeko. Altzariok hamaika gauza sartzeko edukiera izan behar dute eta horietan ordena bereziki zaintzen da.

Koloreetan, bestalde, batasunak agintzen jarraitzen du bainugelan. Zuria gero eta gutxiago saltzen dela diote Iparproject-en, eta beste kolore batzuk hasi dira nagusitzen; laranja, esaterako. Finean, joera koloreak batzea da, eta ez nahastea edo konbinatzea.

**Armairuko ateetan marrazkiak sartzeko aukera dago sukaldeetan**

**Bainugelako koloreetan batasunak agintzen jarraitzen du**

## Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR**



Etxetresna zaharrak ondo ibili arren, erosleak hasi dira A energia-kalifikazioa duten etxetresnak aukeratzen.

GOIENKARIA

"Jendea hasi da kontsumo txikiko etxetresnen aldeko apustua egiten"

Aparailu zaharra ordezkatzean, 85 eta 115 euro arteko deskontua egingo dute saltzaileek

hoa Merinerok jakinarazi duenez, deskontuak direla-eta, etxetresnetan "asko" saldu da azkenaldian: "Etxeko aparailuak ondo ibili arren, jendea hasi da kontsumo txikiko aldeko apustua egiten".

**85 ETA 115 EUROARTEKO DESKONTUAK**  
Deskontuak ez dira gutxiagorako. Etxetresna zaharra A+ (A kalifikazioa dutenak baino garbiagoak zein garestiagoak dira) kalifikazioa duen batengatik aldatuz gero, 115 eurokoa da deskontua; A kalifikazioa dutenengatik aldatuz gero, berriz, 85 eurokoa. Garbigailuetan, ontzi-garbigailuetan eta hozkailuetan ez ezik, labeetan ere hasi dira deskontuak sartzen.

Azkenik, Eroskik eskaintza biren berri eman du: batetik, sukalde berria marka bereko etxetresnekin hornitzen duenak deskontu bereziak izango ditu; eta bestetik, edozein aparailu elektriko erosita, garantia luzatzeko aukera dago. Zertxobait gehiago ordainduta, garantia bikoizteko aukera dago. Jende askok ez du egiten, baina Merinerok dioenez, "oso komenigarria" da.

## ETXETRESNAK

# Kontsumo txikikoen aldeko apustu garbia

JOKIN BEREZIARTUA

**K**risiak astindu egin ditu etxetresna elektrikoak, eta horri aurre egiteko Renove Plan berezia abiatu du Jaurlaritzak. Bada, jendea hasi da ekimenarekin bat egiten eta Eroskin, esaterako, etxetresna salmenta "asko" hazi da; izan ere, deskontuak ez dira gutxiagorako.

Joerei dagokienez, etxetresna elektrikoetan ez da berritasun aipagarriarik izan. Diseinuari dagokionez, aparailu herdoilezina gero eta gehiago saltzen dira -garestiagoak izan arren- eta egungo erosleek diseinu modernoak eskatzen dituzte. Hala ere, prezioa da gehien begiratzen dena; are gehiago, krisi garaian.

### RENOVE PLAN BEREZIA

Espainiako etxetresna ekoizleen elkarteak egunotan jakinarazi du urrira bitartean salmentak %17,7 jaitsi zirela. Eta sektoreari bultzada emateko, Renove Plan berezia (+E09 deritzon plana) abiarazi du Eusko Jaurlaritzak. Plan horrek etxetresna zaharrak kontsumo txikiko berri batzuen ordezk

tzea du oinarri: hau da, etxera A energia-kalifikazioa duten aparailuak erotea da helburua. Noski, hobeak eta garestiagoak diren tresna horien salmenta pizteko, deskontuak egingo dituzte saltzaileek. Bada, Renove Plana hasi da nabaritzen, esaterako, Eroskiko etxetresna elektrikoetan. Eroskiko bazarreko arduradun Ain-



**IparProject**  
www.iparproject.com

Etxebizitzaren ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak  
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa



# AURREZTE BIKOITZA

Plastikozko  
poltsak  
erabiltzeari  
utziz gero

 ZUK  
IRABAZTEN  
DUZU

 INGURUMENAK  
IRABAZTEN DU



**EROSKI**

40 zurekin

[www.eroski.es](http://www.eroski.es)



Alokatzeko etxebizitzaren eskaria nabarmen igo da azken urteetan eta, egun, lehen baino %20 gutxiago ordaintzen da hilero, gutxi gorabehera.

JOKIN BEREZIARTUA

## ■ ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK

# Eskaria igo arren, eskaintzak ez du modu berean erantzun

JOKIN BEREZIARTUA

**A**lokatzeko etxebizitzaren eskaria nabarmen hazi da azken urteetan. Hortaz, badirudi etxebizitza propioa izatea ezinbestekoa zen pentsaera aldatzen ari dela. Arrasaten, esaterako, La Caixako alokairu sozialeko etxebizitzak aldaketa horretan laguntzen ari dira. Higiezin agentzia batzuetan izan gara alokatzeko etxebizitzaren egoez berbetan.

Etxebizitzaren inguruko eredia bagoaz pixkanaka aldatzen. Egund, ez da hain ezinbestekotzat jotzen etxebizitza propioa izatea. Horretan, noski, etxeen salmenta prezio handiegiek zerikusizuzena izan dute. Hala, gero eta gazte gehiagok erabakitzen dute, gurasoen etxetik irteteko, aloka-

tzeko etxebizitzetan sartzea. Azken urteetan eskaria nabarmen igo da, beraz.

### ESKARIAK GORA...

Ibarreko Arrieta & San Migel, Deba Garaia eta Anboto agentziak jakinarazi dutenez, alokatzeko etxebizitzaren eskaria "nabarmen" igo da. Higiezin agentzien arabera, krisiaren eraginez etxeen jabeek "askoz gehiago" kostatzen zaie etxea saltzea eta agentziara jotzen dute etxea alokairuan jartzeko. Eta alderantziz, gurasoen etxetik irten gura duen gazteak etxe bat erosteko duen aukera ekonomiko faltak alokatzeko etxeetan sartzea bultzatzen du.

Gainera, Anboto agentziaren arabera, errentak %20 inguru jaitسي dira: "Egun, ez dira hilero 800 euro ordaintzen, duela gutxi arte gertatzen zen moduan", diote.

### ...BAINA ESKAINTZAK EZ

Edozelan ere, eskaintza ez da eskariarekin bat igo; hau da, ez da igoera proportzionala izan. Horrek ez du esan nahi alokai-

ruan saltzeko etxerik ez denik egin. Izan ere, alokairu sozialeko etxeak egin dira gurean; Arrasateko La Caixako etxeak, esaterako. Horren harira, Deba

Garaia agentziakoei diotenez, "leku gutxitan" ikusten dira Arrasateko La Caixako alokatzeko etxebizitzaren modukoak -etxeak banatu zirenean 270 euro besterik ez zen ordaindu behar hilean-: "Hori da hori mauka!", adierazi dute. Finean, errenta bidezko etxeen aldeko apustua egin bada ere, ez da eskari handia asetzeko nahikoa.

### ARRASATE, HERRI GARESTIENA

Arrieta & San Migel agentziakoei ez dute oso garbi zein den bailarako herririk garestiena alokairu bidezko etxeetan: "Aldea oso txikia da", diote. Beste bi agentziak uste dute Arrasate dela garestiena. Bergararen ondoan, adibidez, 50 euro inguruko aldea ei dago. Hala ere, hiru agentziak bat datoz gauza baten: errentek behera egiteko joera dutela.

**Eredu aldaketa: egun, ez da hain ezinbestekotzat jotzen etxebizitza propioa izatea**

**"Egun, ez dira hilero 800 euro ordaintzen, duela gutxi arte gertatzen zen moduan"**

**"Leku gutxitan" ikusten dira La Caixako etxeen modukoak: "Hori da hori mauka!"**

**Arrasate ei da herririk garestiena; Bergara baino 50 euro inguru garestiagoa**



Finantzaketa kuota personalizatuak

**SYMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO



# ARETXABALETA ERDI-ERDIAN

Cerrajera Valle de Leniz  
bizitegia

## ORTUIBAR S.L.

Ibargarai 18, behea  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 18

## ORTUZAL S.L.

Errekabarren 20, behea  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 40 00





**Aurten, ez itxaron mahatsak irentsi arte.**



### **Aurreztu orain zure etorkizuneko etxerako.**

Egin ekarpena Premium Etxebizitza Kontuan abenduaren 31 baino lehen eta sartu duzunaren % 18 zergarinduko duzu Errenta Aitorpenean.

Gainera, 2009 urte osoan saldoan egindako 1.000 €-ko igoera bakoitzeko, **60 Netbook Acer ultra-finen zozketan parte hartzeko aukera bat gehiago izango duzu.**

**Oraindik kontu hori ez baduzu, kontratatu eta egin ekarpena gure edozein bulegotan edo kutxanet-en.**



**zer nahi duzu bihar?**

Sustapenaren oinarriak hemen dituzu: [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net).



2008ko erakusleho lehiaketako irabazleak eta udal arduradunak sari banaketa ekitaldiaren ondoren.

GOIENKARIA

JENDARTEA > DEIALDIA

# Aurten, 4.500 euro erakusleho lehiaketan

laz baino 1.000 euro gutxiago banatuko dituzte antolatzaileek parte-hartzaileen artean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Udalak eta Txanda den-darien elkarteak II. erakusleho lehiaketarako deialdia egin dute. Guztira, 4.500 euro banatuko dituzte, iaz baino 1.000 euro gutxiago. Dagoeneko izenematea epea zabaldu dute. Horren harira, interesatuek udaletxeko harrera bulegoan, turismo bulegoan edo Bidebarrieta kaleko 12. zenbakian dagoen Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza batzordeko bulegoan eman dezakete izena abenduaren 5a baino lehen.

ABENDUAREN 15ERA ARTE

Parte-hartzaileek dendan saltzen dituzten ohiko produktuak jarri beharko dituzte erakuslehoetan abenduaren 15era arte. Epaimahaiko kideak izango dira udal ordezkariak, Txandako kideak eta dekorazio arloko profesionalak; eta, besteak beste, diseinua,

irudimena, orijinaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza hartuko dituzte kontuan euren epaia emateko orduan.

2008KO LEHIAKETA

## laz, Maibi, Kimu, Urtxin eta Letamendi

laz egindako lehiaketan Maibik, Urtxinek eta Letamendi arropa dendak eroan zituzten lehen (2.000 euro), bigarren (1.500 euro) eta hirugarren (1.000 euro) sariak, hurrenez hurren. Bestalde, Kimu loradendak jaso zuen herritarren aldetik boto gehien eta 1.000 euro eroan zituen. 2008an 44 merkatarik hartu zuten parte eta herritarren 422 boto jaso zituzten. Epaimahaia Barue dendako Saiok eta Izarrek, Edurne Otxoa-Aizpuruk eta Itziar Arkauzek osatu zuten.

HERRITARREK EMANDAKO BI SARI

Erakusleho onenen artean 4.500 euro banatuko ditu Udalak: lehen sailkatuak 1.500 euro jasoko ditu; bigarrenak, 1.000 euro; eta hirugarrenak, 500 euro.

Bestalde, herritarrek erabakiko dute 500 euroko bi sariak nortzuek eskuratzen duten. Horretarako, *Kontzejupetik* aldizkarian dauden boto-txartelak bete behar dituzte abenduaren 26a baino lehen, nork bere datuekin eta botoa ematen dion dendaren izenarekin. Botoak udaletxean, turismo bulegoan edo Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza bulegoan entregatu behar dira.

Botoa ematen duten herritarren artean Gabonetako saski bat zozketatuko dute.

Udalak banatuko duen 500 euroko azken saria –aurtengo berrikuntza nagusia– urtean zehar egindako lana saritzeko izango da. Besteak beste, urtean zehar egindako erakusleho aldaketak eta erabilitako apainketak baloratuko dituzte.

JENDARTEA > EMAKUMEA

# Emakumeenganako indarkeriaren kontra, prebentzioa

Alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak manifestua irakurri zuten eguaztenean

M.B. > OÑATI

Eguaztena izan zen Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Horren harira, manifestua irakurri zuten Lourdes Idoiaga alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdosek. Bestalde, Udaleko Prebentzio teknikari Ainhoa Moiuak aipatu zuen genero indarkeria saihesteko lehen pausoa prebentzioa dela.

Gogoratu zuten Udalak gerutu duela genero indarkeriaren kontrako protokoloa eta hala koetan salaketa oso inportantea dela. "Genero indarkeria sufritzen duten emakumeek salaketa jartzea oso inportantea da", esan zuen Prebentzio teknikari Ainhoa Moiuak.

KARTEL LEHIAKETA

Prebentzioa bultzatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte; besteak beste, autodefentsa ikastaroa. Era berean, herriko

ikastetxeekin elkarlanean indarkeriaren kontrako kartel lehiaketa antolatu dute. Eguaztenean banatu zituzten sariak: lehena Txantxiku ikastolako ikasle Amaia Goitiak, Naiara Jauregik eta Ainhoa Tatiegik eskuratu zuten. Eta bigarren saria Zuazola institutuko ikasle Jon Untzurrunzagak, Aitor Guridik, Miren Fernandezek eta Julen Martinek eroan zuten.

SALAKETA

Bestalde, eguazteneko agerraldia aprobetxatu zuen alkateak orain dela bi aste Ongi Etorri tabernan izandako gertaera salatzen. "Neska gazteak defendatzen joan zen gizonaren jarrera azpimarratu gura dugu, eta eraso egin zuen pertsonaren jarrera tinko salatu", esan zuen alkateak. Era berean, gaineratu zuen Oñatin bizi diren atzerritar guztiak ez direla errudunak, eta euren errespetua eskatu zuen.



Kartel lehiaketako irabazleak udal arduradunekin.

MIREIA BIKUÑA

## oharrak

BILERA

> Ezker abertzalearen estrategia berritua azaltzeko deia

Bilera egingo dute bihar, 10:00etan, kultura etxean. Hain zuzen ere, ezker abertzalearen estrategia berrituaren oinarriak azaltzen dituen txostenaren gainean egingo dute berba.

DEIALDIA

> 1971n jaiotakoek kintada egingo dute

1971koek bazkaria egingo dute abenduaren 12an. Izena emateko: 657 70 67 46 edo [quin-tos71@gmail.com](mailto:quin-tos71@gmail.com).

> EUSKARA

'Egunkaria' auziko epaiketaren kontra daudenekin argazkia

*Egunkaria*-ko auzipetuak babes-teko Oñatin sortu den taldeak deialdi berezia egin du biharko: epaiketaren kontra dauden herritarrek, elkarteetako ordezkariak eta eragileak argazki batera gonbidatu gura dituzte. Hain zuzen ere, bihar 13:00etan plazan egingo dute talde argazkia. "Ahal duten pertsona guztiak etor daitezela plazara! Deialdia irekia da, eta talde argazki polita egin gurako genuke. Herritar guztiak gonbidatu gura ditugu", esan digute Oñatiko taldekoek.

> DEIALDIA

Kanika txapelketa egingo dute domekan gazteendako

Gaztelekuko arduradunek kubo-ko lehen kanika txapelketa egingo dute domekan, 17:00etan. Txapelketan parte hartu gura dutenek gaztelekuan bertan eman behar dute izena, eta bihar da azken eguna. Kristalezko, metalezko edo beste material bateko kanikak erabil daitezke txapelketan. Oinarriko kanika jokoaren arauak hartuko dituzte aintzat. Norberaren kanika bestearenaren kontra joaz zuloan sartu edo ibilbide bat ahalik eta kolpe gutxienekin egin beharko dituzte.

> HEZKUNTZA

Jostailuen erakusketa egingo dute ludotekan aste bukaeran

Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak antolatuta, jostailuen gaineko erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan bihar eta etzi, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Bestalde, ludotekako hezitzaileek adin arte bakoitzeko umeei ondoen datozkien jostailuen gaineko azalpenak emango dituzte bihar eta etzi, 12:00etan eta 18:00etan. "Solosaldea egingo dugu gurasoekin, eta jolasaren balioen dekalogo bat emango diegu", esan digu ludotekako hezitzaileak.

> MUSIKA

Munduko instrumentuen gaineko saioa egingo dute gaztelekuan gaur

Pablo Mezzelani argentinarra irakasle dutela, musika saio didaktikoa egingo dute gaztelekuko topalekuan gaur, 18:00etan. Besteak este, instrumentu etnikoen gaineko azalpenak emango ditu. Saioaren helburua da gaur egungo kultura aniztasuna musikaren esparruan islatzea.

Pablo Mezzelani Buenos Aires utzi eta munduan zehar abiatu zen herri eta kultura ezberdinen sustrai musikalen bila. Larinoamerikako eta Europako folklorea ezagutu zituen.



Udalak Debagoieneko Industrialdean sartzeko jarri behar duen diru-kopurua onartu du asteon; Torrebaso Debagoieneko Industrialdearen parte izango da.

M.B.

**POLITIKA** > OSOKO BILKURA

# Debagoieneko Industrialdean milioi erdi jarriko du Udalak

Eguazteneko osoko bilkuran 62.058 akzio erosteko konpromisoa hartu zuen udalbatzak

Hileta zibilen ordenantza behin betiko onartzeaz gain, EHNE eta EHGAMen mozioak onartu zituen

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eguazten iluntzean udaletxean egindako ohiko osoko bilkuran, udalbatzak beste pauso bat eman zuen Debagoieneko Industrialdea SAREN parte izateko. Urriaren 1ean esandako industrialdeak kapital-gehikuntza martxan jartzea erabaki zuen eta eguaztenean, Udalak merkatura ateratako akzioen %24,5 erostea adostu zuen aho batez. Hori horrela izan dadin, 549.217 euro jartzeko konpromisoa

hartu zuten udalbatzako ordezkariek, 62.058 akzio erosteko.

Eskoriatzako Industrialdearen ondasunak Debagoieneko Industrialdeari saltzeko eta Eskoriatzako Udala azken industrialde horretan sartzeko prozesuaren gaineko hurrengo urratsa abenduaren 15ean da; Eskoriatzako ondasunen salerosketaren bigarren zatia ordaintzea aurreikusita dute. Debagoieneko Industrialdeak 1.295.054 euro ordainduko

dizkio Eskoriatzakoari. Urriaren 29an, bi industrialdeetako aldeek kontratua sinatu zuten, salerosketaren lehenengo zatia- ren gainekoa. Hain justu, 812.000 euro jaso zituen Eskoriatzakoak.

**HILETA ZIBILEN ORDENANTZA**

Eguazteneko osoko bilkuran beste hainbat gai landu zituzten; tartean, udalerrian hileta edo omenaldi zibilak egiteko udal ordenantzari EAJ taldeak egindako iradokizunak aho batez onartu zituzten, eta, hortaz, behin betiko onartu zuten araudi berria.

**PRESERBATIBOA BERBETA-GAI**

Horrez gain, EHNE sindikatua nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreari elkartasuna adierazteko aurkeztutako mozioa onar-

tu zuen udalbatzak. Esandako bi sektoreak jendartearen beharretarako eta landa garapenerako estrategikoak eta funtsezkoak direla gogorarazi zuen.

Bestalde, Benedikto XVI.ak preserbatiboaren kontra egindako adierazpenen harira, Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) aurkeztutako mozioaren alde ere bozkatu zuen. Horren harira, azpimarratu zuen gizezkoendako late-xeko preserbatiboa dela GIBaren eta sexu bidezko infekzioen aurkako biderik eraginkorrena.

Gainera, Pedro Lasagabaster alkateak Charles Darwinen *Espezien jatorria* liburuaren 150. urteurrena gogorarazi zuen; era berean, asteon izandako atxilotetak ere gogor salatu zituen.

**KIROLA**

## Frontenis txapelketa egingo dute bigarrenez

Astelehenean, hilak 30, amaituko da horretan izena emateko epea

**M.B.** > ESKORIATZA

Aurten ere banakako frontenis txapelketa antolatu dute herrian. Joan den urtean egin zuten lehen aldiz, eta izandako harrera ona dela-eta, bigarren ez antolatzea erabaki dute.

Interesa dutenek astelehenera arte, azaroak 30, izango dute izena emateko aukera. Bi toki dituzte horretarako: Intxaurtxuetako kiroldegia eta Inkernu taberna. Izenematearen prezioa ez da aldatu, eta, hortaz, aurten ere parte-hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu apuntatzerakoan.

Esandako txapelketa abenduaren 12tik 20ra bitartean jokatu da. Antolatzaileek, dena den, jakinarazi digute iaz bezala norgehiagokak asteburuan izango direla eta partiduak parte-hartzaile kopuruaren arabera antolatuko direla.

**OPARIA GUZTIENDAKO**

Sariak ere ez dira faltako frontenis txapelketan. Irabazleak txapela, kopa, botila bat ardo eta herriko Txalaparta tabernan afaria izango ditu; bigarrenak, kopa, bi txuleta eta botila bat ardo; hirugarrenak, kopa eta bi txuleta; eta laugarrenak, botila bat ardo. Hala ere, antolatzaileek azaldu dute parte-hartzaile guztiek jasoko dutela oparia.

**JENDARTEA** > AISIALDIA

## Biharko ardo dastatzerako txistorra erreko dute plazan

Ekimena 18:30ean hasiko da herriko plazan, eta zortzi ardo mota probatzeko aukera egongo da

**M.B.** > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak plan bikaina prestatu du bihar arratsalderako: 18:30ean IV. ardo dastatzea egingo dute, herriko plazan. Urtero bezala, ardo salmenta txartel bidez izango da. Aitzorrotzetik azaldu digute 5 euroren truke beste horrenbeste txartel emango dituztela: "Gero

norberak ikusiko du nola gastatu txartelak, urteko ardoak edo onduak edanez zein pintxoak janz".

Azken horren harira, gainera, aurreratu digute erretako txistorra dastatzeko aukera egongo dela. Udaletzeko arkupeetan ibiliko dira ardozaleendako 400 pintxo inguru gertatzen.

**URTEKOA, ONDUA ETA ZURIA**

Horretaz gain, plazan probatu ahal izango diren ardoak ere jakinarazi dizkigute. Urtekoei dagokienez, Ostatu, Ikasle, Eredun eta Larchago eskainiko dituzte; eta ardo onduen harira, Mazarredo, Larchago, Salabal eta Marques de Vitoria egongo dira aurretan. Ardo zuria ere ez da faltako: Blanco Nieva, hain justu ere.

Aitzorrotzekoek espero dute aurreko urteotako harrera ona izatea aurtengo dastatzeak.



Joan den urteko dastatzea.

AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA

KULTURA > ANTZERKIA

# 'Muy kontratura' antzezlana iritsiko da gaur gauean herrira

Esther Espartza aktoreak umorezko bost bakarrizketa kontatuko die gaur, 22:30ean, unibertsitateko areto nagusira joaten direnei

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Antzerkia dago gaur, egubakoitzaz, gauean Eskoriatzan. Esther Espartza aktore ezagunak *Muy kontratura* izeneko antzezlana komikoa aurkeztuko du unibertsitateko areto nagusian, 22:30ean. Kutzak sustatutako eta finantzatutako jardura hori ikusi ahal izateko sarrera debalde izango da.

Gaurko ikuskizun interesgarria umorezko bost bakarrizke-

taz osatuta dago. Bakarrizketa horiek urtetako ikerketa zientifikotatik daude oinarrituta, eta moralaren inguruan hausnarraraziko digute.

**ANTZEZLANAREN GAIAK**

Gizakien eta animalien arteko homosexualitateaz, hainbat zientzialari britainiarrek zikinkeria eta alaitasuna lotuz egindako ikerketaz, Australiako talde batek etorkizunean haurrak

gizartearen laguntzarik gabe jaio daitezkeela dioten teoriak eta beste zenbait gairen gainean arituko da Espartza gaur. Emanaldia espainolez izango da eta ordu eta laurden inguru iraungo du.

**ALVARO FERNANDEZ MUSIKARIA**

Aktore nafarra ez da bakarrik egongo taula gainean. Ondoan Alvaro Fernandez Gabiria musikaria izango du. Bakarrizketa bakoitzean musika-pieza bat joko du aho-soinuaz eta gitarraz.

Fernandez musikaria eta konpositorea Stay Blues taldeko liderra da. Gainera, hainbat film, dokumental eta film laburretako soinu-banda konposatu du; tartean, Aizpea Goenagak zuzendutako *Sukaldeko kontuak* filmaren musikaren egilea da.

**ESTHER ESPARTZA POLIFAZETIKOA**

Esther Espartza, berriz, arte dramatikoko irakasle polifazetikoa da, obra asko antzeztu eta zuzendu ditu eta telesailetan eta film luzeetan ere egin ditu aktore lanak. Irratian eta telebistan ere eskarmentua du.

JENDARTEA > OSASUNA

# Bularreko minbiziaz jardungo dute

Katxalin elkarteak gaixotasuna goiz detektatzeaz hitz egingo dute museoan, eguaztenean

hainbat udaletan 50 eta 69 urte bitarteko emakumei hitzaldi informatiboak eginez.

**ARRATE PLAZAOLA MEDIKUA**

Donostiako Institutu Onkologikoko Arrate Plazaola medikuak egingo du. Bularreko minbiziari lotutako hainbat gairen gaineko informazioa eskainiko die hara joaten direnei, hala nola zerk sortzen duen gaixotasuna, gaur egun dauden tratamenduak eta prebentzioa.

**GUTUNA EMAKUMEEI**

Gaiaren garrantziaz jabeturik, datozen egunotan Udalak gutuna bidaliko die 50 eta 69 urte bitarteko udalerriko emakume guztiei, Ibarraundin izango den hitzaldira joan daitezten.

M.B. > ESKORIATZA

Katxalin elkarteak, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarteak, hitzaldia egingo die eguaztenean, abenduak 2, emakume eskoriatzarrei. Hitzordua 18:00etan jarri-ta dago, Ibarraundi museoan.

Katxalin elkarteak Osakidetzarekin elkarlanean ari da *Bularreko minbizia goiz detektatzeko* programan, Gipuzkoako

## oharrak

UMEAK

**> Film emanaldia gaur Tortolis ludotekan, 18:00etan**

Gaur, egubakoitzaz, film emanaldia egongo da Tortolis ludotekan, 18:00etan. Ekintzan parte hartzeko, neska-mutikoez ez dute bazkide izan behar.

GAZTEAK

**> Gaztelekuko ekimenak**

Astero moduan, gaztelekuan ekimenak prestatzen dihardute datozen egunotarako. Bihar, zapatua, paint ball irterera egiteko asmoa dute eta domekan zinema egongo da, 18:00etan.

UMEAK

**> Sarrera pailazoak ikusteko**

Bihar Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen kirolegian aurkeztu behar duten ikuskizunaren harira, Udalak gogorarazi du ezin izango dela inor sarrera barik sartu, adina edozein delarik ere.

KIROLA

**> Asteburuko hitzorduak**

Kirol hitzorduak domekan izango dira aste bukaera hone-

tan. 10:30ean, Gazte Ligako areto-futbola egongo da kirolegian. Eskoriatzarrek Azeptikoen kontra jokatuko dute. 12:00etatik 14:00etara, berriz, Debagoieneko 1/18 rally game I. saria jokatuko dute pilotalekuan. Arratsaldean, 17:00etan, kirolegiak bigarren partidua hartuko du: Ohorezko Ligako areto-futbolearen, etxekoek eta Los Alkonen taldeak jokatuko dutena, hain justu ere.

UDALA

**> Bake epaitegia webgunean**

Herritarrek gertu dute bake epaitegiaren gaineko informazioa Udalaren webgunean. Besteak beste, epaitegiak eskaintzen dituen zerbitzuen eta tramiteen gaineko informazioa dago.

IRAKURMENA

**> Orri-puntu lehiaketa abian**

2010ean Udal Bibliotekan erabiliko den orri-puntua aukuratzeko lehiaketa deitu dute. Lanak bibliotekara eraman beharko dira abenduaren 14a baino lehen. Baldintzak ikusi nahi dituenak eskura dituen Udalaren webgunean.



JOSEBA GABILONDO

## Eingeinkeren bertso afarian aparteko giroa izan zen

Giro ederra egon zen Eingeinke mugimenduak joan den egubakoitzean egin zuen bertso afarian. 40 lagunetik gora bildu ziren. Bapo jan eta edan ostean, bertso saioa hasi zen. Askotariko bertso xelebreak bota zituzten Julen Zelaieta, Haritz Casabal eta Mantxi bertsolariek: Eskoriatzako txoko esanguratsu batzuen ingurukoak batzuk; bertso afarian egon zirenen harira beste batzuk. Eingeinke oso balorazio positiboa egin du. Horren harira, gogorarazi du hainbat eskoriatzar afarira joan barik geratu zirela, tokia txiki geratu zelako.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

## LITERATURA

Ikastaroa  
ipuinak  
aukeratzeko

I.A. &gt; ANTZUOLA

Durangoko azoka bertan denez, gurasoendako haur literaturari buruzko aholkuak emango ditu Galtzagorri elkarteko Imanol Mercero hitzaldi-ikastaro batean. Torresoroan egingo dute abenduaren 3an, 19:00etan, eta Haur Hezkuntzako umeak dituzten gurasoendako da.

Liburuak aukeratzeko irizpide orokorrak; gutxieneko kalitatea aztertzeko irizpideak; liburua irakurri aurretik gogoan hartu beharrekoak; eta ipuinen ezaugarriak emango dizkie lehenengo. Ondoren, argitaletxe bakoitzaren ale onenen berri emango die. Horrela, gurasoek umeendako ipuinak aukeratzeko oinarriak izango dituzte.

## PILOTA

Ligaxkako  
azkenak  
zapatuan

I.A. &gt; ANTZUOLA

Frontoi Txikiko Txapelketa ko ligaxkako azken partiduak zapatuan jokatu dira, 10:00etan hasita. Hori jokatu ostean erabakiko da zein pilotarik egingo duten aurrera. Talde bakoitzetik lehenengo laurak sailkatuko dira abenduaren 12an jokatu diren final-laurdenetarako.

Frontoi Txikiko  
Txapelketa

## 1. TALDEA

## Partiduak (azaroak 28)

Irimo - Ota	
Faran - Balerdi	
Mikel - Bargiela	
<b>Sailkapena</b>	
Irimo	18 puntu
Ota	14 puntu
Mikel	13 puntu
Faran	7 puntu
Bargiela	6 puntu
Balerdi	3 puntu
Patri	1 puntu

## 2. TALDEA

## Partiduak (azaroak 28)

Bidaurre - Torre	
Agirre - Jon Iturbe	
Aitzol - Zubi	
<b>Sailkapena</b>	
Zubi	15 puntu
Agirre	10 puntu
Aitzol	9 puntu
Jon Iturbe	9 puntu
Bidaurre	7 puntu
Torre	5 puntu
Endika	2 puntu

## AISIALDIA &gt; ERAKUSKETA

Argazki lehiaketako sari  
banaketa domekan

Guztira 71 lan aurkeztu dituzte lehiaketara eta Mari Paz Ugalde eta Juanje Amasorrain epaimahaikideek maila ona izan dela azpiratu nahi izan dute

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Joan den aste bukaeran XV. argazki lehiaketako lanen erakusketa izan zen Orlaranen eta aste bukaera honetan ere, 28an eta 29an, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era ikusgai izango dira lanak. Erakusketan ikusleek maila bakoitzeko argazkirik onena aukeratu ahal izango dute boto bidez. Sari banaketa domekan, 18:30ean, egingo dute eta orduan jakinaraziko dute ikusleendako argazki onenak zein izan diren.

GAZTETXOENAK, ONENAK

Epaimahaikoez jadanik aukeratu dituzte saridunak, hiru adin mailatan: lehen mailan, Ekain Larreak lortu du lehen saria *Udazkena* lanarekin eta Alazne Rodriguezek bigarren *Mihi luze* argazkiarekin; bigarrenen, *Loreen maitagarria* argazkiarekin Hira Mehmood izan da lehena eta Mikel

Hirugarren mailako lehen saria lortu du *Karteldegia gauean* lanak. MAIALEN ORMAZABAL

Lizarazu bigarren *Lagun taldia Aizkorri* lanarekin; hirugarren taldeko irabazlea Maialen Ormazabal izan da *Karteldegia gauean* argazkia aurkeztuta eta Ana Peñalba bigarren, *Moda*-rekin.

Epaimahaikoez nabarmendu dute lehen mailakoak adinez askoz txikiagoak izan arren, bigarren mailako argazkiak baino askoz hobekak direla, baina oro har maila oso ona izan dela.

&gt; JAIA

Independentzia Eguneko  
baba-janerako txartelak  
salgai ipini dituzte

Abenduaren 19ko Independentzia Egunean baba-jana gertatu dute gaztetxeok hainbat herritarren laguntzaz. Txartelak salgai ipini dituzte hamar euroren truke Mox, Larrea, Arin eta Surpe tabernetan, Itzar liburu-dendan eta gaztetxean abenduaren 13a bitartean. Independentzia Eguneko informazioa [www.380urtezindependentzia.tk](http://www.380urtezindependentzia.tk) webgunean ipiniko dute.

&gt; OHITURAK

Gaztaina-erre jana  
izango da domeka  
iluntzean plazan

Domekan, azaroaren 29an, Gaztaina-erre Eguna izango da. Plazan erreko dituzte gaztainak Jose Mari Iturbek, Salvador Peñak, Basili Ormazabalek, Tomas Bakaikoak eta Angel Jauregik eta 19:00etan hasiko dira banatzen. Guztira, 120 kilo gaztaina erreko dituzte eta 50 botila sagardo zabalteko asmoa dute. Umeendako, ura eta freskagarriak ere egongo dira aukeran.

&gt; KIROLAK

Eztalan jokatu dute  
Aretxabaletako aurka  
futbol partidua zapatuan

Amaikak Bat futbol taldearen aurka jokatu zuen asteburuan Deban Antzuolako talde nagusiak, eta Josu Zubikaraik sartutako gola ez zen nahikoa izan, 2-leko emaitzarekin amaitu baitzen norgehiagoka. Zapatuan, azaroaren 28an, Eztalan jokatu dute aretxabaletarren aurka, 16:00etan. Antzuolarrak 11. tokian daude sailkapenean 14 punturekin eta zortzigarrenean aretxabaletarrak 15ekin.

## bere ustez



Oier Peñagarikano

Saretik  
sarekadara  
alderik ba ote?

Azken asteotan, saretik sarera gabiltza. Bai, Somaliako arrantzaleen sareetatik gazteen aurka ko poliziaren sarekadara, hain zuzen ere.

Lehen ikuspegi batetik bi sare hauek ez dute inongo zerikusirik. Beno, egia esan, badute; biak ala biak baliatzen baititu Espainiako gobernua bere arrantzak erakusteko.

Kontua zera da; beti sare botatzen duena gobernua dela eta sarean harrapatuta geratzen dena, bere burua

"Sarean  
harrapatuta  
geratzen dena, bere  
burua itsaso  
ilunetik ateratzen  
saiatzen diren  
arrain txikiak"

itsaso ilunetik ateratzen saiatzen ari diren arrain txikiak direla.

Hori bai, beti arrainen errua izan ohi da sarean erortzea. Somalian, arraina dago-kion herriari kentzeko sare botatzen dutenak babesten ditu, eta hemen, berriz, estatuaren sare ebakitzen saiatzen diren gazteak are sare gogorrago batean sartzen ditu.

Hauxe paradoxa; nork esango luke gure lehendakari den Patxi Lopezek eta Moratinosek arrantza-aparailuak hartu eta arrantzari ekingo ziotela, epaileek, kostaldeko emakumeak bailiran, jositako sareekin?

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aulkien konponketa  
Tapizatu lanak  
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta  
Besaulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

**MUJIKA HARATEGIA**

**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak**

**Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34**

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

**Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak**

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

ONGIZATEA > BERDINTASUN PLANA

# Arduradunak pozik agertu dira herrian egindako bi bilerekin

Adituen esanetan, berdintasun kontuetan zaila bezain garrantzitsua da gazteengana iristea

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

"Berdintasun kontuetan trebakuntza falta handia dago. Ez dago genero ikuspegirik eta ulertzekoa da. Gauzak aldatzen ari dira, baina luzaro ez da eskoletan gaia landu". Ainara Ibañezen hitzak dira. Bideberri Mankomunitateak eskatutako Berdintasun Plana diseinatuko aholkularitza lanak egiten dihardu Elgetan, Antzuolan eta Leintz Gatzagan. Dio balio eta rol tradizionalak nagusi direla gure gizartean, eta gazteek rol horiek erreproduzitu egiten dituztela konturatu ere egin barik.

TRESNA BALIAGARRIA

Ondo landuz gero, Berdintasun Planak emaitza interesgarriak ekar ditzake. Udalarendako tresna baliagarria izan daiteke berdintasunaren bidean helburuak finkatzeko, eta zein ekintza konkretuekin lor daitezkeen definitzeko. "Ez dugu ahaztu behar epe luzerako proiektuak direla", esan du. "Pentsamoldeak aldatzeari buruz ari gara eta denok dakigu hori zenbat kostatzen den".

GAZTEENGANA IRISTEA HELBURU

Oraingoz, bi bilera egin dira Elgetan, eta hirugarrena abendu

erdialdean egitea aurreikusten dute. Pozik daude lortutako emaitzekin. "Prozesu parte-hartzailea aukeratu dugu, nahi dugulako herritarrek planaren berri izatea. Zaila da, batez ere, gazteak erakartzea. Elgetan udal ordezkariak eta langileak inplikazio maila bereziki ona erakutsi dute", adierazi du Ibañezek.

Planak eraginkorra izan nahi badu eragile askoren inplikazioa eskatuko du. Sentsibilizazio ekintzak, oso beharrezkoak diren trebakuntza ekintzak eta, kasuan kasu, araudiren baten moldaketa ere ekar dezake. Baina hori urrun dago oraindik. Elhuyar aholkularitzako Ainara Ibañezek uste du otsailera arte plana ez dela gertu egongo.



luz bezala, Lorea Larrañagak gidatuko ditu entseguak.

ARTXIBOA

JENDARTEA

## Aurten arraunlariei apustua eta guzti!

Bizikletan Uberatik nor aurrena igo jokatu die Alex Arantzabalek

L.Z. > ELGETA

Hondarribiko Ama Guadalupekoak jarraitzaile ugari ditu Elgetan. Zapatuan izango dira traineru berdeko arraunlariak gurean. Urteroko ongiatorria eta bazkaria eskainiko dizkiete herrian. Aurten, baina, izerdi apur bat bota beharko du baten batek mahaiaren bueltan eseri aurretik.

Desafioa Orioko jarraitzailea den Alex Arantzabal elgetarrak bota die. Baita hartu ere Hondarribikoek. Uberatik Elgetara bizikletan nor aurrena igo egin dute apustua. Ordua ere ipini dute: 10:30. Jokoa, pare bat hamarretako. Jakin dugu arraun elkarteak zuzendaritzako kide batek egingo duela apustua. Azken aldaketarik ez bada, beraz, Arantzabal ez da arraunlari baten kontra ariko. Jarraian, txikiteoan, pilotan eta boletan egin gura dute. Bazkaria atzeratu egingo da apur bat, ziur.

GABONAK > OLENTZERO

## Biharko deitu dute Gabon kantuak ikasteko lehen saioa

Abenduan beste bi saio egingo dituzte, guztiak kultura etxeko musika gelan

L.Z. > ELGETA

Hilabete eskas gelditzen da Olentzeroren etorrerarako, eta, urtero legez, Gabon kantuak prestatzeko saioak egingo dira.

Lehenengo entsegua bihar, zapatua, egingo dute, 11:30ean hasita, Lorea Larrañagaren gidaritzapean. Umeak, gazteak eta helduak elkarrekin kantuan egitera deitu dituzte antolatzaileek. Aurreratu dute aurten kantu zaharrak eta berriak prestatuko dituztela. "Estreinaldia abendua-

ren 23an egingo dugu", adierazi dute. "Herriko plazan izango da, Olentzero datorren egun berean". Biharko saioa ordu bete ingurukoa izango dela ere aurreratu dute. Hurrengoak abenduaren 12an eta 19an egingo dituzte, guztiak ere musika gelan, 11:30ean hasita.

KARATE ERAKUSTALDIA

Gabon kantuen entseguaren ondotik, bihar arratsalderako karate erakustaldia jarri digute aukeran. Bergarako Shotokan taldeko kideek hainbat ariketa egingo dituzte pilotalekuan, aurten herrian ikastaroa egiteko taldetxoak sortu dela aitzakia hartuta. 16:00etan hasi eta bi ordu inguruko erakustaldia egingo dutela adierazi dute.

Manolo Montiel > Argazkilari amateurra

## "Gipuzkoako herri guztiak ezagutzeko aitzakia polita izan da"

L. Z. > ELGETA

Gipuzkoa osoan barrena ibili da txakurrei argazkiak ateratzen. 1.000 kilometro eta 135 argazki egin ditu. Egindako lana, orain, Espaloian erakutsiko du abenduaren 1etik aurrera.

Zenbat herri ditu Gipuzkoak?

87, eta Donostiarekin 88. Ez nituen erdiak ezagutzen, eta askoren izenak guztiz ezezagunak zitzaizkidan.

Txakurrak eta argazkilari-tza. Zaletasunak dituzu?

Argazki-kamera berria erosi nuen, eta probatu egin nahi nuen. Mutriku nengoen eta lehenengo argazkiak txakur batzuei atera nizkien. Horrela otu zitzaidan Gipuzkoa osoan barrena txakurrei argazkiak ateratzeko ideia.


Zer ikusiko dugu Espaloian?

Herri bakoitzeko txakur bat ipiniko dut bere deitura, arraza eta herriaren izenarekin. Eta eskualdeka antolatuko ditut jendeak herriak koka ditzan.

Herri handietan eta txikietan izan zara. Txakur mota aldatu egiten da?

Bai. Herri handietan modako txakurrak dituzte. Baserrietan, berriz, artzain txakurraren ordez boder colliak ikusi ditut.

Nola erreazionatzen du txakur jabe batek ezezagun batek txakurrari argazkia ateratzeko baimena eskatzen dionean?



Manolo Montiel elgetarra.

L.Z.

"Zu zara txakurraren jabea?", honela galdetzen nuen. Gozatu egiten nuen, gainera. Jabeen lehenengo ustea zen, beti, txakurrak gaiztakeriaren bat egin zuela. Nire asmoen berri ematerakoan, ordea, aurpegiak aldatu egiten ziren. Batzuk harrituta, beste batzuk jakin-minarekin...

Eta txakurrek? Erraza da txakur bati argazkia egitea?

Egia esan, asko mugitzen dira, eta argazki asko atera behar izan ditut bat egokia lortu arte.

Hurrengo Bizkaia, ala?

Ez, oraingoz, jendeak erakusketari zein harrera egiten dion ikusi nahi dut. Herri gehienetan erakutsi nahiko nuke egindako lana. Ea horrela den.

### 4 t'erdiko pilota txapelketa

#### Atsedean gutxi zigortutako eskuendako

Txapelketa amaitzeko hilabete eskas gelditzen den honetan, burubelarri dihardute bikoteek.

Lau dira, oraingoz, partidurik galdutako ez dutenak. Hori mantentzen saiatuko dira aste bukaeran.

#### 40 URTETIK GORAKOAK

	J	I	G
1. Angel Ibarluzea - Alberto Telleria	5	5	0
2. Koldo Goenaga - Alex Arantzabal	6	4	2
3. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre	4	3	1
4. Asier Morales - Fernando Zenitagoia	5	3	2
5. Joseba Arbulu - Mikel Elkoro	6	3	3
6. Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu	4	2	2
7. Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga	5	2	3
8. Pello Larrea - Jesus Belamendia	5	0	5
9. Julio Calleja - Mikel Arkarazo	4	0	4

#### 40 URTETIK BEHERAKOAK

	J	I	G
<b>A ligaxka</b>			
1. David Peñalver - Txomin de Vega	3	3	0
2. Enrique Elkoro - Oier Billa	3	2	1
3. Oxel Erostarbe - Gorka Arizmendiarieta	3	2	1
4. Mikel Ormaetxea - Jon Irazabal	2	1	1
5. Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola	2	0	2
6. Gaizka Bolinaga - Igor Irazabal	3	0	3
<b>B ligaxka</b>			
1. Iban Retolaza - Jabier Larrañaga	3	3	0
2. Unai Alkorta - Etor Garate	3	3	0
3. Samu Gorrotxategi - Luis Atorrasagasti	4	2	2
4. Asier Osoro - Sergio Bouzas	3	1	2
5. Argoitz Arantzabal - Koldo Erostarbe	3	1	2
6. Gaizka Etxeberria - Satur Ramos	4	0	4



Lehiaketako argazki irabazlea.

JOSE ANGEL ISASI

## LEHIAKETA &gt; EGUTEGIA

## 'Anboto' argazkiak irabazi du aurtengo sari nagusia

Jasotako argazkiak 2010eko udal egutegia egiteko erabiliko dituzte

A.B. &gt; ARAMAIO

Aramaioko Udalak urtero antolatzen duen argazki lehiaketako irabazleen izenak jakinarazi ditu aste honetan. Guztira, bost sari banatu dituzte. Sari nagusia Jose Angel Isasik irabazi du (200 euro) *Anboto* argazkiarekin. Horrez gain, urtaro bakoitzeko argazki onenaren saria ere banatu dute: udazkeneko saria Mari Carmen Garridok irabazi du, udakoa Goiatz Burgik, negukoa Itsaso Lopez de Bergarak eta udaberrikoa Igor Aiastuik. Azken lau horiek 100 euroko saria jaso dute.

## 'ANBOTO'

Jose Angel Isasi lehiaketara aurkezten den lehenengo aldia da; argazkilaritzarako zaletasuna dauka eta argi zeukan lortu nahi zuena: "Anboto antzean azaldu ta argazki polita atera nahi nuen eta harizti horrekin topo egin nuen. Haritz amerikarrak dira eta udazkenean oso politak egoten dira", dio irabazleak.

DATUA

# 100

ARGAZKI

Lehiaketako arduradunak pozik daude aurtengo lortutako erantzunarekin. Sekula baino argazki gehiago aurkeztu dira.

## KULTURA &gt; IKUSKIZUNA

# Helduendako antzerki emanaldia kultura etxean

Bakardadeaz eta erokeriaz hitz egiten du Jabi Barandiaran aktoreak 'Pepino ustelak' lanean

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Jabi Barandiaranek formatu txikiko antzerkia du gustuko eta taberna eta areto txikietan egiten du lan. Oraingo honetan, Aramaio kultura etxera etorrriko da. Gaur, barikua, *Pepino ustelak hozkailuan* izeneko antzezlanaren eskainiko du, 19:30ean. Jabi Barandiaranek berak idatzi du antzezlanaren testua. *Pepino ustelak hozkailuan* lanak bakardadeaz eta erokeriaz hitz egiten du; hain justu ere, bakarrik ikusiko dugu Barandiaran taula gainean. Bere bizipenak eta bere istorioa kontatuko ditu, baina taula gainean ikusiko duguna emakume bat izango da, etxeko zapatilak eta bata jantzita dituena eta aulki batera lotuta dagoena. Esperanza da bere izena, Esperanza Pino Saa. Bada, hortik dator antzezlanaren izena; Espera *esperino* deitzen zioten txikitari.

Esan bezala, antzezlanaren protagonista aulki batera lotu-

ta topatuko dugu. Polizia batek lotu du eta publikoari bakarrik ez, poliziari ere kontatuko dizkio burutapen eta erokeria guztiak.

Besteak beste, barre algarak eragitea du helburu Esperanzak: "Nire bizitzako kontuak kontatzen ditut eta barregarriak iruditzen zaizkit. Azken finean, barre eginarazten ez dizunak hil egiten zaitu. Barreak bizitza salbatzen dit", dio aktoreak.

Zalantza barik, antzezlanaren protagonistaren berezitasunak eta erokeriak barreak eragingo ditu Aramaio kultura etxean ere.



Jabi Barandiaran aktorea, antzezlanaren momentu batean.

JB PEDRADAS

## &gt; INGURUMENA

## Birziklatutako materialez egindako jostailuen lehiaketa

Gorbeia Ingurumen Partzuergoak lehiaketa polita antolatu du aurtengo eta aramaiorrek parte hartzeko aukera izango dute; jostailuen lehiaketa da, baina horiek ezaugarri berezi bat izan beharko dute: guztiek birziklatutako materialez eginda egon beharko dute. Lehiaketaren helburuak dira ingurumenari errespetua adieraztea eta kontsumo arduratsua bultzatzea. Bada, interesa dutenek abenduaren 15 baino lehen aurkeztu behar dituzte lanak.

## KULTURA &gt; BERTSO TXAPELKETA

## Bertxoko sariketaren finala Aramaion abenduaren 4an

Bertsozaleek hitzordu polita daukate datorren barikuan Iturrieta sagardotegian

A.B. &gt; ARAMAIO

Abenduaren 4an, barikuan, Bertxoko sariketaren finala jokatu da Aramaio Iturrieta sagardotegian, 20:30ean hasita. Afaria joan nahi dutenek abenduaren 2a baino lehen eman behar dute

izena. Horretarako, 945 01 05 05 telefono zenbakira dei dezakete edo [araba@bertsozale.com](mailto:araba@bertsozale.com) helbidera mezu bat bidali.

Aramaiorrek ez da egongo aurtengo finalean; Xabier Igoa eta Iker Agirre kanpoan gertu dira. Gai-jartzaile lanetan, ordea, bai, aramaior bat topatuko dugu: Manex Agirre. Hark ipiniko ditu lanean Ander Solozabal, Jokin Labaien, Mikel Artola, Iñaki Viñaspre, Jone Uria eta Enaitz Alustitza bertsolariak.

## UDALA &gt; KOMUNIKAZIOA

## Udal Zabalkunderako Sare Lokalak 51 erabiltzaile ditu

A.B. &gt; ARAMAIO

Herritarrei Udaleko informazioaren edo deialdien berri emateko Udal Zabalkunderako Sare Lokala ipini zuen abian Aramaio Udalak irailaren amaieran; erabiltzaileek e-posta bidez jasotzen dute Udalak bidalitako informazioa.

Proiektuaren arduradunak pozik daude sareak izandako erantzunarekin. Dagoeneko 51 erabiltzaile lortu dituzte eta kopurua handitzea espero dute.

Aramaiorrek edozein momentutan batu daitezke sarera; horretarako, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaria. Orri bat bete beharko dute; bertan, norberaren datuak, posta elektronikoa eta informazioa bidaltzeko baimena eman beharko dira.

Udalaren asmoa da herriko elkarte eta taldeei ere sare erabiltzeko aukera ematea euren egitasmo eta ekitaldien berri emateko.





San Milixan egunean gatz museoan egindako bisita gidatua.

M.A.

TURISMOA > GATZ MUSEOA

## Berogailua jarri dute eta baimenaren zain daude

Neguko ordutegia daukate gatz museoan: zapatuetan bi bisita gidatu eta domeketan beste bi

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Neguko bisitak gozoagoak izateko asmoarekin, berogailua jarri dute gatz museoan. Gas-depositua jarri du bertan Repsolek eta instalakuntza guztia eginda dago. Baimenaren zain daude orain, martxan jartzeko.

Bestalde, museoan neguko ordutegia daukate. Bisita gidatuak zapatu eta domeketan bakarrik egiten dituzte: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan espainolez.

Aste barruan taldeak bakarrik hartuko dituzte eta hitzordua aurrez eginda izan behar dute.

Gatz museoako arduradun Aitziber Gorosabelek dio ikaste-txeetatik datozen neska-mutikoen bisitek behera egin dutela azken hilabeteen baina erretiratuena igo egin direla: "Museoaz gain, Dorletako santutegia, herria, Jakion enpresa eta beste hainbat txoko ikusten dituzte horiek". San Milixan eguneko

bisita kopuruarekin oso pozik dago Gorosabel: "Beste San Milixan jai batzuetan baino askoz gehiago hurreratu dira museora".

MUSEOA INDARTU BEHARRA

Ekainean hartu zuen Gorosabelek, berak bakarrik, Labidea dandaren, turismo bulegoaren eta gatz museoaren ardura. Dendan berrikuntza batzuk egin ditu, eta pozik dago herritarrek izan duten erantzunarekin. Gatz museoari dagokionez, ostera, "beste aire bat" behar duela uste du: "Museoa indartu egin beharra dago, baina poliki-poliki etorriko da".

### argazki zaharra

## 'Gatzarra' txirrindulari bikaina

Gatzagak harreman estua du txirrindularitzarekin eta txirrindulari bikainak izan ditu. Horietako bat Hilario Arana Beitia *Gatzarra* izan zen (1911-1936), adituen esanetan txirrindularitzarako dohain bikainak zituena -argazkian, Orbea kamisetarekin-. Diotenez, patata zakua aldean hartuta ibiltzen zen bizikletan. Baina gerra iritsi zenean, Debagoieneko beste hainbat herritarrekin batera Oiartzunera eroan eta fusilatu egin zuten.

Argazkia: 'Txirrindularitza...' liburuxka.  
Testua: GOIENKARIA.  
Urtea: 1932.



ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Azaroko zozketa

Sariak irabazteko

**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

ANTZERKIRAKO SARRERAK



Bidali AG ESPALOA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



SASKIBALOI PARTIDURAKO SARRERAK



Bidali AG BASKET  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA



Bidali AG ZIRA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

### IRAILA-ABENDUA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



Amillaga 32 • 943 76 59 60  
(auto garbigailu ondoan)

- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

ATLETISMOA &gt; DONOSTIAKO MARATOIA

# Ibarreko 105 atleta Donostiako maratoiko irteera puntuan

Domekan egingo duten Donostiako maratoian 3.000 lagun pasatxok hartuko dute esku, eta tartean egongo dira Debagoieneko 105 atleta

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Behobia-Donostia proban gertatu zen moduan, badirudi asteburuan eguraldiak ez duela batere lagunduko. Euskalmetek txarra eman du domekarako, nahiz eta Arrasate Irratian eguraldi iragarpenak egiten dituen Joxe Landak aurreratu duen domeka goizean ateri eutsiko diola. Andoni Aizpuru ere irteera puntuan egongo da domekan, baina ETBko aurkezlea ez zen ausartu atzo, egue-na, domekan egingo duen eguraldiaren gainean berba egitera.

Eguraldiaren aurrean, baina, Antxintxiketan atletismo taldeko kideak ez dira kikildu: "Nik nahiago dut beroa baino euria egitea, Behobian egin zuen moduan", adierazi zuen Iker Larreak. Baina ez da gauza bera ordu eta erdiko lasterketa egitea, edota hiru ordu bustita ibiltzea", gaineratu zuen Aratz Losadak. Oñatikoak



Eduardo Moreno eta Xabier Uribesalgo bergararrak joan den urteko Donostiako maratoian.

GOIENKARIA

DATUA

# 36

OÑATIAK

Oñati da maratoira korrikalari gehien eramango dituen herria, baina Bergara ez da atzean geratzen, 34 mahonero izango dira-eta irteera puntuan.

ez du arrazoirik falta, eta gainera, euriak baino haizeak kalte handiagoa egin dezake, batez ere Kontxako tartean.

BERGARAKOAK ETA OÑATIKOAK

Domekan 09:00etan hasiko dute 42 kilometroko lasterketa. Puntako atleten artean Rafa Iglesias eta Maria Jose Pueyo daude, aurtengo Behobiako irabazleak. Euren helburu nagusia Bartzelo-

nan egingo duten Europako Txapelketarako sailkatzeko gutxieneko markak lortzea izango da. Aurrean izango dituzte puntako atleta afrikarrak: Beraki Mehari, Seboda Dibaba; eta Kebede Weyna, emakumezkoetan.

Astelehenean, GOIENAKO medioek zabal landuko dute maratoia, *Asteleheneko Goienkaria-n*, *Goiena.net* atarian eta GOITBko *Harmailatik* saioan.

KONTUAN HARTZEKO

## Antxintxiketan atletismo taldea, geroago eta herrikoia

Joan den martitzenean aurkeztu zuen Antxintxiketan atletismo taldeak aurtengo denboraldian izango dituen asmoak. Hasteko, taldea handitzen dabil -dagoeneko 23 atleta daude taldean-, eta Asier Osinagak azpimarratu zuen taldea bera geroago eta herrikoia dela: "Gure helburua ere bada federazioak antolatzen dituen lasterketetan parte hartzea, eta baditugu atleta federatu batzuk. Alde horretatik, aurtengo lortu dugu talde moduan proba batean puntuak batzea, eta guretarako hori garrantzitsua izan da. Baina bestalde, taldearen helburua beti izan da atletismoa herritarrengana gerturatzea, jendea kirola egitera animatzea, eta bai, gutako askok lasterketa herrikoia aukeratzen ditugu gehiago".

MARATOIAN SEI LAGUN

Domekako hitzorduaren gainean ere egin zuten berba martitzeneko prentsaurrekoan. Izan ere, taldeak sei ordezkari izango ditu Donostiako maratoian, Oñatiko, Bergarako eta Antzuolako atletak: Arkaitz Ruiz de Loizaga, Aratz Losada, Iker Larrea, Asier Ollasagasti, Asier Urdanpilleta eta Asier Osinaga. Amaia Bernalek ere buruan zuen maratoia, baina azken orduko



Antxintxiketan taldeko kideak, martitzeneko aurkezpenean.

X.U.

lesio batengatik datorren urterako utzi beharko du erronka hori.

HIRU PROBA EGINGO DITUZTE

Denboraldi berriari begira, Antxintxiketan taldeak hiru proba antolatuko ditu. Amaia Bernalek eman zituen hiru proba horien gaineko xehetasunak: "Hiru proba horietako bi herrikoia izango dira, San Silbestre (abenduak 31n) eta Torreuzoko krosa (ekainaren 27an). Federatu mailako lasterketa, berriz,

esanguratsua delako, jendea presaka ibiltzen delako, kontua da autoekin arazoak izan ditugula behin baino gehiagotan, eta hori saihesteko ibilbidea kale aldera ekarri nahi dugu. Hala, Olara-San Lorentzoko tartea eta Errekaldeko aldapak kendu egin ditugu".

Aldaketa horrekin ibilbidea erabat laua izango da. "Gabonetan gaudela kontuan hartuta, jendeak eskertu egingo du hori". Bi itzuli egin beharrean hiru egingo dituzte, baina distantzia antzerakoa da: 8.250 metro.

KIROLDEGIA

## Kirol Txartela geroago eta gertuago

X.U. &gt; ARRASATE

Astelehenean, Bazar Nagusietako talde guztiek erakutsi zuten Gipuzkoan Kirol Txartela ezartzearen aldeko jarrera. Ekimen horren asmoa da kiroldegi bateko bazkideek Gipuzkoa osoko kiroldegietara sartzeko aukera izatea, txartel bakarrarekin, eta horretarako baimena emango duen plusa ordainduta.

Asmoa da Kirol Txartela 2011ko urtarrilaren leian abian jartzea; horrenbestez, 13 hilabete dituzte aurretik sistema hori lantzeko. Inñaki Galdosek aurreratu zuen 250.000 euroko aurrekontua gordeta dagoela Kirol Txartela martxan jartzeko.

&gt; AUTOMODELISMOA

## Debagoieneko '1/18 rally game' saria egingo dute domekan

Irrati uhin bidezko autoen lasterketa antolatuko du Dospistones taldeak domekarako, Eskoriatzako pilotalekuan.

Lasterketa 11:00etan hasiko dute, eta 1/18 eskalako autoekin lehiatu ahal izango da. Izenematea egunean bertan, edota [www.clubrcdospistones.com](http://www.clubrcdospistones.com) webgunean.

&gt; FUTBOLA

## Aloña Mendiko eta Arizmendiko neskek derbia jokatu dute

Emakumezkoen ligan Aloña Mendiko neskek Arizmendikoekin bisita izango dute zapatu arratsaldean Azkoagainen (16:30). Bergarako neskek, berriz, Debako Amaiak Bat taldea hartuko dute domekan Ipintzan (17:30). Azkenik, lider dagoen Mondrak deskantsua izango du.

&gt; PILOTA

## Ozkarbi hirugarren postuagatik lehiatuko da gaur, 19:30ean

Eskuz binakako seniorretako ohorezko mailan Elgetako pilotariak ezin izan dira finalerako sailkatu. Eta, hirugarren postuagatik lehiatuko dira, gaur Elgetan.

Ozkarbiko pilotariak Herrikoak izango dituzte aurrean. Finala, berriz, Aurrera Saias taldeko lau pilotarik jokatu dute.

# Aurrera egin



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



**ADEGI**



CAMARA DE GIPUZKOA  
CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA  
KAMERAREN BAZKUNDEA



MONDRAGON



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



**gipuzkoa aurrera**

**Aurrera egin, elkarrekin.**

**Gipuzkoa Aurrera** aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,  
indarrak eta ahaleginak batuz.

**Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.**



Imanol, Baskoniaren kontrako partiduan, ondoan Aitor Fernandez atezain arrasatearra duela.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA &gt; HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

# Elgoibarrek hirugarrena nahi du Aretxabaletan

Gordobilen mutilek etxetik kanpora bi partidu irabazi dituen Elgoibar hartuko dute domekan

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Elgoibarrek urteak daramatza hirugarren mailan, eta aurrekontu aldetik *play off*-engatik lehian ibiltzeko taldea ez bada ere, azken urteotan, aurreikusitako baino hobeto ibili dira. Aurten ere Jagoba Arrasateren mutilek ondo hasi dute denboraldia, eta 23 puntu batuta, seigarren daude sailkapenean. Hala, UDAko jokala-

ri Kerman Azkarragak orain arte taldekide izan dituen jokalaria izango ditu aurrean, nahiz eta Arrasatekoak oraindik min hartuta jarraitzen duen.

Aretxabaletak, berriz, Gabonetarako hila bate baten faltan azken esprinta egin nahi du, eta lehenengo itzuliko balorazioa egin aurretik -lau jardunaldi geratzen dira- azken puntu poltsa batu.

## BERGARA ETA ALOÑA, ETXEAN

Joan den astean aurten larri ibili behar den Beti Gazteri 0-2 irabazita, Bergarak (17) sailkapenaren erdian dagoen Tolosa (15) hartuko du bihar Agorrosinen (15:30). Jardunaldi beste puntu dituen Aloña Mendik (11) ere etxean jokatuko du, domekan 16:30ean, Hondarribiaren (15) kontra.

Eta, joan den astean etxean golik egin gabe berdindu eta gero, Mondrak sailkapenean apur bat beherago dagoen Euskaldunaren zelaian jokatuko du bihar (16:00).



Iker eta Eneko, MUn egindako berbaldian.

JULEN IRIONDO

Peak proiektua ere esku artean zuten. Iaz bete zituzten zazpi ametsak, uste baino garrantzi handiagoa duten zazpi erronkak.

## ORBAYU, ASTURIASEN

7 paretara 7 kontinente lana amaituta, baina, Pou anaiak ez dira geldituz. Hala, aurtengo erronka nagusia Picu Urriellura (Asturias) itzultzea izan da.

Itzultzea diogu, 7 paretara 7 kontinente proiektuko bigarren erronka han egin zutelako, Zumbeltz izeneko bidea igota (500 metro, 8b+ zailtasuna, igoera askea). Udan, berriz, Pou anaiak beste erronka eder bati heldu zioten, eta baita egin ere, Orbayu igota (500 metro, 8c+/9a zailtasuna): "Gure bizitzako eskalada saio garrantzitsuena izan da hori. Orbayuk dagoeneko badu igoera bat, zuzen guztiak lehenengo saiakeran igota, estilo librean, eta zortzi orduko lanaren ondoren. Bi hilabete oso gogor izan dira, fisikoki eta mentalki zorrotzak". Bidea igo izanak sekulako zailtasuna zuen, baina are eta garrantzi handiagoa eman diote hortik igotzea posible zela pentsatzeari, bidea topatzeari, bidea asmatzeari.

ESKALADA &gt; POU ANAIK

# Orbayu igotzen bete dute zortzigarren ametsa

Gasteizko anaiak '7 paretara 7 kontinente' lana erakutsi zuten martitzenean MUn

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Pou anaiak bigarren urtez jarraian izan dira MUn, 7 paretara 7 kontinente lana erakusten.

Iaz seigarren erronkaren gainean egin zuten berba, Fitz Roy (Patagonia) igo zutenekoa, eta ordurako Antardidako Zerua

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

#### Bigarren maila

Rayo Vallecano-Reala Domeka. 12:00. Madrid.

#### Hirugarren maila

Aretxabaleta-Elgoibar Domeka. 16:30. Ibarra.

#### Gazteen liga nazionala

Ariznabarra-Aretxabaleta Domeka. 11:45. Gasteiz.

#### Gazteen euskal liga

Abetxuko-Bergara Zapatua. 16:00. Ametsa.

#### Ohorezko erregionala maila

Bergara-Tolosa Zapatua. 15:30. Agorrosin.  
Aloña Mendi-Hondarribia Domeka. 16:30. Azkoagain.  
Euskalduna-Mondra Zapatua. 16:00. Andoain.

#### Erregional preferentea

Antzuola-Aretxabaleta Zapatua. 16:00. Estala.

#### Lehen erregionala

Mondra-UDA Arizmendi Zapatua. 18:00. Mojategi.

#### Gazteen ohorezko maila

Union Txiki-Mondra Zapatua. 19:00. Errenteria.  
Hondarribia-Aloña Mendi Zapatua. 16:00. Azkoagain.

#### Gazteen lehen maila

Aretxaba. B Ariz.-Urki Domeka. 16:30. Ibarra.  
Amaikak Bat-Bergara B Zapatua. 16:30. Deba.  
Arizmendi-Soraluce Zapatua. 15:30. Estala.

#### Ohorezko kadeteak

Zumaia-Aretx. Arizmendi Zapatua. 18:30. Zumaia.  
Ordizia-Bergara Zapatua. 10:00. Ordizia.  
Aloña Mendi-Urola Zapatua. 11:15. Azkoagain.

#### Lehenengo kadeteak

Aretxabaleta-Arizmendi Zapatua. 11:00. Ibarra.  
Bergara-Aloña Mendi Domeka. 10:00. Ipintza.  
Arrasate-Eibartarrak Zapatua. 16:00. Mojategi.

#### Infantilak, txapeladunen f.

Arrasate-Hernani Zapatua. 12:00. Mojategi.  
Aretx. Arizmendi-Touring Domeka. 11:00. Ibarra.

#### Infantilen ohorezko kopa

Urola-Aloña Mendi Zapatua. 10:00. Zumarraga.  
Bergara-Aurrera de Ondarro. Domeka. 15:30. Ipintza.

#### Infantilak, partaidetza

Eibartarrak-LEK Zapatua. 15:00. Berriatua.

#### Infantil txikiak, txapeld.

Añorga-Arrasate Domeka. 15:30. Donostia.

#### Infantil txiki kopu

Ordizia-Aretxabaleta B Domeka. 10:00. Ordizia.

Bergara-Hondarribia Domeka. 11:45. Ipintza.

#### Emakumezkoen liga

Aloña-Arizmendi Zapatua. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Amaikak Bat Domeka. 17:30. Ipintza.

#### Emakumezkoak F11, kad.

Eibar-Mondra Domeka. 15:30. Unbe.

#### Emakumezkoen F8, kadet.

Ilintxa-Aloña Mendi Domeka. 12:00. Bikuña.  
Bergara-Amaikak Bat Zapatua. 11:30. Ipintza

### SASKIBALOA

#### Lehenengo maila

La Salle-MU Zapatua. 18:20. Deustua.

#### Senior autonomikoa

Aloña Mendi-Const. Valpo Zapatua. 18:30. Zubikoa.

#### Gipuzkoako seniorrak

Soraluce BKE-Krafft SS Zapatua. 16:00. Bergara.  
MU-Soraluce BKE B Zapatua. 16:00. Musakola.  
Aloña Mendi-Ruibal Zapatua. 16:00. Zubikoa.

#### Senior emakumezkoak

Bareak-Eskoriatza Zapatua. 18:30. Beasain.

#### Gazte emakumezkoak

Donosti Basket-Eskoriatza Zapatua. 18:00. Donostia.

#### Gazte gizezko. errendim.

Gros Xake-MU A Zapatua. 20:00. Donostia.

#### Gazte gizezko. partaid.

Aloña Mendi-Carnicas S. M Zapatua. 11:45. Zubikoa.  
MU B-Krafft SS. Domeka. 11:45. Musakola.  
Soraluce BKE-CD Internaci. Zapatua. 12:15. Labegaraite.

#### Gazte emakum. partaidet.

Aloña Mendi-Eskoriatza Zapatua. 11:45. Zubikoa.  
Arizmendi Eskoriatza-Goierri Zapatua. 10:00. Eskoriatza.  
Kadete gizezko. partaid. Aloña Mendi-Bide Bide Zapatua. 11:45. Zubikoa.  
MU B-Zarautz Domeka. 09:45. Musakola.  
Soraluce BKE-EPI Kristalde. Domeka. 10:30. Bergara

### ESKUBALOA

#### Euskadiko seniorrak, giz.

El Pilar-Ford Mugarri Arra. Zapatua. 17:30. Gasteiz.

#### Euskadiko senior, emak.

Verkol Aloña-Askartza Zapatua. 16:30. Zubikoa.

#### Euskadiko gazteak, emak.

Kukullaga-Verkol Aloña Zapatua. 18:00. Etxebarri.

#### Euskadiko kadeteak, ema.

Kukullaga-Verkol A Zapatua. 16:30. Etxebarri.

### Lehen territorial maila

Soraluce BKE-Egia reloj. Zapatua. 19:30. Labegar.  
Izarraitz Aloña-Elgoibar Domeka. 12:00. Zubikoa.

### Bigarren territoriala

BKL Iñauti-Arrasate Domeka. 11:15. Beasain.

### Gazte mailako gizezko

Irungo gaztiak-Aloña Mend Zapatua. 17:30. Irun.

Bergara Soraluce-Elgoibar Zapatua. 18:00. Labegaraite.

### Gazte mailako emakumez.

Amenabar-Talleres Chapime Zapatua. 10:45. Zarautz.

### Kadete mailako gizezko

Amenabar-Talleres Chapime Zapatua. 10:45. Zarautz.

Tolosa-Bereazoa Aloña Mendi Zapatua. 12:00. Tolosa.

### Kadete mailako emak.

Zalla Tab.-Bergara Soraluce Domeka. 10:30. Zumaia.

Verkol Aloña-Leizaran Zapatua. 18:00. Zubikoa

### ARETO FUTBOLA

#### Euskal Liga

Iralabarri-Eskoriatza Zapatua. 16:15. Bilbo.

#### Gipuzkoako bigarren maila

Donibane-UDA Orly Gaur. 20:30. Donibane.

### ERRUGBIA

#### Senior gizezkoak

Arrasate Kanpan.-Gernika Zapatua. 16:00. Mojategi.

#### Beteranoak

Aurten hil den Juan Luis Aranaren omenezko torneo Zapatua. 17:30. Mojategi.

#### Senior emakumezkoak

La Unica-Arrasate/Durango Zapatua. 16:30. Iruñea.

#### Gazteak

Ordizia-Arrasate/Durango Zapatua. 16:00. Altamira.

### IGERIKETA

#### Neguko errendimendu txapelketa

Zapatua. 16:00. Agorrosin.

### PILOTA

#### Eskoriatzan

Egubakoitza. 19:30. Eskoriatza-Arrasateko2 Zapatua. 16:00. Eskoriatza2-Bergara3 Eskoriatza3-Arrasate Eskoriatza-Bergara2

#### Aretxabaletan

Egubakoitza. 19:30. Aretxabaleta-Aurrera Saiaz Aretxabaleta-Eple

#### Arrasaten

Egubakoitza. 21:30. Arrasateko-Ilunpe

#### Bergaran

Zapatua. 16:30. Euskal Jolas1-Bergara3 Euskal Jolas4-Eibar Azkoitiko2-Bergara2



Arrasate-Kanpanzar taldeak Gernika hartuko du

Aurreko postuetan dabilen Gernikaren bisita izango dute Igor Isasiren mutilek bihar arratsaldean Mojategin (16:00).



> **DES-KONTROL**  
Arrasatearrek lan berria aurkeztuko dute Durangoko azokan > 46



> **ELKARRIZKETA**  
'Haizea Garizumakoa', Ruperren disko berria > 47

> **IBANE BASETA**  
Irakasle ikasketak egiten dihardu. Horrez gain, dantza soltea erakusten die umeei. Euskal Herriko dantza txapelketa irabazi zuen 2004an > 50



## Arrasateko Gaiteroak, '30 urte Erdiko Kaletik'

**URTEURRENA** 30 urteotako ibilbidea jasotzen duen DVDa eta diskoa aurkeztuko dute bihar

**LANEAN** Arrasatearrek urte eta erdi eman dute DVD eta CDaren grabazioaren proiektuarekin

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Gaztetan Lizarrako jaietara joan eta hango gaitero taldearekin liluratuta bueltatu zen Arrasatera Esteban Dolara. Haren moduko talde bat Arrasaten sortzeko lanean hasi zen berehala. Enrike anaiarekin batera gaita eskolak hartzen hasi zen Iruñean eta handik bizpahiru urtera Arrasateko Gaiteroak taldea sortu zuten. Gipuzkoan gaitero talde betaranoetako dugu Arrasatekoa. Nafarroan tradizio handiagoa dute; arrasatearrek batera, Tuterako taldeak, esaterako, 30 urte betetzen ditu aurten. Nafarroa eta Gipuzkoako txoko gehienetan jo izan dute arrasatearrek. Dagoeneko 30 urte bete dira jotzen hasi zirenetik eta hori ospatze-

ko 30 urte *Erdiko Kaletik* izenburuko CD eta DVDa aurkeztuko dute bihar, zapatua.

Dolara anaiekin batera, Eduardo Abarrategi eta Iñaki Barrena gaita joleek eta Igor Gonzalez perkusio joleak osatzen dute taldea gaur. Diskoan parte hartu duten Jon Elozegi eta Cristina Grela perkusio irakasle gasteiztarren laguntza izaten dute sarritan. Urtean zehar 50 emanaldi inguru egiten dituzte arrasatearrek: herriko eta auzoko jaietan, San Ferminetan, Gasteizko jaietan eta beste hainbat jai eta ekitalditan.

**HAMABOST KANTU**

Diskoa eta DVDaren ideia orain dela urte eta erdi sortu zen eta ordutik buru belarri jardun dute proiektuan. Gustura daude emaitzarekin; "Luzea izan da proiektua eta kolaboratu duten denei eta gure familiei eskerrak emateko beharrea gaude". CDak 15 abesti ditu, pieza ezagunak eta ez hain ezagunak tartean. *Ziorla* da kantu berezietako bat, ondo baino hobeto hartu izan dituztelako urtero hango jaietan. Shot! estudioan, Aita Menniko aretoan eta Altsasun egin dituzte grabazioak.



Diskoaren azala.

### Zapatuko aurkezpenera 200 musikari inguru gonbidatu dituzte arrasatearrek

Arteman enpresak egin du 30 urteko ibilbidea jasotzen duen DVDa eta hamaika lagun adierazpenak jaso dituzte bertan. Besteak beste, Errementari dantza, Larrain dantza eta Txerri dantza zein diskoaren grabazioa ikus daitezke. 200 musikari inguruk hartu dute parte eta gehienak biharko aurkezpenera izango dira. Iruñeko gaiteroek eta Otsagiko dantzariak kalejira egingo dute Portaloitik plazara eta plazan nafarren dantza saioa izango da. Jarraian, aurkezpenera egingo dute Kulturaten. Ino Galparsoro alkatea eta Haritz Solupe Diputazioko kultura zuzendari arrasatearra izango dira hantxe. Gaita doinuak protagonista izango dira. Seber Altube eta abarrei primeran hartu diete lekukoa gaita joleek.



Eduardo Abarrategi, Esteban eta Enrike Dolara anaiak, Iñaki Barrena eta Igor Gonzalez.

MUSIKA &gt; DISKOA

# Arrasateko Des-kontrol taldeak lan berria aurkeztuko du Durangoko azokan

'Aurrera begira' izeneko diskoan 13 kantu grabatu dituzte; horietako bat Puñetazo taldearen 'Maritxu' kantuen bertsioa da

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Arrasateko Des-kontrol taldeak *Aurrera begira* izeneko disko berria kaleratu du, taldearen zazpigarrena. Buru-belarri dihardute kontzertuak lotzeko lanetan, baina badakite diskoaren aurkezpena Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren barruan egingo dutela abenduaren 5ean, Plateruena antzokian, 22:30ean. Aurreratu dute abenduaren 26an zuzeneko egingo dutela Arrasateko Hiru aretoan.

PUÑETAZOREN BERTSIOA

Diskoa uztailean, irailean eta urrian grabatu zuten Katarain estudioan (Azkarate, Nafarroa) Haritz Harreguy soinu teknikariaren eskutik. Guztira, 13 kantu grabatu dituzte: 11 euskaraz, bat ingelesez eta bestea espainolez. Gainera, kantuetako bat Puñetazo taldearen *Maritxu*-ren bertsioa da. "Aspaldi genuen kantu horren bertsioa egiteko gogoia. Alde batetik, Puñetazok utzitako oinorde-tza delako; eta, beste alde batetik, Arrasaterekin zerikusituzena duen kantua delako", esan digu taldeko kide Markel Urrutiak.



Des-kontrol taldeko kideak: Oier, Hodei eta Peter eserita; eta Pepin, Nako eta Markel zutik.

GOIENKARIA



Diskoaren azala.

GOIENKARIA

TALDEAREN BILAKAERA

*Aurrera begira* izenburua jarri diote diskoari "bizirik" daudela erakusteko. "Atzean daukagunaz harro sentitzen gara, baina bizirik gaudelako gaude aurrera begira, eta guk dugun hitz egiteko modua musika egitea da", esan digute. Zazpi diskoren ondoren, azken horretan taldearen bilakera antzeman daitekela esan dute:

"Musika indartsua egin dugu, eta bilakaera izan dugula ikus daiteke. Kantuak, orain arte bezala, modu zuzenean idatzi ditugu".

Diskoa erosten duenak street-punkaz eta punk-rockaz gozatu ahaliko du, baina ez zaizkie etiketak gustatzen: "Konparaketak egitea ezinbestekoa da, baina ez zaigu gustatzen. Nahiago dugu entzule bakoitzak bere etiketa ipintzea".

## Zortzi kontzertu Hiru aretoan

Abuztu bukaeran zabaldu zuten Hiru aretoa Arrasaten. Des-kontrol taldeko kideek dute aretoaren ardura, eta oso pozik daude hilabete hauetako ibilbidearekin. "Hiru hilabete pasa dira areto eraberritua zabaldu genuenetik, eta gustura gaude erantzunarekin", esan digu Markel Urrutiak.

Datozen bi hilabetetarako kontzertu zerrenda lotuta dute dagoeneko. Keu Agirretxe eta Sorkun, abenduaren 19an; Bacon Maiden eta "talde sorpresa", abenduaren 25ean; Des-kontrol eta "talde sorpresa", abenduaren 26an; Raimundo Amador, urtarrilaren 15ean; The Casualites eta "talde sorpresa", urtarrilaren 24an; Anti Nowhere League eta "talde sorpresa", urtarrilaren 29an; eta Sound of silence eta Vicepresidentes, urtarrilaren 30ean.

Kontzertu guztietarako sarrerak alde aurretik eta leihatilan jarriko dituzte salgai prezio ezberdinetan.

DISKOA

Des-kontrol 1996. urtean sortu zen. Hiru urte geroago, 1999an, taldearen izen bereko lehen maketa kaleratu zuten. Ondoren, *Jarraituko dugu* (2001); *Behin eta berriro* (2002); *Des-kontrol+Heel beer boys* (2004); *Duintasunez eutsi* (2006); *10 urte* (2007); *Hipokresia eta faxismoaren aurka* (2008); eta *Aurrera begira* grabatu dituzte.

LITERATURA &gt; AURKEZPENEA

## Karmele Igartuaren liburua 'Ilunabar literarioan'

'Denbora enaren hegaletan' poesia bildumaren gainekoak azalduko ditu abenduaren, Zan Arkupen

M.B. &gt; ARETXABALETA

Karmele Igartuak (Aretxabaleta, 1959) *Denbora enaren hegaletan* olerki liburua aurkeztuko du Aretxabaletako Arkupen abenduaren 2an, 19:00etan. Hain zuzen ere, Idazle Eskolak egiten dituen *Ilunabar literarioen* barruan aurkeztuko du. "Denboraren zentzua gorpuzteko ahalegina egin dut liburuan. Bi metafora erabili ditut behin eta berriz, ur jauziak eta enara beltza", esan digu Karmele Igartuak. Gaineratu

digu liburua argitaratzea saria dela: "Idazle bakoitzak bere bidea topatu behar du, eta beste hainbat lan egin ditudan arren, sormenerako olerkia nahiago dut. Era berean, jakin badakit poesia irakurtzea ez dela erraza, eta irakurleengana heltzea ere ez. Horregatik guztiagatik, liburua argitaratzea pauso inportantea da niretako. Nik irakurleen esku jarri dut poesia; orain, eurek aukeratu beharko dute gustuko duten edo ez".



Karmele Igartua, liburuarekin.

MIRARI ALTUBE

POESIA ETA MUSIKA

*Ilunabar literarioa* liburu berrian oinarritutako 40 minutuko poesia irakurketa izango da. Baina

oholtza gainean ez da bakarrik egongo; izan ere, Aitor Ziardegi eta Andoni Arana aretxabaletarrek jarriko dute musika piano-

rekin eta gitarrarekin. Gainera, Pamiela etxeko Jose Angel Irigaray eta Tere Irastortza egongo dira Arkupeko saioan; eta baita Idazle Eskolako kideak ere. "*Ilunabar literarioak* irekiak dira herritar guztiendako. Normalean, batez beste 30 bat lagun elkartzen gara. Dena den, lehen aldiz etortzen direnek errepikatuko giten dute", dio Igartuak. Aretxabaletarrak lerro hauek aprobetxatu gura ditu debagoiendar guztiak gonbidatzeko.

IDAZLE ESKOLAKO BILERAK

Idazle Eskolakoek bost bat *ilunabar literario* antolatzen dituzte urtean zehar hainbat herritan. Helburua da idaztea gustuko dutenekin bilkurak egitea. "UNE-Deko Idazle Eskolan graduondokoa egin genuenok aldika-aldika elkartzen gara; besteak beste, irakurketa taldeetan, mintegietan edo *ilunabar literarioetan*. Norberak sortutako materiala erakusteko aukera izaten dugu", azaldu digu Karmele Igartuak.

Ruper Ordorika > Musikaria

# "Lan zaindua da, astia izan dut zer utzi eta kendu pentsatzeko"

O. ELORTZA-M. BITERI > BERGARA

Ruper Ordorikak kalean du lan berria. *Haizea Garizumakoa* du izena horrek eta Elkar argitaletxearekin argitaratu du. Disko horren aurkezpen lanetan murgilduta topatu dugu egunotan oñatiarra.

## Gustura geratu zara *Haizea Garizumakoa* lanarekin?

Bai. Alde musikaletik lasai nago. Gainera, inpresio ona daukat eta iruditzen zait lan berriak bere bidea egingo duela. Bestalde, esan behar dut musikariok beste modu batera bizi dugula lan berria egitearen prozesua; niretako historia zaharra da hori. Kontuan izan sanjuanetarako dagoeneko grabatuta neukala gehiena eta jarraian, hori dena atondu eta nahastu behar izan dela.

## Lana argitaratu aurretik, gertukoek entzun dute?

Taldekide eta parte hartu dutenendako izan ezik, gainon-

tzeko denondako sorpresa da, lan hauek banakakoak izaten dira-eta. Disko zaindua da, denbora eduki dudalako zer utzi eta zer kendu pentsatzeko.

Askotan aukera hori izaten ez badugu ere, denbora izatea oso garrantzitsua da, bai lan honetan, eta baita gainontzekoetan ere. Denborak, lasaitasuna emateaz gain, lanbidea poliki ikastea ahalbideratzen du.

## Argitaratu duzun 12. diskoa dugu oraingo hau. Kasualitatea da beste horrenbeste kantu izatea?

Bai, hala tokatu da. Gainera, ez nekien 12. diskoa zenik. Garai bateko albumak 40 minutu ingurukoak bakarrik ziren, teknikak ez zuen gehiago onartzen; baina CDak iraupen hori bikoiztu zuen. Hortaz, ez da samur jakiten luze-egi edo motzegi den. Gehiago sartzeko aukera dugu, baina, nire ustez, eremu horretan gabiltza musikari gehienok.



Ruper Ordorika oñatiarrak diskoa argitaratu du.

GOIENKARIA

**"Inpresio ona daukat; iruditzen zait lan berriak bere bidea egingo duela"**

**"Bailaran oraindik ez daukat hitzordurik, baina Arrasaten eta Oñatin egongo naiz"**

**Kasualitatea ez dena da aspaldiko lagunekin grabatu duzula, ezta?**

Bai. Nik kantuak bakarrik gitarrarekin egiten ditut eta bi hilabete lehenago ez nekien nondik nora jo: zuzeneko taldekideekin, beste batzuekin edo bakarrik. Kantuak gehiago entzun behar izan nituen zer eskatzen zuten jakiteko. Normalean egin izan dudana

da Ipar Amerikako musikariak hona gonbidatu; oraingoan, baina, ni joan naiz hara.

## Kantu bat Mikel Laboari eskainia dago...

Hala da. Uste dut lehenengo diskoa dela letra guztiak nireak biltzen dituen eta hor badago kantu bat Mikel Laboari eskainia eta izenburua *Sarri*-rena duena: *Sekulabelardiko kantaria*. Hark horrela deitzen zuen Laboa.

## Diskoaren izenburua ikusita, Elizako kontuekin zatozela ematen du...

Ez dut izan horrelako asmorik, baina banekien norbaitek galdetuko zuela. Antilletan izen hori ematen diote otsail bukean eta martxo hasieran harrotzen den haizeari. Hori onuragarria da jarraian udaberria datorrelako. Xelebrea zela iruditu zitzaidan.

## Joan den astean Gatzagan egon zinen. Bailaran badaukazu beste hitzordurik?

Ez, baina uste dut etorriko naizela; Arrasatera eta Oñatira, ziurrenik. Gatzagan, egia esan, urteak baziren joateko asmoa nuen. Han ez dute aretorik horretarako eta inoiz ez dugu bidea topatu. Kasu honetan, bira hasi aurretik, denok ikusten genuen egoki. Gainera, Korrikaren aldeko taldeak antolatzen zuten. Niri beti gustatzen zait ezagutu gabeko tokietan kantatzea, eta hangoa kontzertu polita izan zen.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Arexabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1

T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

arexabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### EKONOMISTAK

#### ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe  
T: 943 533 888  
F: 943 533 865  
uribe.arrobi@euskalnet.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lur-sailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38.

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbarearekin. Bizi izateko moduan dago, baina berritu behar da. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77.

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukalde. 606 86 71 97.

**Bergara.** 80 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai erdigunean, Justo Garate plaza. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzi utziko genduko. 650 79 28 63 edo 626 11 55 14.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukalde, bi komun, trasteleku eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31.

**Marieta (Araba).** Etxe bakarra saltzen da. 200 m<sup>2</sup> eta nahiko berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 metro koadroko egongela, beheko suarekin. 900 m<sup>2</sup>ko lorategia, eginda. 628 45 09 62.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukalde eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berritutako 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. 635 71 79 57.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 09 33 34.

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langile etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

**Arrasate.** Bikotea urtarilaren letik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakira.

**Bergara.** Errentan hartzeko etxe bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. Deitu 636 80 87 68 telefono zenbakira.

**Bergarako** neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. Deitu 649 40 72 49 telefono zenbakira.

## 105. ETXEA OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua da eta terraza dauka. Deitu 618 12 08 01 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Gela bila nabil. Mutil arduratsua naiz eta lan finkoa daukat. Deitu 943 79 74 13 edo 647 28 82 41 telefono zenbakira eta galdetu Miguel Barrio-sengati.

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukalde erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe-makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Deitu 690 61 08 26 telefono zenbakira. Alexandra.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 670 59 73 62 zenbakira.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu lau gela etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira bertan. Deitu 605 77 51 66 edo 943 79 46 13 telefonora.

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrentzat. Deitu 943 03 62 00 edo 696 03 80 07 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

## 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdigunean. Deitu 635 20 81 22 telefono zenbakira.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. KONPONDU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05  
sailkatuak@goiena.com

<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.

Iragarki partikularren astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarki ondoz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 3/ LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

## ARRASATE

**Gozoki denda edo lokal komertziala errentan. 50 m<sup>2</sup>. Kontzeziño kalea. 646 65 12 20 943 77 10 97**

## 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Deitu 677 05 39 06 telefonora.

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63

**Oñati.** Lokaltxikia, etxabea edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefono zenbakira

## 4/ LANA

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Deitu 943 53 33 92 telefonora eta Mari-rengatik galdetu.

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Emakume gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636 25 56 68 edo 943 25 02 94.

**Arrasate.** Emakume gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 619 78 63 41.

**Arrasate.** Emakume gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649 30 13 60.

**Bergara-Arrasate.** Emakume gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47.

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketara lan egiteko. Orduka lan egingo nuke. 671 33 75 54.

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 17 74 87.

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketarako egiteko gertu. Deitu 680 99 68 94 telefonora.

**Bergara.** Neska gertu 08:00etatik 10:00etara bitartean etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera 943 76 28 12 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizizaten. Legezko papearak daukat. Ana. 648 60 27 87.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edota orotariko garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, atariak, bulegoak eta abar. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakume edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakume gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. 639 88 64 13.

**Debagoiena.** Emakume gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. 650 70 98 76.

**Debagoiena.** Emakume gertu sukalde laguntzaile edo lisatze lanak egiteko. Hiru urteko esperientzia. 647 16 40 49.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. Deitu 697 88 35 62 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizezko lana lenerako gertu. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketara lanak egiteko. 610 95 79 79.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 638 10 29 63.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Neska arduratsua esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. 639 86 96 76.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gaez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

**Debagoiena.** Neska gaztea zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketara, ume edo nagusiak zaindazaten zerbitzari lanetan aritzeko. 660 56 65 58.

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta daukan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketara lanak egiteko gertu. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Pertsona edadetu eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. 606 85 67 08.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. 669 98 46 47.

**Debagoiena.** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. Deitu 649 83 08 82 edo 943 76 44 27 telefono zenbakira.

**Garbiketarako.** Neska langile eta esperientziaduna garbiketarako gertu, orduka. 669 20 57 98 edo 665 70 00 63.

## 403. BESTELAKOAK

**Zugatig egiten dit.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dit zugatik. Erreduak ere bai. 605 74 52 19.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Batxilergoko** gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. 688 63 82 28.

**Baxu elektriko eskola** partikularrik hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubate edo pare bat ordu astean. Nerea. 652 71 74 96.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86.

**Debagoiena.** EHuko Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinua ikasgaiarekin eskola partikularrik jasoko nituzke. Deitu 686 20 31 35 telefono zenbakira.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniari industrial naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrik emanonituzke: matematika, marrazketa tekniko, fisika, ingelesa eta abar. 667 32 35 00.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango nituzke. Mikel. 634 84 41 96.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrik ematen diru. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 637 52 89 83.

**Bergara.** Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingelesko eskolak emango nituzke. Deitu 675 00 59 48 telefonora.

**Bergara.** Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Aitor. 671 76 22 28 edo 943 76 01 99.

**Debagoiena.** Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrik emateko gertu. Natur Zientzien batxilergo eta EGA tituluak ditut eta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatira joateko arazorik ez. 690 66 19 80 edo 943 03 78 31.

**Diseinu Industrialeko** ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrik emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo nikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95.

**Mintza praktika.** Ingelesko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut Bergaran. Deitu 654 94 87 26 zenbakira.

**Musika eskolak.** Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. 679 22 86 07.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko eskola partikularrik emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika...). 678 27 27 57.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Honda Varadero XL 1000v** motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estrakorekin: hiru maleta, esku-berogailua eta Givi defentsak. Baita garajea. Deitu 605 71 24 73 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 620 13 83 86.

**Kanarioak salgai.** Anilladunak. Interesatuok deitu 635 75 54 53 zenbakira eta galdetu Mikelenatik.

**Pit bulla.** American pit bull terrier txakurkumeak salgai. ADBA pedigriarekin oso prezio onean, 400 euro. Aita AEBetik ekarria. Chinaman/Eli. Deitu 628 84 00 22 telefonora.

## 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. 685 79 07 61 zenbakira.

## 704. BESTELAKOAK

**Setter gordon** zuri-belta galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenezan katea zeraman arrastaka. Mesedez, deitu zenbaki honetara: 699 18 13 34.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Baserritar erropa.** 6-8 urteko mutikoarendako alkondara, 6 euroan eta gomazko albarka beltzak 10 euroan. Artilezko galzterdiak opari. 656 78 64 64.

**Bergara.** Tronpeta salgai. Deitu 638 89 78 76 zenbakira.

**Bikiendako EasyWalker** markako karroa salgai. Deitu 943 03 66 80 telefono zenbakira.

**Eskiatzeko materiala.** Buzoa, 10 neurrikoa, 15 euroan. Botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 euroan. 140 neurriko eskiak 15 euroan eta metrobeteko bastoiak 6 euroan. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 telefono zenbakira.

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztiekin. Roca modelo. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Base-rrirako egokia. Prezio negoziagarria. Deitu 943 79 34 74 edo 616 23 81 74 zenbakietara.

**Hitzegia.** 'Lur hitzegi entziklopedikoa' salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. Deitu 625 83 84 13 zenbakira.

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetarioak. Oso-oso merke. 665 73 59 83.

**Nokia 5800** mugikorra salgai. Movistarko. Berria. 150 euro. 661 68 11 24.

**PlayStation 2** saltzen dut: 50 joko, memoria-bartela eta urrutiko kontrolarekin. 150 euro. 659 68 06 06.

**Samsung J700** poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

**Sofa-oheta.** Kanpoko neurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekibetekoak. Urdina eta oso gutxi erabiltzea. 500 euro. 616 09 46 34.

**Umeendako motxila.** Salewa etxekoa. Aulkia, motxila, eguzkitik babesteko eta ez bustitzeko zakua. 60 euro. Deitu 645 72 08 11 zenbakira.

## 802. EROSI

**Akordeoi pianoa** erosiko nuke. 120 baxukoa. 699 10 74 45.

**Debagoiena.** Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Zuriñe. 627 22 45 79.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. 669 17 09 51.

## 806. GALDU

**Eraztuna Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbide artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 943 78 06 34 edo 656 74 53 90 telefono zenbakira.

**Poltsikoko telefonoa** galdu dut, Bergaran edo Elorriin, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 639 64 23 36 telefonora.

**Umearen jertsea** galdu genuen azaroaren 1ean, Arintzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. Deitu 943 53 34 59 telefono zenbakira.

## 807. AURKITU

**Aretxabaletan** pultsera aurkitu. Azaroak 24an Azbeko aparkalek



**TOKIKOM**

# ZERBAIT **BERRIA** PRESTATZEN ARI GARA



Ibane Baseta Elkorro &gt; Dantzaria

# "Dantzak ez dit denborarik kentzen, nik ematen diot denbora dantzari"

Neska fina da Ibane Baseta. Azkenaldian, lanez gainezka dabil bergararra. Goizetan irakasle ikasketak egiten dihardu eta arratsaldeetan, dantza solterako entrenamenduak egiteaz gain, umeei ere irakasten die. Beraz, ordu asko eskaintzen dizkio dantzari. 2004. urtean Euskal Herriko dantza txapelketa irabazi zuen; urtetako esfortzuak saria jaso zuen.

NAROA ODRIUZOLA &gt; BERGARA

Agenda erabiltzen du Ibane Baseta denbora antolatzeko. Guri tokito bat egin digu eguerdi aldera. Berandu etorri da gugana, eta hori arraroa da; izan ere, oso neska puntuala da. Kexuka heldu da Bergaran aparkalekurik ez dagoelako. Hala ere, lasaitasun osoz erantzun ditu gure galderak.

## Nondik datorkizu dantza solterako zaletasuna?

5 urterekin gurasoek dantzan apuntatu ninduten eta ordutik hona dihardut dantza soltea ikasten. Fandangoa, arin-arina eta plazetan egiten diren dantzak (zazpi jauzi, polkak, kontra dantzak) dakizkit, gehienbat. Beraz, 13-14 urte daramatzat dantza ikasten. Lehiatzen, ordea, 1997. urtean hasi nintzen.

## Sariak irabazi dituzu dantzari gisa. Honezkerok jarraitzaileak izango dituzu.

Bai, gurasoak [barre algarra]. Bizkai aldera asko joaten gara dantzara eta bertan jende askok ezagutzen gaitu. Aurreko urtean sorpresa hartu genuen andre bat guregana etorri zelako esaten: "Zuek Bizkaiko txapelketan dantza egin zenuten bergararrak zarete. Asko gustatu zitzaidan". Horrek motibatu egiten du. Pozgarria da jendeak ezagutzea.

## Mikel Igartua da zure dantza bikotekidea. Noiztik egiten duzue elkarrekin dantza?

Mikelekin 2001. urtean hasi nintzen. Aurretik, Jon Arrillagarekin egiten nuen dantza. Mikelek eta biok estilo antzekoa geneukalako hasi ginen batera. Ordutik hona elkarrekin jarraitzen dugu dantzan.

## Gogorra da dantzari izatea? Entrenamendu zorrotzak izaten dituzu?

Ze jomuga daukazu arabeira... Txapelketak irabaztera baldin bazoaz, edo sariak eta maila bat lortu nahi badituzu, asko entrenatu behar zara. Azkenean, oholza gaineko lau minutu horietan daukazu onena atera behar duzu, eta ez du balio akats bat egitea, akats horrek pikutara bidal dezakeelako guztia. Guk, gutxienez, astean behin entsegu bat egiten dugu eta denboraldia hasten denean entsegu gogoragoak egiten hasten gara.

## Momenturik txarrena:

2005. urteko Euskal Herriko txapelketa. Lehenengo aldia zen



NAROA ODRIUZOLA

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Hezkuntza Berezia egiten nabil Mondragon Unibertsitatean. **Zaletasunak:** Zinema, dantza, irakurtzea. **Soinua ala txistua?** Soinua. **Abesti bat:** Bob Dylanen *Blowing in the wind*. **Irakurritako azken liburua?** *Fra-*

*le a la carta*. Mikel Alvirarena. **Film gomendagarri bat:** *Bienvenidos al Norte*. **Bidaiatzeko leku bat?** Eskozia. **Amets bat:** Utopiak errealitate bihurtzea. Adibidez, bereizketarik ez egotea ikasgeletan. **Bizitza-ko leloa:** *Hacuna Matata*; bizi eta utzi bizi izaten.

nagusien mailan aurkezten ginea. Ondo prestatuta joan ginen, emaitza ona lortzea zen-eta helburua. Oholtza gainean geundela, fandango seigarren pausotan, lurrean zegoen zulo batean sartu nuen hanka, eta okertu. Mikelek dantzan jarraitu zuen eta nik ere saioa amaitzea lortu nuen. Gurasoak animatzen hasi ziren eta frontoi guztia txaloka hasi zen. Ez nuen negar egin oholza gainean nengoelako. Hala ere, jendearen erreakzioak animoak eman zizkidan.

## Bergaran bada estilo berezi bat dantza solterako?

Baietz esaten dute. Bergararok estilo bizia dugula esaten dute. Musika azkarra gustuko dugula eta hankak azkar mugitzen ditugula. Hala ere, bikote bakoitzak bere estiloa dauka.

## Dantza egiteaz gain, irakatsi egiten duzu. Noiztik?

Jada, lau urte izango dira umeei dantza irakasten nabilena. Maitte Lazkano eta Irantzu Lizarralde dira Moises Azpiazu dantza taldeko irakasleak, eta, ume asko apuntatu zirenez, irakasle baten faltan zeuden. Proposatu egin zidaten eta baiezkoa eman nien. Hala ere, aurretik Bergaran egiten diren ikastaro batzuetan, adinekoei irakasten ibili nintzen.

## Gainera, Irakasle ikasketak egiten ari zara. Zer moduz doa?

Bai, Hezkuntza Berezia ikasten nabil Mondragon Unibertsitatean. Oso ondo doa. Aurtengoa azkeneko urtea da. Orain burubelarri nabil azken lanak bukatzen eta proiektuan sartuta.

## Nola bateratzen dituzu ikasketak eta dantza?


Nire kasuan, ikasketak eta dantza batera doa. Goizetan teoria ikasten dut eta arratsaldeetan, umeei irakasten, praktikak egiten ditut. Gainera, beti ikasten dut zerbait; horregatik, biak bateratzea erraza egiten zait.

## Bestelako zaletasunik badaukazu?

Zinemara joatea asko gustatzen zait, parrandan irtetea, toki berriak ezagutzea...

## Baina horiek ez dizute kentzen dantzak kentzen dizun besteko denbora.

Dantzak ez dit denborarik kentzen, nik ematen diot. Denbora kentzen didala sentitu izan banu, ez nukeen jarraituko 12 urtez.



XXXXXXXXXXXXXX.

ARGAZKILARIA

# Ruper Ordorika musikari oñatiarra 'Magazinea'-n

'Alkateak zuzenean' atalean, berriz, Aretxabaletakoaren txanda izango da

**O.E. > ARRASATE**  
Ruper Ordorika musikari oñatiarra gonbidatu dute GOITBko *Magazinea* programara. Datorren eguaztenerako, abenduak 2, egin dute hitzordua. Disko berria besapean duela joango da Ordorika telebistako elkarrizketara eta lan horretaz, *Haizea Gari-*

*zumakoa*, egingo dute berba, hein handi batean. Musikaz jardungo dute. Bestalde, *Magazinea* programaren barruan astero egiten duten lehiaketa eguaztenean egingo dute, betiko moduan.

Datorren asteko *Alkateak zuzenean* atalean, eguenean, Aretxabaleko alkatea, Iñaxio Garro, elkarrizketatuko dute platoan egongo diren kazetariak.

**GOITB, 'Magazinea'**  
> Astelehenetik egubakoitzera, 19:45

## telebegi

Edorta Arana  
'edorta.arana@ehu.es'

### Intereconomia kanala

**L**urreko telebistaren digitalizazioaren eskutik ugaritu diren kanalaren artean Intereconomia izan daiteke nortasuna garbien duena. Sintonizatzaile automatikoak lehen zenbakietan kokatu didanez, bere "geltokitik" pasa beharra izaten dut. Gauez, *Los clones* saioa dute. *El intermedio*-n edo, *El hormiguero*-n, gertatzen den modura, aktualitatea hartzen dute eta ikuspegi ironikotik jorratu. Baina honetan, aitortzen dizuet ez didatela behin ere irribarrerik sortarazi. Pablo Motosek aurkezten duen saioan, belaualdien arteko etena dela eta ez zait asko gustatzen erabiltzen dituzten umorea, jokoak eta erreferentziak. Eta niri bezala, 35 urtetik gorako askori (audiometroak dixit). Wyomingen kasua bestelakoa da eta urteak pilatzen dituztenen geralekua izaten da. Ez dakit nolako audientzia izango duen *Los clones*-ek, baina garbi dago programa formatu berbera duela.

## Des-kontrol entzuteko sarrerak

**O.E. > ARRASATE**  
Arrasateko Des-kontrol taldeak Durangoko Plateruena kafe antzokian abenduaren 5ean joko duen kontzerturako sarrerak zozketatuko dituzte datorren astean *Igo autobusera* irratsaioan. Bestalde, Gabonetako opariak jasotzen ere hasi dira irratan: Baintet etxeak bidalitako sukaldaritzari buruzko bi liburu eder eta mardul dituzte dagoeneko entzuleen artean zozketatzeko.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**  
> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00



GIPUZKOAKULTURA.NET

### Elena Odriozola ilustratzailearen 'Txoritxoak'

Hiru gai ezberdin jorratuko dituzte *Gipuzkoa kultura* programan: Elena Odriozolaren *Txoritxoak* erakusketa, Yolanda Arrietaren *On-off* liburuaren aurkezpena eta Imanol Urbieta musikariaren azken bi lanak, Abbadia saria jasotzarren argitaratu direnak.

**GOITB, 'Gipuzkoa kultura'** > Eguaztena, 22:15

## arrasate irratia

FM 107.7

**Zapateria**  
10:00 Asteko gainbegiratu.

**Domeka**  
10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Uda Giroan Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa) Astelehenetan Kirolak Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin) Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin Udal Gazte Bulegoa Sexologia Zerbitzua Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak... Astearen erreposoa (Goienkariarekin) Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak Zozketak (egubakoitzean) Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## astea GOITBn

Egubakoitza, 27	Zapateria, 28	Domeka, 29	Astelehena, 30	Martitzena, 1	Eguaztena, 2	Eguena, 3
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 On ein.	10:30 Barrebusa.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Udazken loreak.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	11:30 Kantari.	12:00 Itsasoari begira.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta Lur.	14:00 On Ein.	12:30 Wazemank.	15:15 Sakonduz.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Itsasoari begira.	14:30 Udazken loreak.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 Klip.	15:50 Ikusten.	15:50 Sakonduz.	15:45 Kalekantoi.
16:15 Ikusten.	15:00 Barrebusa.	13:45 Ur eta Lur.	16:45 Berriak.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	16:00 Marrazki bizidunak.	14:15 Puntuz Puntu.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	14:45 Kale kantoi.	17:45 Kalekantoi.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	19:00 Kale kantoi.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Ilunpean.	17:35 Wazemank.	17:35 Harmailatik.	18:00 Sakonduz.
18:45 Berriak.	19:30 Itsasoari begira.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	20:30 28 Klip.	18:15 Barrebusa.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	21:00 Ilunpean.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.	21:45 On ein.	21:15 Wazemank.	20:45 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ikusten.	22:00 Erreportajea.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Sakonduz.	22:45 Ikusmira.	22:45 Gipuzkoakultura.	22:15 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Puntuz Puntu.
23:15 Kale kantoi.	23:15 Wazemank.	23:15 Ilunpean.	23:00 Gipuzkoakultura.	22:15 Ilunpean.	22:15 Ilunpean.	22:45 Erreportajea.
23:45 Magazinea	00:30 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:00 Wazemank.	23:00 Kalekantoi.	23:20 Itsasoari begira
00:45 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
				00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

## herritarak galdezka

OÑATIKO GAZTELEKUKO SOTOA  
ETA KUBOA

**Oñatiko irakurle batek mezu bat bidali digu hauxe galdetzen: "Gaztelekuko kuboia eta sotoa bakarrik aste bukaeretan zabaltzen dituzte? Eta, hala bada, zer ordutegi dute?"**

Erantzun bila gaztelekura bertara jo dugu, eta esan digute gaztelekuko kuboia eta sotoa aste bukaeretan eta jaiegunetan bakarrik zabaltzen dituztela; biak ala biak, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Era berean, esan digute gaztelekuko sotoa 8 eta 11 urte arteko nerabeendako zabaltzen dutela eta, gune txikia izan arren -70 metro koadro ditu-, ondo hornituta dagoela; besteak beste, xakea, mahai-jokoak eta mahai-futbola dituzte. Kuboko sarre-ara plazako aparkalekutik dago.

Bestalde, sotoan 7 urte arteko neska-mutikoak ibil daitezke. Gaineratu digute sotoan ez dagoela arduradunik eta umeez ezinbestean helduekin egon beharko dutela. Sotoan daude koltxonetak, mahaiak eta eserlekuak, jostailuak, DVDA eta gurasoendako kafe-makina. Sarrera merkaturako plazan dago.

Azkenik, gaztelekuko arduradunek gogorarazi digute topalekua astelehenean domekara eta jaiegunetan zabaltzen dutela, 17:00etatik 20:00etara arte.

GOIKO TRENBIDEKO ENTSEGU  
LOKALA

**Bergarar batek deitu digu galdetzeko ea zer egin behar duen goiko trenbidean entseatu ahal izateko.**

Astelehenean zabaldu zuten taldeen dako izenemate epea, eta eskariak udaletxeko erregistro nagusian aurkeztu ahalko dituzte abenduaren 23a baino lehen. Izena ematen duten tal-



Gaztelekuko sotoa aste bukaeretan eta jaiegunetan zabaltzen dute.

KONTZEJUPETIK

deek Goiko Rock elkarteko kide izan beharko dute. Eurek ordaintzen dituzte mantentze-lanak, argia, ura eta lokalaren garbiketa.

Goiko trenbideko entsegu lokalean bi solairu eta zazpi gela daude. Gela bakoitzean hiru talde sartzen dira eta entsegu-orduak elkarren artean adosten dituzte.

**Galdera egiteko:**

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin.

• Telefonoz: 943 25 05 05

• Faxez: 943 25 05 12

• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BASERRIETAN SORTUTAKO  
PLASTIKO BILKETA

**Baserritar batek jakin gura luke etxean pilatzen zaizkion plastikozko gauzak batzeko urteko azken eguna zein izango den.**

Debagoieneko Landa Garapen Elkartean galdetu dugu, eta esan digute abenduaren 22an egingo dutela azken bilketa. Gaineratu digute 2010erako egutegia oraindik ez dutela zehaztu, baina bilketak jaiegun ez diren hil bakoitzeko laugarren martitzenean egiten dituztela.

Gogorarazi digute plastikoa ondo lotuta bilketaren aurreko egunean atera behar direla herri bakoitzeko bilketa puntuetara, 17:00etatik aurrera.

Siloea estaltzeko plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastikozko beltza, berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen duten plastikozko beltza eta berotegietako plastikozko zuria jasotzen dituzte hil bakoitzeko laugarren martitzenean.

## eguraldia

## DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 28**

Hobera egingo du eguraldiak. Hodei gutxiago egongo dira eta ostarteak nagusituko dira; baina tenperatura freskoa izango da.

**Domeka, 29**

Domekan euria izango da nagusi. Han-hemenka bota dezake. Tenperaturek ez dute aldaketarik izango eta hotz egingo du.

## EUSKAL HERRIAN

Zapatuan ostarteak izango dira nagusi, baina tenperaturak ez dira asko igoko. Domekan, aldiz, euria izango da protagonista. Edozein tokitan bustiko du eta tenperaturak ez dira aldatuko.



## TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	2°C	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23		°C	°C	l/m <sup>2</sup>
Eguaztena, 18	16	6	0	
Eguena, 19	20	6	0	
Egubakoitza, 20	20	10	0	
Zapatua, 21	17	10	0	
Domeka, 22	16	5	0	
Astelehena, 23	17	2	0	
Martitzena, 24	16	4	0	

ASTEKO  
EURIA  
(l/m<sup>2</sup>)

0 L

## bono fotoa

Zer izen du Aramaioko  
baserri honek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aretxabaletako Resu Abasolo.

Zorionak!

Erantzun zuzena: Bergaran, Errotalde jauregia.



ETXEO ETXEO BANAKETA  
Larchago ardoak  
eta produktu ekologikoak  
943 76 98 51

Garmendia Ardoek emandako

**Ardo botila packa\***

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

## ARRASATE

Zapatua, 28	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Domeka, 29	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Astelehena, 30	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 1	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Eguaztena, 2	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguena, 3	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 4	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65

## BERGARA

Zapatua, 28	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 29	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 30	Urriticoechea	Oxirondo plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 1	Zabala	Ibarrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 2	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 3	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 4	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15


## OÑATI

Zapatua, 28	Barrenetxea	Kale Zaharra	943 78 01 22
Domeka, 29	Barrenetxea	Kale Zaharra	943 78 01 22
Astelehena, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra	943 78 01 22
Martitzena, 1	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 2	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 3	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 4	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

## ARETXABALETA

Zapatua, 28	Agirre	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Domeka, 29	Agirre	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Astelehena, 30	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 1	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 2	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 3	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 4	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



Aretxabaletan bizi diren **Lola Gonzalezek** eta **Juan Barberok** azaroaren 29an, domekan, beteko dituzte 50 urte ezkontuta. Familiakoekin ospatuko dute urteurrena: meza izango dute lehenengo eta bazkaltzera joango dira gero. Etxekoen partetik, zorionak!

**Patxi Bengoa** arrasatearra eta **Basili Ezenarro** abadiñoarra 1959ko azaroaren 28an ezkontu ziren Abadiñon. Urrezko ezteiak zapatuan ospatuko dituzten honetan, seme-alaben, biloben eta familia guztiaren partetik, zorionak!

**Mila Zabaleta** eta **Jose Mari Iciar** oñatiarrek hilaren 30ean zilarrezko ezteiak beteko dituzte. Ospakizuna Soraluze jatetxean egingo dute zapatuan. Ea beste 25 urte baino gehiago betetzen dituzuen batera! Zorionak eta muxu handi bana. Familiakoak.



**Joxe Mari Altzelai** eta **Maria Luz Ugarte** oñatiarrak azaroaren 27an ezkontu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak familiakoekin ospatuko dituzten honetan, zorionak, bioi, eta muxu handi bana, etxeko guztien partetik!



Bergarako **Jose Mari Osa** eta Itziarko **Argi Osa** ezkontu zirela gaur, azaroaren 27an, bete dira 50 urte. Domekan ospatu zuten Itziarren senideekin. Meza izan zuten eta Salegi jatetxean bazkaria gero. Zorionak eta muxu handi bana, etxekoen partetik.



Bergarako **Ramoni** eta **Julian Txantxiku** azaroaren 26an ezkontu ziren, orain dela 54 urte. Aita eta ama, zuen ezkontza-urteurrenean jaso ezazue muxu handi bana familiako guztien partetik. Zorionak!



**Pedro Irizar** eta **Francisca Arabaolatza** oñatiarrek gaur, azaroaren 27an, bete dituzte 66 urte ezkontuta. Ezkontza-urteurren honetan, ondo pasatu eguna eta zorionak, bihotz-bihotzez, etxeko guztien partetik.

OROIGARRIA

**Lucia Delgado Llera**

Amagara estetika zentroko Itsaso Guerrero lankidearen ama

2009ko azaroaren 22an hil zen, 66 urte zituela.

*Betiko izango zaitugu gogoan.*




Elena eta Maite.  
Aramaion, 2009ko azaroaren 27an.

ESKER ONA

**Juli Elorza Kortabarria**

Aretxabaletan hil zen 2009ko azaroaren 20an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2009ko azaroaren 27an.

**hildakoak**

- **Maria Pilar Ibarrodo Zabala.** Bergaran, azaroaren 19an. 66 urte.
- **Josefa Espiñeira Varela.** Aretxabaletan, azaroaren 19an. 77 urte.
- **Maria Cruz Unamuno Larrañaga.** Bergaran, azaroaren 20an. 99 urte.
- **Juli Elortza Kortabarria.** Aretxabaletan, azaroaren 20an. 83 urte.
- **Emilio Del Campo Serrano.** Arrasaten, azaroaren 21ean. 59 urte.
- **Pablo Otaño Martínez.** Arrasaten, azaroaren 21ean. 63 urte.
- **Yoana Heis Quintana.** Bergaran, azaroaren 21ean. 28 urte.
- **Jose Mari Estenaga Galdos.** Bergaran, azaroaren 21ean. 83 urte.
- **Lucia Delgado Llera.** Aramaion, azaroaren 22an. 66 urte.
- **Maxima Igartzabal Lizarralde.** Oñatin, azaroaren 23an. 74 urte.
- **Eusebia Uribarren Bengoa.** Aramaion, azaroaren 24an. 93 urte.
- **Luis Gabilondo Irala.** Bergaran, azaroaren 24an. 79 urte.
- **Juli Bastarrika Larrañaga.** Bergaran, azaroaren 25ean. 79 urte.

OROIGARRIA

**Emilio Del Campo Serrano**

'Moro'

Arrasaten hil zen 2009ko azaroaren 21ean, 59 urte zituela.

Amillenak, aire kirol taldeak, bat egiten du senideen saminarekin.




Arrasaten, 2009ko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

**Emilio Del Campo Serrano**

Arantxa Landa lankidearen bikotekidea

Arrasaten hil zen 2009ko azaroaren 21ean, 59 urte zituela.

Arrasate Herri Eskolak bat egiten du senideen saminarekin.




Arrasate Herri Eskolako irakasle eta gurasoak.  
Arrasaten, 2009ko azaroaren 27an.

**ESKELAK**

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**  
Edo zatoz ordezkari batara.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**  
Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenero GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



MEZA

**Gregori Loidi Astigarraga**

Mariaren Lagundiko lekaiamea

Haron hil zen 2009ko azaroaren 15ean, 91 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, azaroaren 29an, 11:00etan, Angiozarko San Migel elizan ospatuko da. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretzat eskerririk asko sendikoen izenean.

*Zure izatea gurekin betiko.*



Bergaran, 2009ko azaroaren 27an.

URTEURRENA

**Felix Elkorobarrutia Lazkano**

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 28an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretzat eskerririk asko sendikoen izenean.

# Azaroak 27-Abenduak 4

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE

### > 'La corte de Faraón' zarzuelako azken bi emanaldiak asteburuan Amaia antzokian

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La corte de Faraón* zarzuela eskainiko du aste bukaeran, gaur 20:00etan eta bihar, zapatua, 19:30ean, Amaian. Ehun bat lagunek hartzen dute parte ikuskizunean. Sarrerak 17 eurotan daude salgai.

## Antzerkia



ESKORIATZA

### > Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Irrien lagunak' Eskoriatzako kiroldegian bihar

Kubatarrak, senegaldarrak, galiziarak eta andaluziarrak euskaldunekin bat egingo dute *Irrien lagunak* ikuskizunean. Horrez gain, *Irri egiten duenari*, *Egizu euskaraz* eta beste hainbat kantu. Kiroldegian zapatuan, 17:30ean.

## Erakusketa



BERGARA

### > On Serafinek ateratako argazkien erakusketa Aroztegi aretoan

Serafin Esnaola apaizak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako 100 bat argazki, hark erabilitako zinema eta diapositiba proiektoreak, zinema eta argazki kamerak eta editatzeko tresnak daude ikusgai Aroztegin, domekara arte.

Azaroaren 30era arte egongo da erakusketa zabalik. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, goizez bakarrik.

ARRASATE

### > Naturaren argazkilariak

*Naturaren argazkilariak* lehiaketan jasotako lanen aukeraketa jarri dute ikusgai. Kulturaren, abenduaren 6ra arte. Martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

OÑATI

### > Teresa Diazen margo erakusketa kultura etxean

Teresa Diaz oñatiarrak hainbat koadro ikusgai jarri ditu kultura etxean.

Gaur, egubakoitza, erakusketa ikusteko azken aukera, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

### > Jone Telleriaren margoak Hamaika tabernan

Jone Telleria bergararrak 20 bat lan jarri ditu ikusgai, paisaiak nagusiki.

Espoloko Hamaika tabernan, abenduaren 13ra arte.

BERGARA

### > Juanjo Altunaren ikasleen margolanak kultura etxean

Altunarekin batera margolaritza lantzen dihardutenek erakusketa jarri dute.

Kultura etxean. Gaur, egubakoitza, erakusketa ikus ahal izateko azken eguna, 18:00etatik 21:00etara.

BERGARA

### > Marilu Untzuruntzagaren margoak Nahikarin

## Musika

BERGARA

### > Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Mariaren Lagundian

Orkestraren Santa Zezilia-ko emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 20:30ean.

ARRASATE

### > Los Galerna eta Sugarballs 3 aretoan, gaur

Instro-surf musika egiten dute Los Galernakoek.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean. 5 euro.

ARRASATE

### > Mahaster River, Irati tabernan

*Nahasterrekan* diskoa aurkeztuko dute bergarrek.

Bihar, zapatua, Iratin, 19:00etan.

BERGARA

### > La Union otxotea, Unanue korala eta Alai taldea

La Union otxotea Mierestik dator eta Unanue korala Ondarroatik. Alai talde bergararrak antolatu du emanaldia.

Bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan. Sarrera doan.

ARRASATE

### > Anger taldea Gure Lekun zapatuan

Arrasateko taldearen kontzertua. Ondoren, Kogollo Krew taldeko DJ Alkateren saioa izango da

Bihar, zapatua, Gure Lekun, 23:00etan.

## Poesia

ARETXABALETA

### > Ilunabar literarioa Karmele Igartuarekin

*Denbora enaren Hegaletan* poesia liburuaren aurkezpena, musikaz lagunduta.

Eguaztenean, abenduaren 2an, Arkupen, 19:00etan.

## Antzerkia

ARRASATE

### > Jesus Angel Arrieta eta Nano gaur lamai kafetegian

Bi aktoreen bakarrizketa saioak.

Gaur, egubakoitza, gauerdian lamai kafetegian, Kontzezino kalean.

ESKORIATZA

### > Esther Espartzaren 'Muy kontranatura' gaur

Antzezlan komikoa Esther Espartza aktorearekin.

Gaur, egubakoitza, unibertsitateko

areto nagusian, 22:30ean. Sarrera doanekoa.

ARAMAIO

### > 'Pepino ustelak (hozkailean)' gaur

Helduei zuzendutako antzerki emanaldia.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean.

ARETXABALETA

### > 'Bi azeri estu eta larri' haurrendako ikuskizuna

Patata Tropikala taldearen eskutik.

Bihar, zapatua, Arkupen, 11:00etan.

ARETXABALETA

### > 'Euskarazetamol' antzezlanaren egubakoitzean

Bikote Teatroa taldearen antzezlanaren.

Datorren egubakoitzean, hilaren 4an, Arkupen, 19:00etan.

## Erakusketak

ARETXABALETA

### > Xabier Iturraranen margo erakusketa

Hainbat koadro ikusgai jarri ditu Xabier Iturraranek Arkupeko aretoan.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM

**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.** 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.).

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

### ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia ahaztezina.

Azaroak 28: 14:00 eta 16:00

Azaroak 29: 13:00 eta 16:00

### 1, 2, 3 ... Matemagia!

Matematikarekin ere jolas egin daiteke!

Azaroak 28: 13:15

Azaroak 29: 14:00

### Zuzeneko esperimentuak:

Azaroak 28 eta 29: 18:15



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramon.org](http://www.miramon.org)

### Ordutegia

Astelehenean itxita.  
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00  
Asteburu eta jaiegunetan: 11:00-19:00

PROPOSAMENA

ELGETA

### > Xabier Lete domekan Elgetan

*Egusentziaren esku izoztuak* poesia liburuaren irakurraldia egingo du Xabier Letek domekan Espaloia Kafe Antzokian. Euskadi saria eskuratu du musikari eta olerkari oiartzuarrak lan horrengatik. Hamabost urtean poesiari argitaratu gabe egon ondoren, iazko neguan kaleratu zuen Letek *Egusentziaren esku izoztuak*, azken urteetako bizi-esperientzien gaineko gogoetak batuz. Domekako emanaldia ordubete ingurukoa izango da; Joxan Goikoetxearen akordeoi-jolearen laguntza izango du Letek Elgetako emanaldian.

Domekan, Espaloia Kafe Antzokian, 19:30ean. Sarrerak: 6 euro.

Marilu Untzurrunzagak tamaina txikiko 23 lan jarri ditu ikusgai.

Nahikari tabernan, astelehenera arte.

ANTZUOLA

> **Argazki lehiaketako irudiak**

Udalak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lan onenen erakusketa.

Olaran etxean, zapatuan eta domekan, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

## Mahai-ingurua

ANTZUOLA

> **'Herrialde pobretuetarako proiektuak bideratzeko'**

Bideberri Mankomunitateak akurten diruz lagundu dituen elkarteekin.

Olaran etxean eguenean, abenduaren 3an, 18:30ean.

## Ikastaroak

ARETXABALETA

> **Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**

Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo [jaikielkarrea@yahoo.es](mailto:jaikielkarrea@yahoo.es) helbidean.

ARETXABALETA

> **Hainbat ikastaro Arkupen**

Pintura, bainika, eskulan eta zeramika ikastaroak izango dira azaroan.

Argibideak Arkupen, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ARRASATE

> **Sendabelarren ikastaroa Ekin elkartearen eskutik**

Azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetzak bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

ARRASATE

> **Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

## Lehiaketak

ARRASATE

> **Jokin Zaitegi beka, Herta Müller itzultzeko**

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, Jokin Zaitegi Sariketa antolatu dute.

Aurtengoa 23. ekitaldia da. Aurrekoetan bezala, azken Literaturako Nobel saridunaren lana itzultzeko zuzenduta dago beka. Hain zuzen ere, Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atenschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea

Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefono zenbakian.



## Cuento de Navidad \*\*\*

Zuzendaria: Robert Zemeckis.  
Aktoreak: Jim Carrey, Gary Oldman, Robin Wright Penn. AEB, 2009. 95 minutu.

**E**hun urte pasatxo dituen zinema industriaren barruan izan dira aldatketak eta krisialdiak ere. Telebistaren agerpenari aurre egiteko Cinemascopea sortu zen; hiru dimentsioko zinema eta cinerama etorri ziren... baina betiere proiektzio sistema mantendu da. Orain zinemak ikusleak galdu ditu: zinema ikusten da, baina beste modu batzuetan: etxean Internetetik jaitsiak, edo DVDan. Hori dela eta, azkeneko urteetan hiru dimentsioko zinemaren berragertzea indartsua izan da. Gehienak animaziozko filmak dira, eta orain estreinatu den *Cuento de Navidad* marrazki bizidunak direla esan daiteke, baina berezitasun batekin. Duela urte batzuk *Polar Express* filmarekin egin zuen bezala, Zemeckisek aktoreak erabili ditu, horien keinuak eta mugimenduak harrapatzeko eta gero gainetik irudiak sortzeko. Teknika horri hiru dimentsioko irudiak gehitu dizkio Charles Dickensen ipuin klasikoak filmatzeko.

*Cuento de Navidad* berria da batetik, hiru dimentsioekin ederki jolasten duelako irudi indartsuak sortzeko, baina beste aldetik denek ezagutzen dugun ipuina hurbiltzeko eran ez dugu ezer berri aurkitzen. Erabilitako teknikek ikus-eremuaren sakontasuna indartzen dute, irudiak pantailatik ateratzen direla eta zinema gelan elurra ari duela ematen du. Alde horretatik ipuinak daukan amesgaizto kutsua ondo isaltuta dago, baina, aldi berean, zuzendariak ez dio istorioari ikuspuntu edo biraketa berririk ematen. Ezaguna dugun istorio bat ikusgarri indartzen du zuzendariak, zinemaren mesedetan.

Helburu nagusia teknika berriei etekina ateratzea da eta hori lortuta dago. Ikusleak efektuekin gozaten du, zinematik gustura atera daiteke ikusitakoagatik, baina istorioaren tratamenduari originaltasun apur bat falta zaio beharbada.

Antonio Zabala

# Zinema

### ARETXABALETA

#### ZARAIA

**Distrito 9**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Mas allá de los sueños**  
Domeka: 17:00.

**Los limoneros**  
Eguena: 19:30.

#### OÑATI

#### KULTUR ETXEA

**2012**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Hannah Montana**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El bosque de luto**  
Eguena: 20:00.

#### BERGARA

#### ZABALOTEGI

**Mi nombre es Harvey Milk**  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.

**La montaña embrujada**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

#### GAZTETXEA

**Concursante**  
Domeka: 18:00.

#### ELGETA

#### ESPALOIA

**El curioso caso de Benjamin Button**  
Eguaztena: 21:30.

#### ARAMAIO

#### KULTUR ETXEA

**Mi nombre es Harvey Milk**  
Egubakoitza: 22:15.

**George kuxkuxeroa**  
Domeka: 17:00.

### EIBAR

#### COLISEO ANTZOKIA

**Bienvenido a Zombieland**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Alvin y las ardillas 2**  
Zapatua: 19:30.

#### COLISEO 1

**Avatar**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Bienvenido a Zombieland**  
Zapatua: 17:00.

#### COLISEO 2

**Alvin y las ardillas 2**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Bienvenido a Zombieland**  
Zapatua: 19:30.

#### GASTEIZ

#### GURIDI

**Luna nueva**  
17:00, 17:30, 19:45, 20:15, 22:30.

**Los condenados**  
22:30.

#### 2012

17:00, 20:15.  
**Planet 51**  
17:00, 18:45, 20:40, 22:30.

**Julie y Julia**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Cuento de Navidad**  
17:00, 18:45, 20:40.

**Buscando a Eric**  
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

#### FLORIDA-GURIDI

**Celda 211**  
18:00, 20:15, 22:30.

**Planet 51**  
17:30. Euskaraz.

**El baile de la Victoria**  
17:15, 19:50, 22:30.

**Adventureland**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Partir**  
20:00, 22:30.

**El secreto de sus ojos**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Agora**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Amelia**  
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

#### YELMO CINEPLEX

**Cuento de Navidad**  
(3-D emanaldiak)  
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45, 19:45.  
Domekan izan ezik.

**Cuento de Navidad**  
16:15, 18:15. Domekan

**Luna nueva**  
15:30 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Tenderness**  
20:15, 22:15, 00:15.

**Paranormal activity**  
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Planet 51**  
16:00 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00, 23:00, 00:00, 00:45.

**Celda 211**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Amelia**  
21:45, 23:55.

**Siempre a tu lado, Hachiko**  
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**2012**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

**Buscando a Eric**  
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

**El baile de la Victoria**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:10, 21:40, 00:10.

**G-Force: licencia para espíar**  
15:45 (zapatuan eta domekan).

**Agora**  
17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

**La chica que soñaba con una cerilla...**  
19:15, 21:45, 00:15.

**Malditos bastardos**  
17:30. Domekan izan ezik.

**Vicky el vikingo**  
15:55 (zapatuan eta domekan).

Azaroaren 27tik abenduaren 3ra. Gaurdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

#### ÁBACO BOULEVARD

**Celda 211**  
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

**Amelia**  
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**G-Force: licencia para espíar**  
16:05.

**Cuento de Navidad**  
15:45, 18:00, 20:05.

**El baile de la Victoria**  
16:15, 19:00, 22:15, 01:00.

**2012**  
15:45, 19:00, 22:00, 22:10.

**The Box**  
20:15, 22:40, 01:00.

**Agora**  
19:15, 22:00, 00:45.

**Siempre a tu lado, Hachiko**  
16:10, 18:10.

**Luna nueva**  
16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:45, 01:00 (egubakoitzean eta zapatuan).

**Paranormal activity**  
16:20, 18:15, 20:15, 22:20, 00:30.

**Planet 51**  
16:00, 17:00, 18:00, 19:30, 20:00, 22:10, 22:35, 00:30.

Azaroaren 27tik abenduaren 3ra. Gaurdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



#### 2012

Zuzendaria: Roland Emmerich.  
AEB, 2009.  
160 minutu.

Maien kulturako egutegiaren arabera, 2012an amaituko da mundua, hondamendi natural ugariaren ondorioz: sumendiak leher-tuko dira, tifoak izango dira eta urtutako glaziarrek mundua urez beteko dute. Iragarritakoa benetan gerta daitekeela konturatuko dira zientzialariak. Efektu berezi ikusgarriak dituen filma. John Cusack eta Amanda Peet protagonisten artean.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

**El secreto de sus ojos**  
Argentina 2009. Zuzendaria: Juan Jose Campanella.

Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Exposito. Erretiratzera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbait buruzko eleberririk bat idazteari ekingo dio. 70eko urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketa bat eta, aldi berean, gauzatu gabeko maitasun istorio bat.

**Millenium 2: La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina**

Suedia, 2009. Zuzendaria: Daniel Alfredson  
Poliziak gehien bilatzen dituen pertsonen zerrendako lehena da Lisbeth Salander. *Millenium* aldizkari-ko bi kolaboratzailek sexu merkataritzari buruzko eskandalu bat argitaratu behar dute eta, orduan, hilda azalduko dira. Heriotza eragin

dien armak Lisbethen hatz aztarnak ditu... Liburu trilogia arrakastatsua-ren bigarren zatia pantaila handira iritsi da dagoeneko.

#### This is it

AEB, 2009. Zuzendaria: Kenny Ortega.  
Michael Jackson hil aurretik, agertokiara itzultzeko egiten ari zen entseguen irudiek osatutako dokumentala da.

## nire aukera



Maitane Arizabaleta  
Jardun elkartearen kultura dinamizatzailea

## Gasteizera eta Bilbora

**B**igarren ikasturtez, Jardun euskara elkartearen lanean dihardu Maitane Arizabaletak. Paisaia eta Natura Errekurtoak eta nekazaritzako modulu bat ikasi zituen Murgian. Zuhaitzak ikustera joateko atsegin du: "Bergarako parkeetan, Monterronen edo Gasteizko Florida parkean, berdin dio".

Besteak beste, Berriketan, Auzoko egitasmoa, Euskara errefortzuak eta aisialdiko jarduerak aurrera eramaten dituzte Jardunen. Egueneko Euskararen Eguna-ri begira, zera dio: "Egunero izan beharko litzateke Euskararen Eguna, erabilera bultzatuz". Bi seme-alaba dauzkate: Auritz (5 urte) eta Haizea (3 urte).

### Astebururako planik bai?

Bai, zapatuan Berriketan eta Zaharberri egitasmoa 20 bat lagun Gasteizko Santa Maria katedrala bisitatzea joango gara, goizez. Arrasate eta Bergarako jendea goaz, eta bazkaltzeko bueltatuko gara. Ume barik nago, oraingo aste bukaeran Madrilera doazelako, aita bisitatzea. Azken atxiloketak salatzeo Bilbon egingo den manifestaziora joateko aprobetxatuko dut. Eta domekan, berriz, kanpotik datozen lagun batzuekin bazkaria daukagu Artatse elkartearen.

### Zein da zure plan onena asteburu baterako?

Gustatu gauza asko gustatzen zaizkit, baina umeekin-eta mugatuta zaude: lagunekin egon, umeekin irten, egun-pasa hor zehar joan... halako gauzak egitea atsegin dut.

### Zer ari zara irakurtzen orain?

Toti Martinez de Lezearen *A la sombra del Templo* eleberria eta *Orekan: herri eta hizkuntzen ekologiaz* (Xamar) irakurtzen dihardut. Liburu historikoak atsegin ditut gehien; Gaia argitaletxeak kaleratzen dituenak, esaterako: euskaldunon jatorria eta halako gaiak jorratzen dituztenak, hain zuzen.

Edu Mendibil

# Lagunak irriz Eskoriatzan

**PIRRITX ETA PORROTX** Kantua eta dantza protagonista izango diren ikasturte amaierako jaia da ikuskizuna

**MUSIKA** Xabier Zabalaren musika eta Idoia Uralderen ahotsa zuzenean entzuteko aukera izango da

**IBARREAN** Aretxabaletan eta Oñatin udaberrian, Bergaran Aratusteetan eta Arrasaten sanjuanetan izango dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

*Irrien lagunak* da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria eta bihar, zapatua, ekarriko dute Eskoriatzara.

Umeek eta helduek Sudur Gorrien Egunean, ikasturte amaierako jai batean irudikatu beharko dute euren burua. "Ikasturte amaieran irakasleak galde-tuko die ikasleei kurtso horretako zer duten gogoan eta denek gogoratuko dute zer bait, maitasunez ikasia ez delako inoiz ahazten. Gure asmoa da kantuan eta dantzan oinarritutako festa alai eta dibertigarria egitea, non jendeak parte hartzea nahi dugun", kontatu digu Porrotxek.

Eskoriatzako ikuskizunean izango dira gonbidatuak: Arantxa Plantxa izeba, elefante bat, Joxepa behia eta Olentzero, esaterako. Pirritx, ordea, ez da taula gainean izango: "Pirritx haurdun dago eta sendagileak esan dio atsedean hartzeko. Hortaz, berak parte hartuko du saioan, baina bideo konferentzia bidez. Pailazo modernoak gara", dio Porrotxek.

KOLABORATZAILEAK

Ikuskizunean, disko berriko kantuak, lehengoak eta abesti herrikoiak izango dira Xabier Zabala eta Idoia Uralderen zuzeneko musika eta ahotsarekin; pailazoak eurak ere kantuan entzuteko aukera izango da.

Zuzenekoan bai, baina ikuskizunaren izen bereko diskoan ere kolaboratzaile mordoak izan dute; besteak beste: lagun senegaldarrak, kubatarrak eta galiariarrak; Pantxo eta Peio, Asier Gozategi, Gorka Urbizu, Kaki Arkarazo, Iñaki Ortiz de Villalba musikariak; eta hitzak egiten Maialen Lujanbio, Jon Maia, Unai Muñoa eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak.

Eskoriatzako saioa egin ostean muxurik ez dela faltako esan digu Porrotxek: "Muxu ematea 'Maite zaitut' esatea da".

Debagoieneko beste herri batzuetako lagunei ere ekarriko dizkiete irriak pailazoek: Oñatira eta Aretxabaletara udaberrian, Bergarara Aratusteetako domekan eta Arrasatera sanjuanetan.



LAGUNAK Pailazoak kolaboratzailez inguratuta izango dira ikuskizunean eta diskoa ere hala grabatu dute.

GOIENKARIA

## ahobero

"Ezerk ez du argal egoteak bezain aho zapore ona uzten"

Kate Moss > Modeloa

Seguru asko, beste zenbaiti eta, gainera, neska argal honi baino gehiagori, aho zapore hobe utziko dio txorizo ogitarteko batek. Bere gorputzarekin gustura egotea gauza bat da, eta beste bat, hori moda ibiltokietan ez ezik horrelako berba arinekin lau haizetara zabaltzea eta lodi egon gabe gorputz beteagoa dutenak gutxiestea. Izan ere, hain argalak modan ote daude?

## iturri onetik

**Hamaika Bertute Eguna Oñatin ospatuko dute urtarrilaren 16an**

Bertsogintzak elkartutako taldea da Hamaika Bertute; bertsoa protagonista den saioetarako gertu dauden hainbat bertsolariaren eta gaitzaileraren bilgunea. Hamaika Bertuteko laugarren eguna Oñatin ospatuko dute 2010eko urtarrilaren 16an, zapatuan. Egun osoko jaia izango da, gai baten bueltan. Goizean bertso-triki poteoa egingo dute, gero bazkaria eta bazkalostean bertso saioa.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

Arrasate musikaz

J oan den larunbatean Amaia antzokian izan nintzen zarzuela ikusten eta bihar joatekoa naiz Arrasateko gaiteroen disko aurkezpenera. Batean zein bestean jende askoren lana behar izan da ekimenak aurrera eramateko. Faraoi egiptoarraren gortean ehundik gora lagun bildu ziren agertokian, antzeztan edo musika jotzen, eta horiei erantsi behar zaizkie ilunpetakoak. Diskoan, aldiz, ageriko taldea txikia da baina hango eta hemengo musikari askoren soinuk entzun daitezke.

Bi ekimenak elkartuta, sekulako indarra adierazten dute. Eta nahi nuke pentsatu hau ez dela txiripaz gertatu, badela Arrasaten eta Debagoienean komunitate beregain eta jantzi gisa bizirik irauteko borondatea, eta bide horretan etorriko direla emaitza gehiago. Nahi nuke.

## ai, ene!



**Oinak bero-bero eta zolua garbi**

Etixerako oinetako horiek ezin egokiak dira burua garbiketan besterik ez dutenendako; orain, oinetan ere izan dezakete.

[www.sarda.es](http://www.sarda.es)



**IKUSI  
MAKUSI**  
Umeen paradisia

